# Goienkaria

2006ko otsailaren 10a > Egubakoitza > VI. urtea > 231. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Tokiko telebista digital bakar batek ere ez du gaztelania hutsean emitituko"

Patxi Baztarrika > 09

**G2a** Antzuolako toponimia, liburu batean > 43

**DEBAGOIENA** Legez kanporatutako herri plataformek egoera salatu dute > 05

**HERRIAK** Olandixoko tunelaren gaineko maketa ikusgai dago Arrasaten > 15

**KIROLA** Jonathan Perez: "Bazen garaia bost metroak gainditzeko" > 40




**GOIESKOLAK** batzen ditu Debagoieneko euskal eskola publikoak (argazkiak horko ordezkariak), eta taldea bidelagun izango du Oñatiko Errekalde ikastetxeak, jaiaren antolatzaileak. IKER BARANDIARAN

**DEBAGOIENA** > HEZKUNTZA

# Euskal eskola publikoak Oñatin ospatuko du jaia

**LELOA AURKEZTU** zuten joan den eguaztenean; izango da 'Mugak gaindituz, herriak biribilduz'

**SEI GUNE** egongo dira jaian, denetariko aisialdi eskaintzarekin; berritasuna, Natura gunea > 2-3

**BERGARA** > ZIBURUAK

## Jolasparkeak berrituko dituzte

Udalak 300.000 euro gastatuko ditu ziburu berrietan > 24

**ARETXABALETA** > IBILGAILUAK

## Bi urtean 100 auto gehiago

Herrian 228 motor daude, duela bi urte baino 18 gehiago > 31

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 02-07
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Telebista-Irratia** > 51
**Komunikazioa** > 52
**Non-zer** > 54-55




iKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK:
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42
FAGOR

**HEZKUNTZA** > EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK OÑATIN IZANGO DU BERE JAIA

# Gertu dago ibarra 15. Euskal Eskola Publikoaren jairako

**JAIA AURKEZTU** zuten eguaztenean Debagoienean Oñatiko herri eskolak eta Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak; eguenean, Donostian

**LOGOTIPOA ETA LELOA** plazaratu dituzte: 'Mugak Gaindituz, Herriak Biribilduz' da leloa, zabalkuntza eta integrazioa adierazteko

**ESKOLA EUSKALDUNA** eta euskararen normalizazioaren aldekoa dela azpimarratzen dute, eta horrekin bat datozen guztiak gonbidatu dituzte jaira

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI

Gertu dago Debagoiena EAE osoko euskal eskola publikoaren hamabosgarren jaia hartzeko. Ekainaren 4an izango da, Oñatin, eta joan den eguaztenean, hilak 8, aurkeztu zuten jaia. Debagoienerako aurkezpena Arrasaten egin zuten Pedro Zubizarretak eta Nuria Letamendik, Oñatiko Errekalde Herri Eskolako guraso elkartearen izenean, eta Imanol Zubizarretak, EHIGEkoak (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartea). Jaira joatera gonbidapena egin diete honakoei: "euskal eskola publikoak gure hezkuntza sistema propioaren ardatz izan behar duela uste dutenei; euskal eskola publikoak euskalduntze prozesuaren protagonista dela usten duten euskaltzaleei; azken baten, euskal eskola publiko euskaldun eta kalitatezkoaren aldeko borrokan diharduten guztiei". Ekitaldira hainbat irakasle eta guraso hurbildu ziren.

Jaiaren ikur nagusiak ezagutarazi dituzte: kartela, logotipoa eta leloa. Logotipoko irudi nagusia borobilak dira. Horrekin, euren esanetan, euskal eskola publikoaren izaera integratzailea adierazi gura dute.

Leloa bide beretik doa: *Mugak gaindituz, herriak biribilduz*. Horrekin laburtzen ditu Euskal Herriko Gurasoen Konfederazioak euskal eskola publikoaren gainean dituen kontzeptuak: "Eskola handitu, gure eskola zabalagoa izan dadin lortzen dugulako, guztiondako tokia eginez; ezberdintasunei esker hazten garelako; gure kulturan, gure hizkuntzan… aurrera goazela; eta oztoporik gabeko geroaldia eraikitzeko bideak zabaltzen ari garelako pixkanaka". *Mugak Gaindituz* izan zen hasierako leloa, eta gero bigarren zati bat gehitu diote, *herriak biribilduz*, "herri euskaldun eta solidarioa lortzeko", euren esanetan.

**Euskal Herri osoko 30.000 lagun inguru batzea espero dute antolatzaileek**

**Goieskolak, ibarreko euskal eskola publikoak, bere lana ezagutaraziko du egun horretan**

**ONDO PASATZEKO SEI GUNE**

Oñatiko Errekalde Herri Eskolak dihardu jaia antolatzen: sei lagun Oñatiko eskolatik eta beste bat Baikaratik, Gipuzkoako gurasoen federaziotik.

Dagoeneko ia dena lotuta daukate. Hala, sei gune izango dira. Berritasuna da naturaren gaineko gunea, Oñatiren natura aberastasunak hori eskatzen zuela ikusita. Bi kilometroko ibilaldia izango da; animaliak egongo dira ikusteko, eta Santa Marina plazan, naturarekin zerikusia duten tailerrak.

Horrez gain, sarrera-gunea izango da Unibertsitate parean; 0-6 urte bitartekoen gunea plazako aparkalekuetan eta frontoian, puzgarriekin eta jolasekin; 6-12 urte bitartekoena Etxaluze plazan, tailerrekin, ile-apaindegiarekin… Euskalgunea ere ipiniko dute, Herriko Plazan, bertsolariekin, herri kirolekin, Tapia eta Leturia eta Oskorrirekin… eta Gazte-gunea Unibertsitate inguruan, Sharon Stoner eta Potemkin Oñatiko taldeekin, rap musikari batzuekin, tirolinarekin…

Horrez gain, Oñatiko talde batzuekin harremanetan dabiltza bestelako zerbitzu batzuk ipintzeko: taloak; txokolatearen gaineko postuak, herriaren tradizioari begiratuta; Gorputziko erakustaldia; Oñatiko dantza taldeak eta musika eskola…

Oñatiko ondarea bera izango da beste erakarpen bat: alde zaharrean egingo dute jaia, eta hainbat euskal artelan aipagarri ezagutuko dituzte bisitariek.

Jai egun handia izatea espero dute Errekalde Herri Eskolakoek: Euskal Herri osoko 30.000 bat lagun etorriko direla aurreikusten dute. Jaia Oñatin egiteak lagundu egingo duela uste dute antolatzaileek: "Hirietan egin denean, ez da oso jai erakargarria izan; baina azken urteetan Agurainen egin dute, eta herri txikia izanda, giro politagoa sortu da", dio Iñaki Arregik, Oñatiko eskolako gurasoen elkarteko kide batek. Errekalde Herri eskolak 25 urte egin zituen iaz, eta horregatik egin zuten proposamena.





**ERREKALDE** Herri Eskolako ikasle batzuk, logotipoa eta kamisetak erakusten. MAIDER ARREGI

**IBARREKO 2.500 FAMILIA**
Jaia Oñatin izango bada ere, Debagoieneko euskal eskola publiko osoa ari da antolatzen. Are gehiago, Goieskolaren jaia ere izango da ekainaren 4koa, egun hori aprobetxatu gura dutelako Goieskola, Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa proiektu komunitarioa, bultzatzeko. Sare hori 13 eskolak osatzen dute, 2.500 familia, 3.000 ikasle, 425 irakasle eta beste 65 langile batzen ditu, eta euren helburu nagusitzat aipatzen dute "Debagoieneko ikastetxe publiko guztietan hezkuntza integral eta kalitatezkoa lantzea".

Goieskolak euskal eskola publikoaren balio eta aldarrikapenak gogoraraziko ditu jaian. Balioen artean, eskola euskalduna dela azpimarratzen dute. Hala, Iñaki Arregik, Errekalde Herri Eskolaren izenean, hauxe dio: "Eskualde hau apur bat berezia da eskola publikoarekiko. Erakutsi gura dugu eskola euskalduna dela eta euskararen alde lan egiten ari garela"; gogorarazten du D ereduan matrikulatutako hiru ikasletik bi eskola publikoan daudela. Integratzailea dela ere aipatzen dute, eta parte-hartzailea, "gurasook, irakasleek eta ikasleek hartzen dugulako parte erabakietan", dio Errekalde Herri Eskolak.

Euskal eskola publikoaren aldarrikapenak gogorarazten ditu Goieskolak: 0-3 tartea publikoa eta doan izan dadila; eskola mapa berria –herrialde bakoitzeko hirigintza-garapena kontuan hartuta–; hizkuntza ereduak gainditzea; ikastetxeak autonomo izatea, hau da, hemengo eskolak ez daitezela urrutiko agintarien menpe egon, eta ikastetxeak euren burua kudeatzeko gai izan daitezela; edo testu-liburuak doakoak izatea.

**JAIAREN GAINEKO DATUAK**

**> BERRITASUNA, NATURA**
Natura-gunea berria da. Oñatiko Natur Eskolak ibilaldia antolatu du. Natura tailerrak, animalia erakustaldiak... ere egongo dira.

**> BESTE GUNEAK**
Sarrera-gunea (Unibertsitate parean), 0-6 urtekoen gunea (Herriko Plazako aparkaleku eta frontoian), 6-12 urtekoena (Etxaluzen), gazteena (Unibertsitatea) eta euskal-gunea (plazan).

**> ZERBITZU ETA IKUSKIZUNAK**
Talogileak egongo dira, txokolatearen gaineko postuak, Gorputzi jaiko erakustaldia, herriko musika eskola eta dantza taldeak...

**> AURREIKUSPENAK**
Euskal Herri osoko 30.000 lagun espero dituzte.

## "Borobilak ez du ertzik, ez du inor baztertzen"

Logotipoa 1,50 metro luze eta 70 zentimetro zabal zen kartel baten aurkeztu zuten Goieskolako, Errekalde Herri Eskolako eta EHIGE federazioko ordezkariek. Oso irudi xaloa da, eta borobila da irudi nagusia. "Borobilak ez du ertzik, ez du inor baztertzen. Kanpoan dagoena ere sar daiteke", honela azaltzen dute antolatzaileek irudiaren esanahia.

Zenbait koloretako fondoarekin ager daiteke logotipoa. Irudi horrekin kamisetak, txandalak, txapelak eta beste arropa batzuk eta eskolako materiala salduko dute eskoletan, eta egunean bertan, salmenta postu baten.






GARRAIOA > DIPUTAZIOAREN AZTERKETA

# Automobila da nagusi, garraio publikoa baino askoz garestiagoa den arren

Koldo Azkoitia: "Gure erronka da garraio publikoa hobetzea, maiztasunari zein azkartasunari dagokienez"

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Automobila erabiltzea autobusa erabiltzea baino lau aldiz garestiagoa da, eta trena hartzea baino zortzi aldiz garestiagoa. Hala ere, bidaien %72 automobilez egiten ditugu gipuzkoarrok, eta %18 besterik ez garraio publikoa erabilita. Gipuzkoako Foru Aldundiarendako Unisys Consultingek egindako azterketaren emaitzetako batzuk dira horiek.



ARRASATE barruko joan-etorriak eta arrasatearren ohiturak aztertu dituzte Diputazioaren ikerketan. GOIENKARIA

**DEBAGOIENA ERE AZTERTU DUTE**

Debagoieneko garraio publikoa eta debagoiendarron ohiturak ere aztertu dituzte ikerketa horretan. Gipuzkoa osoan 18 ibilbide kontuan hartu dituzte ikerketarako; horietatik hiru dira udalerri barrukoak: Irun, Donostia eta Arrasateko barruko garraioak aztertu dituzte. Eskualde barruko garraioari dagokionez, Arrasate eta Aretxabaleta artekoa aztertu dute Debagoienean; eskualde artekoen kasuan, azkenik, Bergara-Eibar eta Arrasate-Donostia ibilbideak.

**TXARTEL BATERATUA, AURTEN**

Betiere automobilarekin alderatuta, autobusa erabilita urtean 1.770 euro aurreztuko genuke pertsonako; trena erabilita, 5.573 euro. Hala ere, esan bezala, automobila erabiltzen dugu gehienok.

Koldo Azkoitia Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatuarekin berba egin dugu horren guztiaren gainean. Datuak ez dira batere baikorrak, eta hau adierazi digu: "Autobusarekin arazoa daukagu, eta zerbitzu hori hobetzeko ahalegin handia egiten dihardugu; bereziki azkartasunean irabazi beharra daukagu. Horrekin batera, noski, maiztasuna ere hobetu beharko dugu". Honakoa gaineratu digu Azkoitiak: "Txartel bateratuak asko lagunduko digu horretan, geltokietan geldialdi laburragoak egin beharko direlako". Momentu honetan, euren helburu nagusia da txartel bateratua abian jartzea; aurten gertatuko da hori.

Ikerketak errealitatea zein den erakusten digu, Koldo Azkoitiaren esanetan, eta "jorratzen dihardugun ildoak zuzenak direla ere erakusten digu".

Debagoieneko tranbiaren proiektua ere izan du hizpide: "Benetako kalitate-jauzia izango da gure ibarrarendako", dio.




Aurten ere, Eibarren beherapenen beherapenak antolatu ditugu:
Eibar Factoring 2006.
40 standetan produkturik onenak ikusteko aukera izango duzu otsailaren
16,17,18 eta 19an Armeria Eskolan.
Isasi Kalea 36.

Ez galdu halako aukerarik!!!

jantziak
osagarriak
etxerako ohialak
kirolak
oinetakoak
eta askoz gehiago....

Eibar factoring 2006

EIBAR
CENTRO COMERCIAL ABIERTO
MERKATAL GUNE IREKIA

DEBAGOIENA > HERRI PLATAFORMAK

# “Apartheid” egoera eta udalen kudeaketa eskasa salatu dute

2003ko udal hauteskundeen balantzea egin dute Bergaran Debagoieneko herri plataformek.

Udalek pribatizaziorako joera dutela uste dute eta ez dute ikusten eskualderako plan orokorrik.

GOIENA > BERGARA

Ia hiru urte pasa dira 2003ko udal hauteskundeak egin zirenetik, eta Debagoieneko herri plataformek momentu hau aukeratu dute orain arteko ibilbidearen balantzea egiteko eta datozen urteetarako lan ildoak zehazteko.

**“APARTHEID” EGOERA SALATU**

Hala, Bergaran martitzenean egin zuten prentsaurrekoan, "apartheid egoera gainditzea ezinbestekoa" dela esan zuten. Egoera horrek balio ezkertiarreko ongizate gizartea sortzen galarazi diela esan zuten. Ezker abertzaleko ordezkarien hitzetan, ondorioak nabarmenak izan dira. "Uraren eta gasaren tasak neurri gabe igo dira eta argi ikusten da gure eskualdeko udalek pribatizaziorako hartu duten joera, Oñatiko hiltegiaren kasuan gertatu den bezala", zehaztu zuten herri plataformetako kideek.

**MANKOMUNITATEA GELDI**

Bide beretik, Mankomunitatea bera ere geldi dagoela salatu zuten prentsaurrekoan. Tranbia, Olandixoko eta Epeleko tunelak eta beste proiektu batzuk egon badaudela, baina kanpoko erakundeetatik datozela esan zuten. "Ez da ikusten plan orokor eta parte-hartzailerik bertako udalek edo Mankomunitateak egindakorik", gaineratu zuten.

**2007KO HAUTESKUNDEEI BEGIRA**

Ibarreko herri plataformetako kideek adierazi zuten bezala, "inork ez du ezer egin apartheid egoera gainditzeko", eta udaletan zein Mankomunitatean bizi duten egoera salatu zuten. Egungo momentu politikoa ezin dela galtzen utzi ere esan zuten.

Herri plataformak hasi dira barne hausnarketak egiten eta 2007ko hauteskundeei begira martxan jarriko duten estrategia zehazten.

## Manifestatzeko dei egin dute 18/98 plataformako lagunek

18/98 sumarioan ikusten dituzten injustizia guztiak salatzeko eta auzipetuei babesa eta laguntza emateko, manifestatzeko deia egin dute Debagoieneko 18/98 plataformako lagunek. Manifestazioa Bilbon izango da otsailaren 18an. Hala ere, domekarako, hilaren 12rako, kale agerraldia deitu dute Bergarako epaitegiaren aurrean. 13:00etan egingo dute. Gastu ekonomikoak ordaintzeko bonu-laguntzak salduko dituzte. Plataformako kideek epaiketa etetea eskatu dute.




OIHANA ELORTZA

GERRAKO AGIRIAK

## Oñati eta Bergarako agiriak bueltan

O.E. > BERGARA

Espainiako Kultura ministroak, Carmen Calvok, esan du euskaldunei Salamancako artxibategian dauden dokumentu guztiak itzuliko dizkietela, haien jabetza frogatuz gero. Dokumentu horien artean daude Oñatiko eta Bergarako bi dokumentu historiko: Oñatiko Udalak Errepublikako Zentro Federalari bidalitako eskutitzak 1931 eta 1936 urte bitartean eta 1936an Bergaran egindako ekitaldi batekin bat egin zuten Gipuzkoako udalen agiria.

**EUDELEN ESKARIA**

Eudelek Salamancako artxibategian isilpean egin zuen ikerketa baten ikusi zuen Euskadiko hainbat herritako agiri historikoak zeudela han gordeta. Paper horietan agertzen ziren udalei Eudelek baimena eskatu zien agiriak berreskuratzeko gestio lanak Eudelek berak egiteko. Oñati eta Bergarako udalek 2002an onartu zuten, osoko bilkuran, lan hori Eudeli esleitzea.

50 EURO
IRABAZI
NAHI????

WWW.SEGAPOTO.COM

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

**HEDABIDEAK** > GOIENKARIA BERRITUAREN AURKEZPEN EKITALDIA

# Luze iraun eta erronka berriei eusteko eskatu diote GOIENKARIA berrituari

Okasio berezietako trajea jantzita egin zuen GOIENKARIA berrituak aurkezpena lagunen artean joan zen egubakoitzean Bergaran


Estepan Plazaola (Goiena).


Inazio Arregi (Goiena).


Fernando Tapia (Foru Aldundia).

**GOIENKARIA** > BERGARA

Miguel Altuna ikastetxean elkartu ziren ibarreko udaletako ordezkariak, bertako zein kanpoko hainbat arlotako jendea, Foru Aldundikoak eta Jaurlaritzakoak… Ehunetik gora lagun.

Solaserako astia izan zuten batutakoek, GOIENKARIA berriaz jarduteko, baina batez ere arretaz jarraitu zituzten hizketaldiak eta ikus-entzunezko dotorea. Berba egin zuten Goienako Estepan Plazaolak eta Inazio Arregik, Foru Aldundiko Fernando Tapiak eta Jaurlaritzako Patxi Baztarrikak. Estepan Plazaola Goienako presidenteak gogora ekarri zuen GOIENKARIAk eta hauen aurretik sortutako herri aldizkariek egindako bide luze eta oparoa, eta nabarmendu zuen GOIENKARIA nagusi dela, irakurle kopuruari dagokionez, gure eskualdean. Baina, era berean, adierazi zuen ez dela komeni "bertan goxo egitea", eta etorkizunari aurre hartu behar zaiola, aldizkariaren maiztasuna areagotuz eta "belaunaldi gazteak euskal prentsara erakarriz".

**HAUSNARKETA SAKONA**

Hizlari guztiak bat etorri ziren aipatzerakoan beharrezkoa dela euskarazko hedabideen sektorean hausnarketa sakona egitea eta estrategia egoki eta bateratuak abiatzea. Inazio Arregik, Goienako zuzendari nagusiak, esan zuen egin beharra dagoela plan estrategikoa sektorearena, "indartsuagoa eta autonomoa izan dadin", eta gaineratu zuen "autofinantzatua izatea lortzen dugunean, esango dugu euskara ez dela desagertuko". Eskerrak eman zizkien ibarreko zein ibarraz gaindiko erakunde publikoei, baina eskatu zien azken horiei, dirulaguntzak banatzerakoan "bakoitzari behar duen botika eman" behar zaiola. "Horregatik", nabarmendu zuen, "beharrezkoa da beste ikuspuntu bat erabiltzea laguntzak banatzerakoan: hedabideen eragina, zabalkundea, ikusle maila…".

**GOIENA EREDU**

Fernando Tapiak, Gizarte eta Erakunde Harremanetako diputatuak, esan zuen sektoreak berrantolamendua behar duela; "azterketa, hausnarketa eta ikerketa beharrezkoak dira, komuneko oinarriak bilatu eta adostasun minimoak lortzeko", eta, hain zuzen, Goiena ipini zuen eredu: "GOIENKARIA ez da itxuraldaketa hutsaren eguneratzea".

Azkenik, Patxi Baztarrikak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, laudorioak eskaini zizkion Goienari eta GOIENKARIAri: "Goiena landare sendo eta fruitu eta kimu askotakoa da", esan zuen. Azpimarratu zuen euskarazko hedabideen esparruan "izugarri aurreratu dela, bai kopuruan eta baita kalitatean ere", baina hark ere hausnarketa sakonaren beharra azpimarratu zuen: "Konpromisoa hartuta daukagu euskarazko hedabideen etorkizunaren gaineko gogoeta egiteko sektorearekin konpartituta".

**"Eskatzen diot GOIENKARIAri ona izatea, luze bizi izatea eta etorkizuneko erronkei erantzuteko gauza izatea"**

**"Belaunaldi gazteak euskal prentsara ekarri beharra dago, ze gazteek erdal prentsa kontsumitzen baitute"**

**Estepan Plazaola** > Goienako presidentea

**"Aldaketak egiteko ausardia eta gogoeta sakona behar dira, eta GOIENKARIA ordu askoren emaitza da"**

**"Plan estrategikoa behar du euskarazko hedabideen sektoreak, indartsuagoa eta autonomoa izan dadin"**

**Inazio Arregi** > Goienako zuzendari nagusia

**"Hedabideen egoera aldatzen doa, teknologia berriei esker; euskara ezin da aldaketa horietatik urrun egon"**

**"Sektoreak hausnarketa sakona egin behar du; behar ditu ordenamendu berria eta berrantolamendua"**

**Fernando Tapia** > Gipuzkoako Foru Aldundia

**"Atentzioa irakurleengan ipini behar dugu, horien moduko hedabideak egin behar ditugu"**

**"Euskarazko hedabideen etorkizunaren gaineko gogoeta egin behar dugu erakundeek eta sektoreak"**

**Patxi Baztarrika** > Eusko Jaurlaritza

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa ¥ ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

gure artekoak

**GIZADI** > Ospitalean daudenak zaintzea, psikiatrikoan dauden gaixoekin paseatzea eta etxez etxeko zerbitzua eskaintzen dituzte. Loreak eta Amaliak dena koordinatzen dute, eta 30 bat langile dituzte.

Lorea Aranburuzabala eta Amalia Zarate

# "Gure helburuetako bat da sektorea profesionalizatzea"

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

**Zazpi bat urte dira Loreak eta Amaliak Gizadi enpresa sortzeari ekin ziotela. Mankomunitateak antolatutako ikastaro bat egin ondoren, enpresa sortu zuten. Edadetuak eta gaixoak zaintzeko zerbitzua eskaintzen dute, batez ere.**



Lorea eta Amalia euren bulegoan, Saiolanen. A.I.

**Ze zerbitzu eskaintzen dituzue Gizadin?**

Etxez etxeko zerbitzua eta ospitalean laguntzea, besteak beste. Bi arlotan eskaintzen ditugu zerbitzu horiek: batetik, udalek kontratatzen gaituzte, etxez etxeko zerbitzu publikoa eskaintzeko; bestetik, partikularrei ere ematen diegu zainketa zerbitzua.

**Prestaketa berezia beharko dute langileek, ezta?**

Bai; 30 bat langile ditugu eta horietako askok geriatriarekin lotutako ikasketak dituzte edo klinikako laguntzaileak dira. Dena dela, formazioari garrantzi handia ematen diogunez, edadetuei eman beharreko zainketen gaineko ikastaroak eskaintzen dizkiegu langile guztiei.

**Sektorea profesionalizatzen diharduzuela esan dezakegu.**

Horixe da gure helburuetako bat. Gainera, kontuan hartu behar dugu sektore hauxe dela lan baldintza eskasenak izan dituena: kontraturik gabe, segurorik gabe, soldata txikiarekin... Bada, egoera horrekin hautsi nahi dugu, eta sektorea profesionalizatu.

**Gizartean beharra ikusiko zenuten enpresa hau sortzeko.**

Hala da; jakinekoa da geroago eta edadetu gehiago dagoela gure gizartean. Familiak, gainera, geroago eta txikiagoak dira, eta, lehen ez bezala, emakumea lan esparruan sartu da. Horrek guztiak gurea bezalako enpresen beharra sortu du.

FITXA TEKNIKOA

**> HASIERAK**
Enpresa ekintzetarako zentroaren laguntzarekin hasi ziren eta gaur egun ere Saiolanen dute egoitza.

**> DEBAGOIENEAN 24 ORDUZ**
Debagoieneko herri guztietan eskaintzen dituzte zerbitzuak, egunero 24 orduz.

**> LANGILEAK**
30 bat emakume profesional arduratzen dira etxez etxe eta ospitaletan zerbitzuak eskaintzeaz.

etxeko leihotik


**Iban Arantzabal** > Goienako Telematika zuzendaria

## Politikariak fin

Hemen jardungo ei dugu etxekook, iritzi emaile. Ez orojakile (ez gara gauza gutxi batzuen jakitun baino eta horiek ere geure erara), ez orojatun (asmoa ez da letra artean irakurlea irenstea. Alderantziz, badakigu irakurleak jango gaituela berbok aldrebes josiz gero) .

Izen egokia GOIENKARIAko zuzendariak jarri diona etxeko txoko argi honi. Ez da makala esaka jardutea Europan hain prestigio altua duen diseinatzailearen leihotik.

Eta etxeko leihotik zer? Ba leku pribilegiatu honetatik gustura entzun ditut hitz egin duten politikarien berbak. Fernando Tapiarekin (EA) ados. Goienaren bidea positibotzat jo eta gero gaineratu zuen: "Hedabideen sektoreak berrantolamendu eta ordenamendu sakona behar du. Jardute hutsarekin iraunarazi ezin da egin. Goienarena ez da itxura hutsa, hausnarketaren emaitza da".

**"Gogoz eta ilusioz jardungo duten politikari gehiago behar ditugu"**

Eta Patxi Baztarrikaren (EAJ) diskurtsoa osorik sinatzeko modukoa. Baztarrika diskurtso landu eta zentzudunarekin etorri zen, esaten zuena sinistuta, lanerako gogoz dagoela ikusi nuen, eta hori eskertuko du euskarak. Politikari bati egotea eskatzen zaion mailan egon zen Baztarrika GOIENKARIA berrituaren aurkezpenean. Politikari asko behar ditugu gogo horrekin.

**> Baztarrikak** zera esan zuen Goienaren gainean: **"Eredugarri da; erdaretan ere ez dago horrelakorik. Berrikuntzei aurre hartu die. Urratsik handiena ekoizpen bakarretik multimediara pasatzea izan da"**

**> Debagoienaren** gainean ere esan zituen: **"Debagoiena esatea eta dinamismoa, ekimena, ilusioa esatea bat da. Merkatua eta irakurleak irabazi behar ditugu eta erakundeak ondoan egongo dira"**

begi-bistan



**Santa Ageda eskean Gesalibarren (Arrasate) 2006/02/04**

**Argazkia:** Jose Felix Diaz de Tuesta.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Ibarreko herri guztietan makina bat talde ibili zen Santa Ageda eskean aurreko zapatuan. Arrasaten ere herritar ugari ibili ziren. Argazkian, Gesalibar auzoan ibili zirenak.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

izen propioak



**Beatriz Artzamendi**
MUSIKARIA

RNE-Radio Clasicak Beatriz Artzamendi arrasatearraren obra bat eskaini zuen aurreko astean. RTVEko orkestraren ganbara zikloaren barruan eskainitako kontzertuan. Juanito Artzamendi Arrasateko musikari ezagunaren alaba da Beatriz.



**Ruper Ordorika**
ABESLARIA

Bernardo Atxaga idazlearekin batera izan da La Habanako (Kuba) Liburu Azokan Ordorika. *Obabakoak* liburua aurkezten egon dira biak, Kubako argitaletxe batek eman du-eta argitara eleberria. Ruperrek musika jarri dio Atxagaren aurkezpenari.



**Ander Rodriguez**
EZKER BATUA

Ezker Batua-Berdeak alderdiko presidentziako kide izendatu dute Ander Rodriguez. 15 kide dira presidentzian; hura da gazteena eta debagoiendar bakarra. Horrela, Ezker Batuaren gidaritzan jardungo du aurrerantzean. Arrasateko zinegotzia da Ander.

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Aranburuzabala 56
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

**ZUTARRI SL**
Arrasate
Zerkaosteta 17, behea
T: 943 79 67 78 / Faxa.: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

## ESKAIOLISTAK

**EMILIO ESKAIOLAK**
Aretxabaleta
• Eskaiolazko eta pladurrezko sabaien dekorazioa
• Sabai desmuntagarriak
Bedarretako San Migel auzunea 14, behea D
T: 943 79 60 65 / 675 70 25 12

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**JOVI**
Arrasate
• 10.000 koloreko menua
Ferrerias 36, behea
T: 943 79 12 87

**L. GONZALEZ PINTURAK**
Aretxabaleta
• Pintura orokorra
• Pintura papereztatua
Basabe poligonoa F-6
T: 686 113 581

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

GOIENKARIA berrituaren aurkezpenean egon zen Patxi Baztarrika Bergaran, otsailaren 3an. Hasierako 'Arrasate Press' ere ezagutu zuen, eta harrezkero izan du GOIENKARIAren berri. Euskara, adin eta erabilpen askotarako hizkuntza izatea lortu behar dela dio, horixe dela erronka. Horretarako, lan ildo nagusiak zehaztu ditu, tartean euskara hedabideetan.

**Patxi Baztarrika** > Hizkuntza Politikarako sailburuordea

# "Normala da euskararen erabilera ez igotzea ezagutzaren neurri berean"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

**Hizkuntza politikaren lan ildo nagusiak zeintzuk diren galdetu diogunean, labur erantzuteko galdera zailegia dela esan digu Patxi Baztarrikak. Hala ere, saiatu da eta "aurrez aurreko erronka, erabilera" dela esan digu, "dudarik gabe".**



ARGAZKI PRESS

**Zer egin behar dugu euskararen erabileran aurrera egiteko?**

Hizkuntza kontuak ezin dira gauetik goizera aldatu, prozesu sozialak direlako. Komeni da perspektiban begiratzea, eta, hori eginez gero, ikusten da aurrerapen nabarmena eman dugula, bai ezagutzari, bai erabilerari begira. Duela 20 urte, %20 ziren elebidunak, eta gaur egun herena baino gehiago gara EAEn. Igoera hori maila antzerakoan gertatu da hiru lurraldeetan. Beste adibide bat: hizkuntza ez unibertsitarioko irakasleen %70 EGA eta maila bereko agiriaren jabe dira.

**Eta datozen urteei begira?**

Hazten joateko perspektibak oso egokiak dira. Momentu honetan, selektibitatea egiten duten ikasleen erdiak euskara aukeratzen du azterketa egiteko. Horrek esan gura du hemendik 15-20 urteko euskal gizartearen gidariak elebidunak izango direla. Onera egiteko bidean gaude, baina indar berberaz esan behar da iraganak ez duela etorkizuna bermatzen eta etorkizuna oparoa izan gura badugu euskararendako, orain asmatu behar dugula lanak ondo egiten.

**Zein da lanak ondo egiteko bidea?**

Legealdi honetan lehentasuna eman gura diogu arlo sozioekonomikoari; orain arte ere gauza asko egin da lan munduan euskara sartzeko, baina gogo eta sistematizazio handiagoa behar da. Enpresa bakoitzarendako erabilera ereduak prestatzen ari gara, batetik, eta horretarako dirulaguntzak erruz gehituko dira, bestetik. Horrez gain, lan munduko agenteen arteko adostasuna eta inplikazioa lortzeko lanean ari gara dagoeneko, bai sindikatuekin, bai enpresetako elkarteekin.

Administrazioan ere, zerbitzu hizkuntza ez ezik, euskara lan hizkuntza izatera iritsi gura dugu. Euskararen presentzia areagotzea informazio eta teknologia berrietan da beste lan ildo bat, euskaraz jarduteko lanabesak sortuz eta produktu erakargarriak eginez euskarak Interneten gero eta presentzia handiagoa izan dezan. Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea egungo premia berrietara egokitzea ere beste zereginetako bat da.

**Joan den urtean baino diru gehiago bideratu da aurtengo aurrekontuetan hizkuntza politikara; baina nahikoa da hori guztia egiteko?**

Nik baietz uste dut. Hala ere, aurrekontuetan bideratzen den baino diru gehiago jasotzen dugu euskararendako. Kontuan izan behar da beste departamentu batzuetatik ere jasotzen dugula euskararen alde lan egiteko: hezkuntzatik, Osakidetzatik eta industriatik, besteak beste.

**Zein funtzio izango du eskubideak babesteko martxan jarri gura duzuen zerbitzu horrek?**

Ez dugu inori kolorerik atera gura. Batetik, urraketa non eta zertan ematen den detektatu gura dugu zuzenean, herritar horiei babesa eman gura diegu, eta baita laguntza eta aholkularitza ere.

KONTZIENTZIA

**"Egia da hizkuntza kontzientzia areagotzeko premia dugula"**

TOKIKO TELEBISTAK

**"Tokiko telebista digital bakarrak ere ez du gaztelania hutsean emitituko"**

AURREKONTUA

**"Nahikoa dela uste dut, euskarak beste departamenduetatik ere jasotzen duelako dirua"**

**Gero eta elebidun gehiago bagaude eta euskararen alde gero eta gehiago egiten bada, zergatik ez dugu euskaraz hitz egiten dendan, kiroldegian edo tren geltokian? Badugu kontzientziarik euskararekiko?**

Hizkuntza kontzientzia areagotzeko premia badugu, baina ohiturak eta inertziak aldatzeko ere denbora behar da, eta horretan saiatu behar dugu guztiok. Gainera, zientifikoki demostratuta dago erabilerak bi gauza eskatzen dituela: behar besteko euskara dentsitatea eta euskaraz jarduteko trebetasuna eta gaitasuna. Hau da, batetik, esparrua zenbat eta naturalagoa izan, orduan eta dentsitate handiagoa behar da. Bestetik, momentu honetan, 25 urtez azpiko elebidunen lehen hizkuntza gaztelania da, euskara eskolan ikasi dutelako. Normala da euskaran ezagutzan gora egin dugu neurrian erabileran ez egitea. Baina erabileran ere aurrera goaz.

**Gu baino aurreratuago daude katalanak?**

Han hizkuntza kontzientzia sendoagoa da, handiagoa. Bestalde, ez dute zerikusirik katalana ikasteko edo euskara ikasteko behar diren ordu kopuruek. Han biztanleriaren %90ek dakite katalanez; hemen, herenak dakigu euskaraz.

**Euskara bermatuko da tokiko telebista digitaletan? Zenbateraino?**

Ez lege zirriborroak ez dekretuak ez dizkio ateak ixten euskara hutsezko telebistari. Ez da izango tokiko telebista digital bakarra ere gaztelaniaz bakarrik emitituko duenik. Tokiko telebista digitalek euskaraz emititu beharko dute barrutiko, gutxienez, euskaldun kopuruaren batez bestekoa.



zabalik

Jabier Arantzeta

# Jaungoikoa dela eta ez dela

Jaungoikoa berba irakurrita gehienok pentsatuko duzue Erroman errekadista nagusia daukan Jaungoiko horretaz jardungo dudala; izan ere, holakoetan sinisten duzuen guztiok garbi daukazue zeuena dela bakarra; baina ez, gaurkoan goiko beste Jaun (hau ere maiuskulaz jarri beharko dut inor ez haserretzeko) bat izango da nire atentzioa jasoko duena.

Gauza jakina da mairuen artean zeharo debekatuta dagoela Jaungoikoaren moduko gauza sakratua irudietan jartzerik, ez marraztuz ezta eskulturak eginez ere; horren ondorioz ez daukate kultura kristauan daukagun arte eta santu aberastasun izugarririk, ez erdi larru gorriko San Sebastianik, edo txakurdun San Rokerik, ezta osoosoko begirada mistikodun Amabirjinarik ere. Euren meskitak apaintzeko irudi geometrikoak eta loreak besterik ez dute erabiltzen.

**"Hor agertu zaie daniar txatxu bat Mahomaren karikaturak eginez eta piztu da sua"**

**"Beste mila haserre eta adar-jotzeren gainera etorri zaie haserre hori"**

Eta gauzak horrela, hor agertu zaie daniar txatxu bat Mahomaren karikaturak eginez eta piztu da sua. Haserretu dira mairuok eta, eman die su enbaxada eta antzerakoei.

Bada, ez, barkatu baina ez, nire moduko fedebako batek ez du sinisten Beirut sutan jarri duten horiek fedearekiko haserreagatik egin dutenik holakorik. Haserre hori ere izango zuten, ez daukat zalantzarik, baina beste mila haserre eta adar-jotzeren gainera etorri zaie haserre hori. Urtetan eta urtetan agoantatu behar izan dute Mendebaldetik joandakook euren aberastasunen jabe egitea, demokrazia zer den eta zer ez den geuk erabakitzea, eta horren ondorioz agintariak ere geuk ipini edo kentzea. Azkenerako berotu dira eta hasi dira egin behar ez direnak egiten, baina alferrik, beroaldiaren ostean laguntzatxoren bat gehiago izango dute, baina lapurretan jarraituko dugu mendebaldarrok, horixe baita gure merkatuaren agindua.

herritarrak galdezka

HAUR JAIOBERRIAK

**Haurdun egon eta umearendako izena pentsatzen diharduen irakurle batek honako galdera egin digu: zein bide jarraitu behar da jakiteko jaioberriendako euskal izena epaitegian onartuko duten ala ez?**

Bergarako erregistro zibilean esan digute Euskaltzaindiaren izendegia hartzen dutela aintzat izena onartu ala ez erabakitzeko. Euskaltzaindiak izendegia egiteko erabilera eta hizkuntzari dagokion zuzentasunaren arteko oreka hartzen ditu kontuan. Hala ere, Euskaltzaindiak dio zailtasun ugari izan dituztela izendegia osatzeko, "euskarak urtetan ponte-izenak gizarteratzeko historia nahasia izan duelako".

Bestalde zera dio: "Erabiltzaile maiztasuna irizpide baliagarri izan daiteke, azken urteotan zabaldu diren izen berriak izendegian sartzeko edo saihesteko orduan".

Euskaltzaindiaren esanetan, "euskal izentzat har daitezke euskaraz sortutako ponte-izenak, pertsona-izen bilakatu diren toponimoak, eta kanpotik sartuak izanagatik euskal gizartean errotu direnak".

Euskaltzaindiaren gomendioz ez dira ponte-izentzat hartzen "familia edo lagun artean soilik erabiltzen diren txikigarriak, ezta egungo euskal idazkera arautuan ematen ez direnak. Gauza bera gertatzen da pertsonaren duintasunaren kontra doazen izenekin".

Erregistratzera joan aurretik, beraz, gurasoek haurraren tzat aukeratu duten izenaren informazioa jaso behar lukete. Horretarako, besteak beste, Euskaltzaindiaren izendegia kontsulta daiteke *www.euskaltzaindia.net* helbidean.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 01
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

BERGARAKO IGERILEKUAK

**Aurtengo udarako zabalduko dituzte Bergarako igerilekuak?**

Bergarako Kirol Saileko zinegotzi Valentin Egidazuk esan digunez, irailean zabalduko dituzte igerilekuak; hain justu ere, San Martin egunean, irailaren 16an. Jakinarazi digu egun horretan zabalduko dutela hamar kale dituen igerilekua eta txikiendako igerilekua, biak barrukoak. Halaber, gaineratu digu etorkizunari begira asmoa dela kanpoan beste igerileku bat eraikitzea, dibertimendurako; baina hori egiteko dirua behar dutela. Hala, kanpoko igerilekua egin bitartean, harendako gordetako lekuan berdegunea zabalduko dute, hori ere irailean.

Bestalde, Egidazuk kontatu digu asmoa dutela, baita ere, 2007rako bainuetxe bat zabaltzeko, barruko igerilekuen ondoan. Bainuetxeak izango ditu aquagym, jacuzi bat, bi sauna (sikua eta umela) eta gela handi bat.

marrazkiz

Unai Busturia



## La amatxu y el aitá

**Julen Gabiria**
www.eibar.org/blogak/gabiria

Batzuetan iruditzen zait euskaldunok, euskaldun zintzook, lau guraso ditugula, eta itolarria jasanezina da. Izan ere, gure ohiko bi gurasoez aparte, azken bi gurasoak konturatu gabe sartu dira gure bizitzan, ezarian-ezarian eta isil-isilka.

Denon ama paraleloa, zelan ez, la amatxu da, la amatxu de Begoña. Pijada hori entzuten dudan bakoitzean, gogoa sartzen zait txiza parraztadaka botatzeko Begoñako basilikako atean. "La amatxu de Begoña" hitzak ezin ditut jasan, nazkatu egiten nau derrigorrez Begoñako egurpusketa horren seme sentitu beharrak, egur-pusketa hori hainbeste maite beharrak. Goragalea ematen didate hitz horiek harro-harro esaten dituzten bilbainoek, bilbotar petoak izateko zer gehiago egin dezaketen ez dakiten horiek, bilbotarrek nahi duten lekuan jaiotzen direla esango dizuten horiek.

Denon aita paraleloa, berriz, el aitá da, Euskal Herriko "el aitá" bakarra, denon "el aitá": entzuten dudan bakoitzean Luis Chillida hitz horiek esaten, gogoa ematen dit "el aitá"-ren eskultura bat grafitiz pintatzeko, hori ere artea izango baita, noski (mendi bat barrutik hustea bezain beste).

Gauza jakina den moduan biktimei izen-abizenak jartzean biktima horiek geure egiten ditugula, hurbileko bihurtzen ditugula eta identifikazioa askoz ere handiagoa dela, Euskal Herriko ama eta aita paraleloek ere izenak ditutze jada, eta gure bizitzan ari dira sartzen. Kontuz ibili, benetako gurasoekin nahastuko ditugu bestela.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Leire Kortabarria, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Natali Martinez, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

plazara

Batasuneko kideak balizko bake prozesu baten aukerak eta mehatxuak aztertu ditu. Mintzagai ditu Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi nagusien jokaera, bateko zein bestekoen azkenaldiko keinu sinboliko bezain itxaropentsuak... Dio Ezker Abertzaleak "zintzotasunez eta anbizioz" jokatzen dihardela, ireki berri den bidea gogorra bezain esperantzagarria dela.

**Aittor Arantzabal ***

# Borroka prozesu baten mehatxu eta aukerak

Azkenaldian sarri hitz egiten da bakea lortzeko prozesuaz. Batzuek “desarme prozesu” bat irudikatu nahi dute; bestek batzuek, marko autonomikoen “arnas berritze prozesua”; hainbatek “Espainia galbidean eta puskatzear jarri duen prozesu” baten mezua zabaltzen dute. Gatazkaren parametroak desituratzeraino.

Gaiak duen gaurkotasun informatibo frenetikoaz aparte, komeni da erro historikoak dituen gatazka politikoa konponbidean ipintzea, metodologia eta mami egokiaz hornitzea, ez baita prozesu erraza. Pedagogia etengabea behar du. Gaur, "prozesua lantzatua dago" eta bihar "prozesua kateatua dago”, momentuko depresiotik iragankorra den euforiarako jauzi horietan mareatu ez gaitzaten.

Hartara, trazu potoloetan bada ere, prozesuaz egiten dugun irakurketa marraztuko dugu, ideia batzuk sinple-sinple emanez.

PNVren jokoak kezkatzen gaitu. Imazen hitzei eta negozioei erreparatuz, betiko lepotik burua duela baieztatzera garamatza. Konpetentzia autonomikoen trafikantearena eginez milioika euroko kalkulu hotz eta bihozgabe baten eskeman kokatu baita. Hegemonia instituzionala perpetuatuz, gatazka politikoaren zauria itxi gabe eta datozen belaunaldiei zorna dariela uzteko arriskuan. Hori da PNVren erabakia, eta hori da herri honen aurrean hartzen duen erantzukizun historikoa.

PSOEk argi utzi du, bereziki Kataluniako Estatutuaren negoziazioarekin, nolakoa eta norainokoa den bere estatu erreformaren muga. Espainiatik Espainiara doan erreformaren bidea. Bere kalkulu politikoan zentraltasuna gobernatu eta denborak administratu nahi ditu: ERC kleenex gisara erabili eta CiUren karta jokatu, ezker abertzalearekin bakea eta PNVrekin AHT... Bitartean, Ezker Abertzalea judizialki eta instituzionalki egurtzen du. Ongi ezagutzen dituzte Ezker Abertzalearen ahalmen eta potentzialtasunak mapa politikoa goitik behera eraldatzeko, kalkulu eta aritmetika elektoralak hankaz gora jartzeko. Horregatik prozesuan asto makilatua bezala sartu nahi dute, ahuldadetik abia dadin.




MIKEL ARROIABE

**"Imazen hitzei eta negozioei erreparatuz, betiko lepotik burua duela baieztatzera garamatza"**

**"PSOEk argi utzi du, bereziki Kataluniako Estatutuaren negoziazioarekin, nolakoa eta norainokoa den bere estatu erreformaren muga"**

Hor ditugu ere teniente jeneralak, Marlaskadak... PPk gobernua galdu baina erregimenean bere armak gorde ditu eta erabili, erabiliko ditu etengabean. Espainiaren iritzi publikoaren oinarri kulturalean, *fatxerioa*-ren errealitate soziologikoarekin konektatuz, kalkulu elektoralean errentagarri irizten duelako.

Gatazkari konponbide adostu eta justu bat emateko prozesua borroka prozesua izanen da. Zaila, gordina eta latza, krisi eta probokazioz beterikoa. Herriaren babesa beharko da. Trintxera politikoetatik atera eta lurralde berriak esploratzeko grina. Printzipio politikoetan erro eutsiz zeruertz utopiko berriak asmatzeko adorea.

Zentzu horretan esperantzagarri eta bere txikian esanahi handiko adierazleak ikusten ditugu: hala nola, BECeko ekitaldia, bi kultura sindikal eta politikoren arteko (UGT eta LABena) lehen bilkura ofizial eta publikoaren argazkia, Europar Legebiltzarrean antolatu den sostengu taldea, Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa sinatutako 55 eragile baino gehiago... Pausoz pauso, baina arriskuen gainetik bere bidea egiten ari direnak. Eta fruitua emango dutelakoan gaude.

Ezker Abertzalea zintzotasunez eta anbizioz ari da. Esperantzari ate berriak irekiz. Bide gogor horretan, askatasunaren bidean, eutsi borrokari. Aberria eta bizi!

* Aittor Arantzabalek Batasunaren izenean idazten du

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Gustatu zaizu GOIENKARIA berritua?

| | |
|---|---|
| BAI | %90 |
| EZ | %10 |

**> OSO ONDO. ZORIONAK!**
Oso ondo dago! Uste dut asko hobetu dela. Oso produktu trinkoa eta bateratua da.
**Guridi**

**> HERRI GUZTIAK**
Gustuko dut. Batez ere herri guztiak agertzea gustatu zait. Honegatik edo hargatik denok dugu loturaren bat ondoko herriekin. Segi horrela!
**Aitor**

**> HAINBESTE ALDATU DA?**
Hainbeste aldatu da, hala? Niretako, itxura aldetik ez dago aldaketa handiegirik.
**Karmen**

**> LEHEN ETA ORAIN, ONAK!**
Asko gustatu zait. Gertukoa da, nahiz eta herriek pisu gutxiago eduki, erakargarria eta interesgarria. Polita, bai.
**Pello**

**> KONTRAZALA**
Gustatzen zait geratu den kontrazala. Oso erakargarria da.
**Arian**

**DATORREN ASTEKO GALDERA:**
**Gure aitona-amonak baino hobeto bizi gara?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

blog-top

## Agur, 'Arrasate Press'

**Joxe Aranzabal**
www.goiena.net/blogak/faroa

Joan den ostiralean, nola Goienkaria berrituan ez den joango *Arrasate Press* izeneko gehigarririk, galdetu zidaten Goiena Telebistan ea zer iritzi nuen mantxeta hori desagertzeaz, ni izan bainintzen *Arrasate Press*-eko lehen zuzendaria.

Erantzun nien ezer ez dela betiko, ez konstituzioak ez eta egunkarien mantxetak ere. Hori baino inportanteagoa dela Debagoienean badela komunikazio talde bat oso dinamikoa, eta talde hori gero eta zerbitzu hobea eskaintzen ari zaiela bere irakurleei, nahiz eta horretarako *Arrasate Press* aldi batez desagertu. Aurrerantzean Goiena izango da marka horren jabe, eta berak ikusiko du erabiliko duen berriro, noiz edo nola.

*Arrasate Press*-ek bilakaera logikoa izan du: lehendabizi aldizkaria izan zen, Arrasaten bertan banatzekoa. Gero gehigarri bihurtu zen, bailarako agerkari baten barruan. Eta orain desagertu egingo da aldi batez, debagoiendarrek astekari oso bat jasoko baitute, 56 orrialdekoa, eta hor bailarako herri guztien gaineko informazioa eskainiko da.

Beraz, agur *Arrasate Press*-i, baina ez adiorik.

## Metak-en amaiera

**Mikel Lizarralde**
www.berria.info/blogak/mikel

Azkeneko asteetan musikazaleen ahotan ibili den zurrumurrua egia triste eta mingarri bihurtu da gaur. Metak disketxeak ateak itxi ditu. Salmentek eta zenbakiek behera egin dute azkeneko urteotan, eta Irungo zigiluak ezin izan dio aurre krisiari. Krisia ekonomikoa izan baita, ez ideiei eta sormenari lotutakoa. Alde horretatik aberatsa izan da Metaken ibilbidea, eta Esan Ozenkik orain dela urte mordoxka ereindako hazi independentea irizpidez eta ausardiaz hazi du. Uste dut urte hauetan guztietan kaleratu dituen diskoak direla horren isla garbia.

(...) Egungo euskal musikak eta diskogintzak erreferentzia nagusia galdu dute.

koplak

**Oñatiko Bertso Eskola**

## Semaforoan

Obrek zenbat buruhauste,
luzapen eta ezuste.
Gure semeen, semeen semeek
bukatuko al dituzte.

Tranbiaren abantaila,
saihesbide eta maila,
gaur artekoa hobetzekotan
ez daukate horren zaila.

Agintariek ahora,
"aurrera goaz" ondo da,
aurrera joan behar da, baina,
jakin beharko da nora.

# Etxebizitza izateko eskubidea, galdutako eskubidea

**Alberto Encinas** (Zutik-en izenean)
Arrasate

Arrasaten abenduan egin zen aparteko udalbatzan hamarna botoz parekatu ziren batetik EAJ, EA eta Aralar, eta bestetik EB-Berdeak, PSOE eta PP, Zerrajera inguruan 148 etxebizitza babestu eraikitzeko La Caixarekin hitzarmena sinatzeari buruzko bozketan. Azkenean, aurrera atera zen alkatearen kalitatezko botoaren ondorioz. Eskaintza horretaz gain, beste bat ere bazegoen, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarena. Zein dira bien arteko aldeak?

La Caixarekin egingo den hitzarmenak 148 etxebizitza egitea aurreikusten du. Lehen 15 urteetan alokairu sozialekoak izango dira, baina epe hori pasatu ondoren, babes ofizialekoak bihurtuko dira eta La Caixak saldu egingo ditu. Etxebizitza horiek erosteko, gaur egun urteko sarreren gutxieneko muga 9.600 eurokoa da eta gehienezkoa 33.100 eurokoa. La Caixak, berriz, Udalari 3,055 milioi euro ordainduko dizkio, udal-lurrak erostearen truke.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren hitzarmenak ere etxebizitza kopuru bera aurreikusten du, baina beti alokairu sozial egonkorra izango dute, hau da, ez dira denbora baten ostean salduko. Gainera, erosteko ahalmen txikiagoa dutenen (gazteen, guraso bakarreko familien, etorkinen, baliabide gutxiko helduen eta abarren) eskura egongo dira etxebizitzok, sarreren mugak txikiagoak direlako: gutxieneko muga 3.000 eta gehienezkoa 21.000. Lurren erosketaren truke, ostera, Eusko Jaurlaritzak 1,2 milioi euro ordainduko lioke Udalari.

Horretaz gain, lehenagoko hitzarmen bat ere badago Eusko Jaurlaritzarekin, alokairu sozialeko 100 etxebizitza eraikitzeko. Hortaz, abenduan Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena egitea erabaki izan balitz, esandako 148 etxebizitzez gain beste 100 eraikitzea lortuko zen, eta guztira alokairu sozialeko 248 etxebizitza izango genituen epe laburrean.

Arrasateko etxebizitzaren arazoaren azterketak eta Udalak agindutako eta onetsitako Etxebizitza Politikari buruzko Udal Planak ezartzen zutenez, alokairu sozialeko etxebizitza sozialak egin gura ziren. Programa eta ekitaldi publikoetan, alderdi politiko guztiak agertu izan dira etxebizitza-politika horren alde, hau da, errenta txikidunentzat etxebizitzak eraikitzearen alde, lurzoru publikoaren erabilera pribatua gelditzearen alde, eta abar. Arrasateko beharren ikuspuntutik, eta etxebizitza-politika progresista eta sozialaren ikuspuntutik, eskaintzarik onena Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarena zen, zalantzarik gabe, eta izaten jarraitzen du. Zoritxarrez, kasu honetan, La Caixaren proposamena bultzatu duten alderdi politikoek ez dute agindutakoa bete, eta alokairu sozialeko 248 etxebizitza sozial (kopuru polita!) egiteko aukera galdu dute. Baina benetan aukera hori arrasatearrek galdu dute.

La Caixaren eskaintza defendatzeko eta onartzeko arrazoietako bat Udalak Eusko Jaurlaritzarekin baino 1,855 milioi euro gehiago eskuratuko dituela da. Argibideak argibide, indarrean dagoen Lurzoruaren Legeak horretaz dioena gogoratu beharra dago: fondo horiek ezin dira edozertarako erabili, ezin dira beste udaljarduera batzuk finantzatzeko erabili, hau da, Udalaren lurzoru-ondarean inbertitu behar dira nahitaez, legeak dioena beteko bada.

Sinestezina da, hortaz, EAJ, EA eta Aralar alderdiek Eusko Jaurlaritzaren proposamenari ezezkoa eman eta 148 etxebizitzen eraikuntza eta gestioa erakunde pribatuen eskuetan utzi izana. Argi dago interes partikularrak zaindu direla, interes publikoak eta sozialak baztertuz. Etxebizitzen gaia, konkurtso publikorik gabe, zuzenean La Caixari adjudikatuz, ez dute garbi jokatu, ez baitute legea bete.

La Caixak planteaturiko hitzarmena oso legala ez dela kontuan hartuta, espero dezagun bultzatu duten alderdi politikoek gaia hausnartzea eta bide onetik eramatea, Arrasateko herriak laster alokairu sozialeko 248 etxebizitza izan ditzan. Bestela, herriak berak sufrituko du administrazioak eskainitako aukera galdu izana. Bide batez esan dezagun administrazioak horrelako aukera gutxi ematen dituela.

# Ezker Batua, oposizioa edonola?

**Asier Mujika** > Arrasate

Zortzi urteko prozesua gure familiaren etxebizitzen kontsolidaziorako; baina azken txanpara heltzean, ezusteko batek zapuztu ditu familiaren itxaropenak; zoritxarreko ezustekoa, oposizioan gelditu berri den Arrasateko Ezker Batuak urtarrilaren 30eko plenoan egitamu orokorraren testu bateratuaren inguruan hartutako jarrera.

Zilegi da bai oposizioa egitea, baina edonola? Non gelditu dira horrenbeste aldarrikatutako herriarekiko sentsibilitatea, gertutasuna, zerbitzua? Oraingoan badirudi interes partidisten azpian ezkutaturik nonbait…

Berehala ikusi izan du Ezker Batuak —edo Ander Rodriguezek?— alkate jauna —EAJ— izorratzeko modu erraza, horrenbeste eztabaidatu eta jada neurri handian adostutako egitamu orokorraren testu bateratuaren aurka agertuz, herriko familia baten interesak zanpatuz, guda politikorako aitzakiatzat hartuz!

Zergatik ordaindu behar ditugu guk zuen "borroka partidistaren" ondorioak? Non dago zuen politika egiteko etika? Ez gabiltza mesede eske; zintzotasunez jokatzea besterik ez dugu eskatzen eta gure eskubideak errespetatuak izan daitezela.

Eta honen aurrean, zein da, Ander, zure erantzuna? Jarrera itxia, entzungorra, mendekatzailea… Karrera politikorako merituak irabazi nahian bazabiltza, behintzat, ez dut uste biderik egokiena aukeratu duzunik. Herritarrenganako beste sentikortasun eta errespetu bat erakusten ez duzun bitartean, jai daukazula esango nuke.

# Euskara eta atxiloketa

**Olatz Arana** (EHEren izenean)
Debagoiena

Pasa den astean Koldo Rodrigez euskaltzale lekeitiarra atxilotu zuten ertzainek, hizkuntz eskubideak defendatzeagatik.

Epaitegietan (Bergarakoan barne) hizkuntz eskubideak berma daitezen lanean dihardu EHEk azken urteotan. Lan ildo honetan kokatutako ekimen batean parte hartzeagatik deitu dituzte Lea Artibaiko lau lagun epailearen aurrean deklaratzera. Laurok hizkuntz eskubideak bermatuak izan ezean, Gernikako epaitegiarekin inolako harremanak izateari uko egin zioten. Hau honela, epaileak lau lagunak atxilotzeko agindua emana du. Koldorena lehena izan da, baina beste hiru lagun gehiago atxilotuak izateko arriskuan daude.

Honen guztiaren aurrean, EHEk gogor salatu nahi du justizia administrazioaren erasoa, eta bereziki kasu honetan Lakuako Justizia Sailaren jokabidea. Sail honek bere esanetara dituen poliziak euren eskubideak aldarrikatzen dituzten herritarrak atxilotzera bidaltzen ditu. Era berean, salatu nahi dugu ertzainek euskal herritarrekiko izaten duten jokabidea, bai eta gure hizkuntzarekiko ere. Ez da lehen aldia jarrera hau hartzen dutena. Bizitzako arlo guztietan euskaldun gisa agertzeko konpromisoa hartzen duten herritarren aurkako jarrera argia adierazten dute ekintza hauen bidez.

Lotsagarria da gaur egun oraindik bertako hizkuntzan bizitzea aldarrikatzeagatik jendea zigortzea. Herritarren oinarrizko eskubideak urratzeaz gain, euskararen normalizazio prozesua galgatzen ari dira gisa honetako jokabideen bitartez.

Berandu baino lehen, egoera hau konpondu beharra dago. Euskaldunok gure herrian gure hizkuntzan bizitzeko eskubidea dugu eta arduradun politikoei dagokie hau bermatzea. Ardura politikoa duten eragile guztiei erantzukizunez jokatzea exijitzen diegu. Ezin dugu onartu zapalkuntza egoera hau denboran gehiago luzatzea. EHEk, bere aldetik, euskararen normalizazioa lortu bitartean tinko jarraituko du lanean.

# Torturarik ez!

**Amaia Agirre**
(Askatasunaren izenean)
Debagoiena

Azken 26 urteotan 8 euskal herritar erailak. Salaketa judizialak, 6.000tik gora. Terrorismoaren aurkako borroka delakoan, Espainia eta Frantziako segurtasun indarrek atxilotuak torturatzen dituzte polizia-etxeetan eta espetxeetan. Bi estatuon izaera ez demokratikoaren ezaugarri gogorrena da tortura eta zuzenbide-estatu batean bizi garela dioten arren, estatu polizial batean irautetik gertuago gaudela erakusten digu.

Euskal Herrian torturen praktika ahalbidetzen, uzten eta babesten du terrorismoaren aurkako legediak. Atxilotuen inkomunikazioa lege honek baimentzen du eta tarte horretan tortura lege honen babespean ematen da. Euskal Herrian esku hartzea duen epaitegi berezia den Audientzia Nazionalak, berriz, torturapean lortutako deklarazioak tresna judizial gisa erabiltzen ditu, froga gisa oinarritzat hartuta herritarrak zigortuz. Demokrazian onartezina da norbanakoaren oinarrizko eskubideak eta berme-sistemak urratzea. Baina terrorismoaren aurrean "denak balio duenaren" teoriarekin, torturaren praktika gerra tresna bezala nagusitzen da eta egite errepresibo hauen eragile Euskal Herriko salbuespeneko tribunalak dira. Ezin zaio gatazkaren konponbide politikoari askatasunez eta demokraziaz ekin torturaren praktika legitimatzen duten tribunalok dirauten bitartean. Gatazka politikoari ezin zaio errepresioan oinarritutako konponbiderik eman.

Bihar, otsailak 11, Donostian egingo den manifestazioa torturaren oihu bihurtuko dugu. Bertan ikusiko dugu elkar!

# Ongi etorri GOIENKARIA berriari

**Luis M. Larrañaga**
Bergara

Ostiralean, GOIENKARIA nire eskuetara heldu zenean, ustekabe atsegina hartu nuen. Astero goitik behera irakurtzen duten horietakoa naiz, gustura asko irakurri ere, eta, benetan, hobetu egin da lehengoa.

*Berrigara* ez daukagu orain. Eta, zer? Herriko informazioa badaukagu; lehen baino orrialde gutxiago, bai, baina beste orri piloa jasotzen dugu eta hor ere badakar Bergarako informazioa. Gainera, beste herri batzuetakoa ere ekartzen du eta niri, behintzat, interesatzen zait hori ere. Polita da, gainera, GOIENKARIA eta gustura eta erraz irakurtzen da.

Gure hurbileko kontuak eta pertsonak agertzen diren heinean, asko interesatzen zait GOIENKARIA eta orain ere ildo berari eusten dio; hortaz, ongietorri eta zorionak, egiten duzuen guztioi.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com


ARIZMENDI Ikastolan haur zein gurasoekin proiektuak eraikitzen ditugu. Gure familia handiko kide izan gura duzu?
matrikula epea otsailaren 6tik 17ra
familia
bizi-bizia
Informa zaitez!
902 11 20 25
www. arizmendi.ikastola.net
Arizmendi ikastola



## 06-07 ikasturterako matrikula epea zabalik

*otsailaren 6tik 17ra*

# UMEZAINTZA

## Udal Haur Eskolan *(0-3 urte)*

**San Andres, 8 • 902 11 20 25**

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.

ARRASATEKO UDALA

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

Arizmendi ikastola
*geurea, zeurea*

Amagara
AG

Erdiko kale 54 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

***Eta gogoratu!***

*33 egun besterik*
*ez da falta Aste Santurako.*
*Gorputz-mesoterapia,*
*gorputz-tratamenduak, dietista*
*eta nutrizionista, eta abar*
*eskaintzen dizkizugu.*
*Deitu konpromisorik gabe eta*
*informazioa emango dizugu.*



**STOP, ZIMURREI!**

*Kirurgiaren ordezkoa*
*Zimurrak zuzentzea posible da, aurretik medikuaren kontsultatik pasatuta*

Arruabarrena doktorea.
Elkargokide-zenbakia: 6.073

- Aurpegi-mesoterapia.
- Homeopatia
- **VISTABEL**
- Aurpegi-tratamenduak
- Dermoabrasiozko tratamenduak
- AHA peeling-a

R.P.S. 297/05

# Herriak

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** >24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
**Antzuola** > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> ARRASATE**
Max sarietan EAE ordezkatuko duen 'Nasdrovia Chejov' Amaian **> 20**



**> BERGARA**
Jolasparkeak berritzeko 300.000 eurotik gora **> 24**



**> ESKORIATZA**
Juan Carlos Bengoa alkatearekin elkarrizketa **> 35**



**> ANTZUOLA**
Ibarretxe lehendakariak lau odol emaile saritu ditu **> 36**

**ARRASATE** > EKONOMIA

## Fagorrek atzera bota dezake Gamei enpresa eskuratzeko eskaintza

**NEGOZIAZIOA** Abenduan egin zuen Fagor Arrasatek Gamei eskuratzeko eskaintza

**AKZIODUN TXIKIAK** Bi akziodun txikirekin duten desadostasuna "oztopo larri" bihurtu da

**E. AZKARATE/ U.MADERA** > ARRASATE

Arrasateko Gamei lantegiaren egoera larria da azken urteotan. Hain zuzen ere, langileak kalera ez botatzearren eta enpresa iraunaraztearren, Gameiko ugazaba nagusiek Fagor Arrasate kooperatibari proposatu zioten Gamei enpresa bereganatzea. Hala, negoziazio prozesua abiarazi zuten joan den abenduan.

Hiru puntu nagusi ziren negoziatu beharrekoak: batetik, Gameik dituen 55 langileetatik, 32 bakarrik hartu ahal ditu Fagorrek; ondorioz, gainerakoendako aurre-erretiroa edo borondatezko bajak eskaini dituzte.

Bestetik, Fagorrek ez ditu bereganatu nahi Gameiren zor guztiak; hala, Fagorren proposamena da hornitzaile bakoitzari zorren %40-%50 ordaintzea.

Eta, hirugarrenik, Gamei bereganatuz gero, Fagorrek gura du akzioen %100en jabetza eskuratu; hau da, ez dute nahi "gutxi aportatuko duten gutxiengo akziodunik izan".

**AKZIODUN TXIKIAK ARAZO**

GOIENKARIAk jakin izan duenez, lehen bi puntuetan lortu egin dute adostasuna bi aldeek. Ez, ordea, hirugarren puntuan. Jakinarazi digutenez, akzioen %3na duten bi lagunek ez dute hori saldu gura, eta hori Fagorrek "oztopo nahiko larritzat" ikusten du. Zera ere gaineratu du Fagor Arrasatek: "Bitartean denbora aurrera doa eta pasatzen den hilabete bakoitzak Gameiren balantze ekonomikoa okertzen du, eta egoerak ezin du aste gutxi batzuk besterik iraun. Beraz, datozen bizpahiru asteetan jabetzaren gaia ez bada era egokian konpontzen, Fagor Arrasatek bere eskaintza erretiratu egingo du".




Gamei lantegia. X.U.

**ENPRESA INDARTSUA**

1942an sortu zuten Gamei enpresa, Arrasaten. Gonzalez, Mendizabal eta Etxeberria familien artean daude banatuta akzioak. Makina-erreminta sektorekoa da. Horren barruan, batik bat prentsak fabrikatzen ditu.

**AZKEN URTEOTAN KRISIAN**

Urtetan enpresa ezagun eta indartsuenetakoa izandakoa da Gamei Arrasaten. Baina azken hiruzpalau urteotan krisialdian sartu da, batez ere italiarren konpetentziagatik eta banketxeekin dituzten zorrengatik. Gainera, azken urteotan krisi hori larritu egin zaie, eta horregatik jo dute Fagor Arrasatekoengana, makina-erremintaren sektorean Arrasateko enpresa garrantzitsuenarengana. Gameiko ugazaba nagusiek, Arrasatekoak izanda, nahiago izan dute langileen eta lantegiaren etorkizuna bermatu eta ez interes propioak, interes ekonomikoak batik bat, lehenetsi.

## Olandixoko tunelaren maketa ikusgai Monterronen, otsailaren amaierara arte

Maketa hori, eta oro har, proiektua bera aurkeztera joan ziren Arrasatera Diputazioko ordezkariak; tartean, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia. Bisita aprobetxatuz, Txabarrik jakinarazi zigun ahaleginduko zirela Epeleko edo Kaskonategiko lanak martxorako bukatzen, beti ere, eguraldiak laguntzen badu. Halaber, azaldu zuen lanon atzerapena gertatu dela eguraldiaren eraginez eta Telefonicako hari bat erretiratzeko zain izan direlako.



**AGINTARIAK** Arrasateko Udaleko alkatea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak maketari begira. XABIER URTZELAI

## zerbitzuak

### GOARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Astelehena, 13 | Zabala Peña | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Martitzena, 14 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Eguaztena, 15 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Eguena, 16 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Egubakoitza, 17 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Astelehena, 13 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 14 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 15 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 61 05 |
| Eguena, 16 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 17 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Astelehena, 13 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 14 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 15 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 16 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 17 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Astelehena, 13 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 14 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 15 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 16 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 17 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Orokorra)....943 46 46 22
DYA ( Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria....943 22 22 22
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Larrialdiak....112
Osasun etxeak
Arrasateko ospitala....943 03 53 00
Antzuola....943 76 62 23
Aramaio....945 44 53 40
Aretxabaleta....943 71 19 59
Bergara....943 03 54 00
Elgeta....943 78 90 27
Eskoriatza....943 71 44 52
Leintz Gatzaga....943 71 47 46
Oñati....943 03 54 30
Hies Ekimena....943 79 26 99
Udaltzaingoak
Antzuola....943 76 62 46
Aramaio....945 44 50 16
Arrasate....943 79 14 39
Aretxabaleta....943 71 18 63
Bergara....943 77 91 06
Eskoriatza....943 71 44 07
Leintz Gatzaga....943 71 47 46
Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

Eusko trenbideak....943 45 01 31
PESA....902 10 12 10
Taxiak
Arrasate....943 79 12 22
Aramaio....945 44 50 33
Aretxabaleta....943 77 12 64
Bergara....943 79 12 22
Eskoriatza....943 71 40 59
Oñati....943 78 03 65
Renfe....943 28 35 99

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Mendi nekazaritza elkartea....943 76 25 47
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
Arrasate....943 77 11 43
Bergara....945 76 44 42
Oñati....943 78 36 67
Kiroldegiak....
Aramaio....945 44 53 35
Arrasate....943 77 16 77
Aretxabaleta....943 71 26 28
Bergara....943 76 56 41
Elgeta....943 76 82 84
Eskoriatza....943 71 53 28
Oñati....943 71 63 75
Kultura Etxeak
Antzuola....943 76 60 65
Aramaio....945 44 53 74
Arrasate....943 77 01 05
Aretxabaleta....943 71 10 27
Bergara....943 77 91 58
Eskoriatza....943 71 46 88
Leintz Gatzaga....943 71 47 46
Oñati....943 78 03 53
Udalak
Antzuola....943 76 62 46
Aramaio....945 44 50 16
Arrasate....943 79 09 00
Aretxabaleta....943 71 18 62
Bergara....943 77 91 00
Elgeta....943 76 80 22
Eskoriatza....943 71 44 07
Leintz Gatzaga....943 71 47 46
Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L.Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20.
Geralekuak: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30.
Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Oharra:
Izartxoa duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 11**
Goiza laino gutxirekin esnatuko da, baina egunak aurrera egin ahala, lainoak gehitu egingo dira. Hori bai, tenperaturak igo egingo dira.



**Domeka, 12**
Bezperan baino eguraldi hobearekin hasiko zaigu domeka. Tenperaturak ere altuagoak izango dira. Baina apurka-apurka lainoak agertuko dira.

### EUSKAL HERRIAN

Eguraldi polit samarra izango dugu oro har asteburuan. Goizak aprobetxatzen baditugu hobe, eguna luzatu ahala, lainoak gehitu egingo direlako. Edozelan ere, ez da prezipitaziorik aurreikusten eta gainera, orain arte baino beroago egingo du.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Martitzena, 7 — **-2 ºC**

**MAXIMOA** Eguena, 2 — **16 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **0,1 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 1 | 12 ºC | 5 ºC | - l/m² |
| Eguena, 2 | 16 ºC | 1 ºC | 0,1 l/m² |
| Egubakoitza, 3 | 7 ºC | 1 ºC | - l/m² |
| Zapatua, 4 | 6 ºC | 5 ºC | - l/m² |
| Domeka, 5 | 8 ºC | 4 ºC | - l/m² |
| Astelehena, 6 | 12 ºC | 2 ºC | - l/m² |
| Martitzena, 7 | 12 ºC | -2 ºC | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA OTSAILEAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 5 | 13 | 21 | 28 |

## oharrak eta deialdiak

OÑATI
**> Drogen mendekotasunaren gaineko saioak**
Drogen mendekotasunaren gaineko saio didaktikoak emango dituzte Agipad prebentzio taldekoek hilaren 14an eta 16an, martitzena eta eguena, Elkar Heziko mediatekan, 18:30ean.

DEBAGOIENA
**> *Kantu eta Jolasak* DVDa salgai dago**
*Kantu eta Jolasak* DVDa salgai dago Debagoieneko hainbat dendatan. 12 euro da prezioa. Debagoieneko Mankomunitateak, udalek eta ikastetxeek elkarlanean egin dute DVD hori.

BERGARA
**> Batzar orokorra egingo du Orfeoiak**
Urteko batzar orokorra egingo du Orfeoiak hilaren 14an, martitzena, Zabalotegiko aretoan, 20:30ean eta 21:00etan. Besteak beste, zuzendaritza berrituko dute.

ESKORIATZA
**> Irudi digitalak zelan tratatu irakatsiko dute**
Irudi digitalen tratamenduaren gaineko ikastaroaren lehen zatia emango dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 18:00-20:00.

ARETXABALETA
**> Presoen estatus politikoaz berbaldia**
Euskal presoen estatus politikoaren gaineko berbaldia egingo du Enrike Letonak hilaren 16an, eguena, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

OÑATI
**> Gela ireki jardunaldia Txantxiku Ikastolan**
Txantxiku Ikastolan matrikula egiteko epea otsailaren 17ra arte izango da. Horretarako, jo euren bulegora, ikastolan, 08:15-12:15 edo 14:00-18:30 ordutegian. Ate irekien jardunaldia egingo dute bihar, zapatua, 11:00-13:00, 0-3 urte bitartekoen aita-amendako.

BERGARA
**> Mariaren Lagundiko ikasleen zozketa**
Mariaren Lagundiko DBHko ikasleen zozketan 1.613 zenbakia saritu dute. Zumelagan bi lagunendako afaria emango diote irabazleari. 15 eguneko epea ipini dute saria eskatzeko.

ARRASATE
**> DBHko matrikularen gaineko batzarra**
DBHko matrikula dela-eta, hilaren 14an, martitzenean, batzar informatiboa eta ate irekien eguna egingo dute Arrasate Institutuan, Musakolako eraikinean, 18:00etan.

BERGARA
**> Ume eta gaztetxoak, Gasteizera patinatzera**
Gasteizera patinatzera joango dira Txapligu eta Txiskrilabi aisialdi taldekoak otsailaren 18an, zapatuan. Izenemate epea hilaren 13ra bitartean dago zabalik, Jardunen bulegoan edo Arrizuriagako lokaletan.

BERGARA
**> Bertso afarirako sarrerak salgai daude**
Joxe Agirre eta Amets Arzallus bertsolariekin afaria egingo dute zapatuan, hilaren 18an, Artatse elkartekoek, 21:00etan. Sarrerak salgai daude Arranon, Pol-Polen eta Korta-Zaharren, 14 eurotan.

ESKORIATZA
**> Luis Ezeiza eskolan, matrikulazio epea**
Luis Ezeiza herri eskolan matrikula egiteko epea zabalik dago otsailaren 17ra bitartean.

BERGARA
**> Bazkaria egingo dute erretiratuek**
Aratusteetan, otsailaren 28an, bazkaria egingo dute San Joxepe elkarteko erretiratuek Tartufo jatetxean. Joan-etorria autobusez egingo dute. Izenematea zabalik dago.

OÑATI
**> Elkarri erakunde berritua aurkeztuko dute**
Elkarri taldea erakunde berri baten eraldatuko da martxoaren 25ean, eta horren berri emango dute hilaren 15ean, eguaztena, kultura etxean, 19:30ean.

ANTZUOLA
**> Udal Liburutegia itxita egongo da**
Udal Liburutegia itxita egongo da gaur, hilak 10, egubakoitza.

ARAMAIO
**> Bilera informatiboa San Martin eskolan**
Arrasate Institutuan matrikula egiteko batzar informatiboa izango da hilaren 13an, astelehena, San Martin eskolan, 18:00etan.

ARAMAIO
**> Bularreko eta ginekologiako minbizia goiz antzemateko aholkuak emango dituzte**
Bularreko eta ginekologiako minbiziak modu goiztiarrean zelan antzeman azalduko du Lourdes Aritzituri Donostiako Onkologia Institutuko medikuak. Hilaren 15ean, eguaztena, egingo du berbaldia kultura etxean, 17:00etan. Minbizi mota horiek kaltetutakoen elkarteak, Kattalinek, antolatu du.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

**kale inkesta**

# Oñatiko alkateak dimititu egin du. Zelan hartu duzu?



**Glori Irizar**
Etxekoandrea
Oñati

Ez nau ezustean harrapatu bere erabakiak. Seguruenik, oso zaila zen alkate lana eta bere beste lana bateratzea, familia... Lehen ere ez dut uste Udaleko lanari guztiz dedikatuta zegoenik.



**Rufino Arriaran**
Erretiratua
Oñati

Alkatea hasieratik bat atera behar da, ordezkorik gabe. Andoni Gartziak bazuen lehen ere beste lan bat, baina gazteriarekin gorabehera handiak ere izan ditu. Orain aldaketa dator.



**Doroteo Igartua**
Erretiratua
Oñati

Erabakiak ez nau harritu. Oso gizon lasaia da Andoni Gartzia, oso ona ere; baina jenio handiagoa behar da alkate izateko. Orain, kargua hartzen duenarekin konforme egongo naiz.



**Andres Arlanzon**
Erretiratua
Oñati

Alkate izatea gogorra da berez, eta arazoak ere izan ditu, gazteekin-eta. Zaila da denekin ondo konpontzea. Hasieratik ere hark ez zuen gura alkate izan, eta ika-mikak izan ditu, gainera.



**Izar Salaberri**
Etxekoandrea
Oñati

Garaia guneko beste lana zuela bagenekien, eta larri zebilela alkate izateko aldi berean, horregatik ez da ezustea izan. Alkate berriari eskatuko nioke dedikazio osoa, Oñatik behar du-eta.

**txaloak eta txistuak**




AINTZANE IRIZAR

## Matz-Errekari ISO 14100 saria eman diote

Fabrikako lana ingurumena ahalik eta ondoen errespetatuz egiteko ahaleginarengatik saritu egin dute Antzuolako Matz-Erreka kooperatiba. Bi urtean ibili dira Matz-Errekan egokitzapen lanak egiten ISO mota hori eskuratzeko; inbertsio garrantzitsuak ere egin dituzte.

**bertako berbak**

**Juan Martin Elexpuru**

## "Zurrumillo"

- Kontuz ibili, Bolintxoko presapian zurrumilluak dare eta.



**Marrazkia** > Jon Iraegi

**Asteko datua**

# 850

Mila berogailu egingo dituela aurreikusi du Bergarako Geyser-Gastech enpresak 2008ra bitartean. Aurten hasiko dira lan hori egiten. 2005ean, berriz, 749.000 berogailu egin zituen eta 5,6 milioi euroko inbertsioa egin zuen.

**usteak uste**

**Ubane Madera**

## Hautsa, lokatza eta kutsadura

Azken urteotan udal guztiak dabiltza burubelarri Agenda 21 egitasmoa gure herrietan aplikatu nahian. Hau da, ingurumena zaindu behar dela-eta neurriak bideratu eta bideratu dabiltza. Bale.

Herritarroi ere eskatzen digute kontzientziatzea eta guri dagozkigun neurriak hartzea. Ondo.

Hori bai, gure ibarrean automobilarekin buelta bat emanez gero, edo Arrasaten, esaterako, automobila erdigune inguruan aparkatuta izanez gero, akabo. Hori da hautsa eta lokatza! Automobila, jatorrizko kolorea galdu, eta gris edo marroi bilakatzen da.

Hori horrela, zer ez dugu arnastuko herritarrok!

Arrasaten egindako azterketa batek erakutsi zuen aspaldi gure inguruan hauts partikulek eragindako kutsadura dezente altua zela. Jakina, hori ez da batere egokia gizakiondako, partikula horiek biriketara sartzen dira-eta.

Hala, obrek eragiten duten kutsadura mota hori saihesteko neurrietako bat da obrak egiten dituztenean, pilatuta geratzen diren hondakinak-eta estaltzea. Hori, guk dakigunez. Seguru neurri gehiago ere izango direla. Zergatik ez bete bada? Hori ere ingurumena zaintzea izango da ba...

**5 galdera...**

## Jose Riviere

Erretiratua
Arrasate

**1. Garraio publikoarekin arazoak dituzue erretiratuek; zer eskatzen duzue?**
Bi eskaera ditugu: Debagoieneko txartelaren prezioa parekatzea Donostialdeko erretiratuek ordaintzen dutenarekin; eta zerbitzuak hobetzea, bereziki Leintz Gatzagarakoa (horrekin bazuten zerbait egiteko asmoa), Antzuolarakoa, Donostiarakoa eta Bilborakoa (azken hori egin daiteke autobusa eta trena konbinatuta).

**2. Eta orain arte zelan erantzun du Gipuzkoako Diputazioak?**
Abenduaren 2an batzarra egin genuen Abaroan (Arrasateko erretiratuen elkartean). Gipuzkoako Garraio arduraduna, Pesako kudeatzailea, Vasco-Navarroko ordezkariak eta ni neu izan ginen, besteak beste. Garraio arduradunak Txartel Bakarraren gainean berba egin zigun.

**3. Ibarreko erretiratuen emango diozue erantzunen bat Diputazioari?**
Momentuz ez dugu ezer pentsatuta. Baina Gipuzkoako Garraio arduradunari esan diogu hemen Txartel Bakarra ezarri arte (euren esanetan zortzi hilabete edo urtebete barru izan daiteke) hobetu egin behar dutela zerbitzua eta jaitsi egin behar dutela txartelaren prezioa. Kopurua zehazteko dago. Hark esan zigun bere sailak ez duela diru nahikoa Debagoieneko erretiratuek ordaintzen dutena Donostialdekoek ordaintzen dutenarekin parekatzeko. Gauzak horrela, neu konformatuko nintzateke beherapena egingo baligute.

**4. Bestela, Txartel Bakarra konponbide egokia iruditzen zaizue?**
Gipuzkoa osorako izango denez, Debagoieneko erretiratuek bestelako eskualdeetako erretiratuen moduan ordainduko dugu, ibilbidearen arabera, jakina.

**5. Etorkizuneko tranbiari begiratuta, egin duzue eskaerarik?**
Ez. Momentuz, tranbia berba bat besterik ez da. Hala, zertarako hasiko gara ezer eskatzen?



**AZPIEGITURAK** > GELTOKI NAGUSIA

# Ibarrerako geltoki nagusia eraikitzeko proiektua aztergai

Debagoieneko Mankomunitateak egindako txostenaren arabera, Arrasateko Arruena parkea da lekurik egokiena (Eroskiren ondoan)

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Ibarreko udaletan aztertzen dabiltza Arruena parkea lekurik egokiena den edo ez Debagoieneko geltoki nagusia ipintzeko. Hain zuzen, orain, proposamen horren gaineko ekarpenak eta iritziak aurkeztu behar dizkiote Mankomunitateari; eta horien arabera hartuko du hark erabakia.

Arrasateko Udalaren kasuan, Arruena leku egokia dela uste du, baina zenbait proposamen egin ditu; esaterako, Eroski parean dagoen biribilgunea berraztertu egin beharko dutela edo Arruenan dagoen berdegunea ahalik eta gutxien ukitzea komeni dela.

**GUTXIENEKO ZERBITZUEKIN**

Egin nahi duten geltoki horren gainean, berriz, oraindik zehaztu barik dute zelakoa izango den. Baina zehaztu dituzte izango dituen gutxieneko zerbitzuak: autobusendako sei geraleku; 3-5 taxirendako geralekuak; aparkalekuak (50 baino gutxiago ez) eta zerbitzuen eraikin bat. Eraikin horretan egongo dira itxarongela, edari eta janari makinendako lekua; komunak, kontsigna eta txartelak hartzeko makinak, besteak beste.

**ZERBITZU GEHIAGOREKIN**

Horrez gainera, aurreikusi dute geltokiaren erabileraren arabera handitu ahal izango direla hango zerbitzuak. Esaterako, kafetegi bat ipintzea posible izango da, txartelak emateko bulego bat (autobus konpainien beharren arabera) ibarreko turismo bulego bat, bizikletak alokatzeko eta gordetzeko zerbitzua eta tranbiaren garajea.

**GERALEKUAREN HELBURUA**

Geraleku nagusi horren helburua da Debagoienaren eta eskualdetik kanpoko lekuen arteko konexioa bideratzea autobusen bitartez. Eskualde barruko konexioa, berriz, tranbiaren bitartez bideratuko da.

Era berean, etorkizunari begira asmoa da berregituratzea Debagoiena eta kanpoko eskualdeak lotzen dituen zerbitzuak.

## Olatxo berria: alde zaharraren itxurarekin bat datorren etxea

Argazkiko irudia izango du Olatxo etxearen lekua hartu duen eraikin berriak. Maalako Errabala SL enpresa dabil eraikitzen. Enpresako Emilio Arrizabalagak esan digunez, 2007ko otsaila eta martxoa bitartean bukatuko dute. Ikusten den moduan, antzinako jauregien itxura eman diote. "Udaleko arkitektoak nahi zuen zerbait itxurazkoa egin, alde zaharrarekin ondo geratuko den zerbait". Eta badirudi ondo baino hobeto geratuko dela; dagoeneko badu atzerago dagoen Maixor etxearen antza. Olatxo berria 18 metro garai izango da eta 20 etxebizitza izango ditu; horietako bi, duplexak.



ARRASATEKO UDALA

**POLITIKA**

## Aralar haserre entzundako irainekin

**U.M.** > ARRASATE

Aralarri "negargarria" iruditzen zaio Ezker Batuak egunotan Aralarrekiko erakutsi duen jarrera. Hala adierazi zuten eguaztenean, prentsaurrekoan. Aralarrek nabarmendu zuen orain arte elkarlana izan dela Udalean Aralarren eta EBren artean, baina "Zerrajerako guneari dagokionez ez dugu ikuspuntu bera, eta ondorioz EBrendako lagun izatetik etsai nagusi izatera pasa da Aralar".

Gaineratutakoaren arabera, Aralarrek nahi duen gauza bakarra da etxebizitzen arazoari irtenbidea topatzea: "Aralarri berdin dio lehenengo harria Madrazok edo beste norbaitek ipintzen duen, erronkak izan behar du arazoari irtenbidea ematea, eta azkar". Halaber, udal alderdiei ere dei egin die: "Hedabideetako polemikak utzi eta gure desadostasunak Udalean konpontzeko dei egin nahi diegu gainontzeko alderdiei".

> UDALA

### Udal zerbitzuen erabileraren gaineko datuak eman dituzte

Obra, Zerbitzu eta Mantentze Sailekoek eman dituzte jakitera udal zerbitzuen funtzionamenduaren gaineko 2005eko datuak: garbitasunaren, hilerriaren eta garraioaren gainekoak. Urbanoari dagokionez, esan dute bidaiariak fidelak direla eta erdiak baino gehiagok bono-busa erabiltzen dutela. Baina gaineratu dute, %2,45 jaitsi dela bidaiari kopurua. Gainontzean, datuak positiboak dira: taxi-busa %19 igo da; galdutako txakurrak hiru bider gutxiago jaso dituzte eta pintadak kentzen 21.000 euro gutxiago gastatu dituzte.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Zenbaki
Aholkulariak
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
TÜV
• Kontabilitatea • Lana
• Fiskalitatea • Juridikoa
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 / Faxa: 943 71 22 68
www.zenbaki.es / zenbaki@zenbaki.es

**Bixente Etxeberria** > Zinegotzia

# "Herritarrari zerbitzu hobea eman gura diogu bulego horrekin"

UBANE MADERA > ARRASATE

**Arrasateko Udala bulego berri bat antolatzen dabil: Arreta Bulegoa. Portaloian ipiniko dute, Kutxak bulegoa zuen toki berean. Joan den astean esleitu zituzten lekua egokitzeko lanak. Bulegoaren gainean zerbait gehiago jakin guran, Barne Kudeaketa eta Kalitate Saileko arduradun Bixente Etxebarria zinegotziarengana jo dugu.**

**Noizko Arreta Bulegoa?**

San Juanetarako, aurreikuspenen arabera; betiere, obra, pertsonal hautaketa eta antolaketa bere bidetik joaten badira.

**Zein ezaugarri izango ditu?**

Sei langile izango ditu: bost agente eta burua (Edurne Muxika). Banketxe baten antzerakoa izango da: sartu eta egongo da mostradore bat eta han egongo dira langile guztiak. Balio askotarikoak izango dira. Hau da, guztiek egin ahal izango dute edozein lan. Hala, herritarra edozein langilerengana joan ahal izango da eta txandak makina baten bitartez banatuko ditugu.

Horrez gainera, mostradorearen zati batean telefonoendako lekua izango da. Beraz, Arreta Bulegoan emango dute atentzio zuzena eta atentzio telefonikoa. Pertsona berak arduratuko dira atentzio pertsonala eta atentzio telefonikoa emateaz.

Eta atentzio telefoniko eta pertsonalaz gainera, etorkizunari begira herritarrari atentzio telematikoa ere eman gura diogu. Helburua da zerbitzu osoa ematea: ahal duen herritarrak tramiteak telematika bitartez egitea; horrela ezingo lukeenak, telefonoz; eta telefonoz ezingo lukeenak, Arreta Bulegoan.

Bestalde, Arreta Bulegoaren kanpoan izango da informazio puntu bat, udaletxeko informazioa eskuratzeko edo Udaleko webgunean sartzeko…

**Zein tramite egin ahal izango dira Arreta Bulegoan?**

Hirigintzarekin lotutakoak, Ogasunarekin lotutakoak… Tramite errazak eta sinpleak egin ahal izango dira, momentuan egin daitezkeenak. Arlo guztietakoak. Horrez gainera, batez ere informazioa jasotzeko gunea izango da. Sail guztiak kontuan hartuta, kalkulatu dugu berrehunetik gora tramite egin ahal izango direla.

Helburua da herritarrak udaletxean leihatilaz leihatila ibili beharrean, puntu bakarrean egin ahal dezatela guztia.

Espediente konplexuak eta espezializatuak, berriz, udaletxean tramitatuko dira.

**Zerbitzu hori orain arte udaletxean ematen da; aurrera begira Kultura Saila ere aterako duzue… Zergatik bide hori?**

Kultura etxea irailean abiaraziko dugu; Ongizatea Abaroako beheko aldera eramango dugu… Askok pentsatzen dute zerbitzu guztiak zentralizatzea egokiagoa dela. Eta izan daiteke. Baina horretarako behar da leku asko, eta ez daukagu. Udaletxea txiki geratu da, ez da oso funtzionala; eta kabitzen ez garenez, ez dago beste erremediorik batzuk irtetea baino. Eta halakoetan, normalena da zerbitzu sektorialak irtetea eta udaletxean geratzea korporazioarekin zerikusia dutenak.

**Beste zerbait nahi duzu esan…**

Herritarrari zerbitzu hobea eman gura diogu bulego horrekin. Hala, goizez eta arratsaldez zabalduko dugu egunero; eta zapatuetan, goizez.



Bixente Etxeberria, Arreta Bulegoa izango denaren atean. UBANE MADERA

**"Bulegoa zabalduko dugu egunero goizez eta arratsaldez eta zapatuetan, goizez"**

**"Kokapena kontuan hartuta, informazio orokorra ere emango dugu bulegoan"**

**Bulegoaren ezaugarriak**

| | KOPURUAK ZENBAKITAN |
|---|---|
| Langile kopurua | 6 |
| Agenteak | 5 |
| Tramiteak | 200 |
| Informazio gune | 1 |
| Iradokizun gune (kexuak…) | 1 |
| Lanak bukatzeko (hileak) | 4 |
| Aurrekontua (eurotan) | 161.510 |

> UDALTZAINGOA

## Nortasun Agiriak egitera etorriko dira uste baino lehen

Otsailaren 28an ziren Arrasatera etortzekoak Nortasun Agiriak egin edo berritzera. Udaltzaingotik, baina, jakinarazi digute data aurreratu egin dutela otsailaren 21era. Eta, hain zuzen, otsailaren 17an (egubakoitza) emango dituzte txandak Udaltzaingoan, 08:00etatik aurrera.

> SONOGRAFOA

## Gehiegizko zarata neurtuko dute Ispilu tabernan

Udaltzaingoak zenbait herritarren kexuak jaso ditu Olarte kaleko Ispilu taberna dela-eta. Zaratei eta ordutegiari dagozkien araudia betetzen ez duela-eta kexatu dira herritarrak. Hala, hori neurtzeko tabernan sonografoa ipiniko dutela erabaki du oraingo astean gobernu batzarrak.

> PRESOAK

## Premin Sanpedro mehatxatu egin dutela salatu dute

Askatasunak salatu duenez, Premin Sanpedro arrasatearraren kontra indarra erabiltzen ahalegindu dira Villabonako (Asturias) kartzelako bi funtzionario. Bakartze egoeran dagoen beste preso politiko baten oihuei esker utzi zuten arrasatearra. Mehatxatu egin dutela ere salatu dute.

> INGURUMENA

## Bizikletak aparkatzeko lekuak ipini dituzte

Agenda 21aren barruan, mugikortasuna bultzatzeko helburuarekin zenbait puntutan bizikletendako aparkalekuak ipini dituzte: Ferrerias, Seber, Monterron… Kontuan hartu dute bizikleta erabiltzaile gehien ibiltzen diren lekuak halakoak ipintzeko, Esaterako, eskola inguruak.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

KONTRATAK
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

**ANTZERKIA** > DOMEKAN, 'NASDROVIA TXEJOV!' AMAIA ANTZOKIAN

# Anton Chejov idazlearen bost ipuin antzerkirako egokitu dituzte

Anton P. Chejovi omenaldia egin gura diote ikuskizun horren bitartez

Chejov bera eta haren ipuinetako batzuk izango dira protagonista



VAIVEN

**TERESA CALO** eta Jose Ramon Soroiz dira aktoreetako bi.

**IKER BARANDIARAN**> ARRASATE
Etzi, domeka, Vaiven Producciones taldeak *Nasdrovia Txejov!* antzezlana egingo du Amaia Udal Antzokian, euskaraz. 19:30ean izango da ikuskizuna, eta sarrerak salgai daude antzokiko txarteldegian eta baita Servikutxaren bitartez ere.

Anton P. Chejov errusiarra oso idazle ezaguna izan zen, eta haren hainbat lan eraman dituzte antzezlanetara. Oraingoan Vaiven taldeak beste mota bateko lana egin du; izan ere, Chejoven bost bat ipuin aukeratu dituzte eta bostak lotuta ikuskizun berezia egin dute. Are gehiago, Chejov bera antzezlanaren protagonista ere bilakatu dute, eta saiatu dira egile horren umore berezia ikuskizunean erabiltzen. "Chejovek bizi izateko oso filosofia berezia zeukan, eta txiroei eskatzen zien biktima izaten uzteko eta euren eskubideen alde borrokan egiteko. Hori guztia jasotzen saiatu gara", azaldu zuen ikuskizunaren sortzaile Ana Pinedak. Horregatik, egileek Chejoven aldeko topa (*nasdrovia!*) egin gura izan dute.

**MODERNITATEA ETA ALDAKETAK**
Ikuskizunaren hasieran, Chejovek hainbat ipuin idatziko ditu, presaka, eta aktoreek ipuin horiek irudikatuko dituzte. Istorio horretan barrena Chejoven ohiko pertsonaiek parte hartuko dute: jeneralek, funtzionarioek, emakumezko aberatsek, emakumezko ezkongaiek, burgesek, ahozabalek, iruzurtiek eta beste, hain zuzen ere.

Beti ere kontakizun horiek umore fin eta dotorearekin eginda daude, eta modernitatearen eta denbora berrien kontraesanak erretratatzen dituzte.

**LANTALDEAK ESKARMENTU HANDIA**
Fernando Buernes da ikuskizunaren zuzendaria eta Alberto Iglesias arduratu da dramaturgiaz. Aktoreak honako hauek dira: Eriz Alberdi, Naiara Arnedo, Teresa Calo, Isidoro Fernandez, Jose Ramon Soroiz eta Dorleta Urretabizkaia.

Era berean, euskarazko bertsioa egokitzeaz Ritxi Lizartza arduratu da eta musika Iñaki Salvador konposatzaile ezagunak idatzi du.

JAKINGARRIA

**> MAX SARIETARA IZENDATUTA**
Astean jakinarazi dute *Nasdrovia Txejov* antzezlana Espainiako Estatuko Arte Eszenikoen Max Sarietara izendatu dutela. **EAEko** errebelazio ikuskizun onena izendatu dute. **Martxoaren 13an** banatuko dituzte Max sariak **Bartzelonan.**

**ANTZERKIA**

## Doke taldearen ikuskizun berria

**I.B.** > ARRASATE
Arrasateko Doke antzerki taldea hasi da *Gabonetako ikuskizuna* prestatzen. Urritik hasita, astelehenero entseguak egiten dituzte AEDko txokoan.

Ikuskizunaren jatorrizko izena da *Acto para la Nochebuena* eta Pedro Inazio Barrutia aramaioarrak idatzi zuen. Eta Arrasateko Doke taldeak lan hori euskaraz antzeztea erabaki zuen. Horretarako, Jose Mari Velez de Mendizabal idazlearengana jo zuten eta hark hartu du ikuskizuna euskarara egokitzeko ardura.

**AKTOREAK BEHAR DITUZTE**
Doke taldeak Gabonetan antzeztu gura du ikuskizun hori. Entseguak egiten dihardute Itziar Rekalde zuzendariarekin. Berez ikuskizunerako 15 aktore behar dituzte, baina orain arte hamar lagun batzen dira.

Hortaz, dei egin dute Doke elkartean esku hartu gura duten lagunei astelehenetan 19:00etatik 21:00etara bitartean AEDko txokora joan daitezen. "Ez daukagu adin mugarik, lagun batzuk oso gazteak dira eta beste batzuk 65 urtetik gorakoak gara. Taldea guztiei zabalik dago".

> KONTZERTUA

### Bosniako umezurtz etxe baten alde arituko dira parrokian

Bihar, zapatua, kontzertu berezia egingo dute San Juan Bataiatzailearen elizan, 20:00etan. Helburua da Bosniako Bjelave umezurtz etxearen alde egitea.

Hala, Juan Luis Anasagasti tenorrak eta Jaime L. de Butron piano jotzaileak euskal eta italiar kantuak, zartzuela eta opera egingo dituzte.

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 ¥ ARRASATE


Euskal Eskola
Publikoaren alde
Egin Kinu!!
Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
OTSAILAREN 6tik 17ra:
DBH-ko informazio bilerak:
• Aramaioko San Martin Eskolan, otsailaren 13an, astelehenean, 18:00etan.
• Musakolan, otsailaren 14an, asteartean, 18:00etan.
Gurasoen Elkartea
arrasate
Herri Eskola
baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa


Maier
Estetika Zentroa
Zarugalde 5 ARRASATE
Tel.: 943 79 10 06
RICHI
Ile apaindegia
Zarugalde 5 ARRASATE Tel.: 943 79 10 06
• Etxez etxeko zerbitzua
• Irudi-aholkulari pertsonalizatua
• Koloreak arropetan, ilean, orrazkera
eta makillaje mota aholkatzen dizkizugu!!
• Depilazioa argizari
bero eta hotzarekin
• Gorputz eta aurpegi
tratamenduak
• Aurpegi-garbiketak
• Gorputz-esfoliazioak
• Manikura eta pedikura
• Makillajea
• Depilazio elektrikoa.
• Masajeak:
Lasaitzailea
Kiromasajea
Zainak biziberritzea
Drainatzea

> ESKUBALOIA

## Elgoibarren kontura jarraitu gura dute aurreko postuetan

Ford Mugarri eskubaloi taldeak bederatzigarren postuan dagoen Antt-Solflan Elgoibar taldearen kontra neurtuko ditu indarrak domekan Iturripen. Urnietakoren kantxan irabazita, Arandoren taldeak Urolarekin batera agintzen du igoera fasean, eta ez dute gura ezustekorik Elgoibarren kontra.

Bigarren territorialeko taldea ere hirugarren postuan dago sailkapenean; liderraren kantxan lehiatuko dira asteburuan, Hegalderen kontra.

> ERRUGBIA

## Igoera faseko bigarren pausoa, Mungiaren zelaian

Arrasateko taldeak ondo baino hobeto hasi zuen joan den zapatuan igoera fasea, Elorriori hortzak erakutsita (17-3). Eta, David Jaureguiren mutilek Mungian izango dute hurrengo hitzordua, bihar arratsaldean (16:00). Igoera fasea hasi baino ez da egin, baina arrasatearrak orain hasi dira erakusten orain arte falta izan zaien indarra.

**FUTBOLA** > SAILKAPENAREN ERDIAN DAGO MONDRA

# Epaileen baimenarekin, Mondra Beti Gazteren kontra bihar

Mondrako zuzendaritzakoak Donostian izan dira aste barruan, haserre daude-eta epaileek Mondrako partiduetan egin duten lanarekin

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Mondrak ezin du huts gehiago egin, Arrasatekoak dagoeneko hamargarren lekuan daude-eta, aurreko postuetatik urrunduta. Eta, erregional maila gertu duen Beti Gazte ezin da Gordobilen mutilendako kontrario izan, horien kontra ezin da barkatu. Arrasateko taldeak hainbat jokalari izango ditu harmailetan, joan den astean ikusitako txartel guztien eraginez. Eta, aspaldian epaileek Mondraren kontra erabakiak errazegi hartzen badituzte ere, Arrasateko taldeak ez du horretarako motibo bakarra ere eman behar. Hau da, erantzukizuna epaileena dela esan aurretik, taldeak hausnarketa sakonagoa egin beharko luke, eta eurek egindako akatsak ondo aztertu.



ETXEKO partiduak domeketan jokatuko ditu aurrerantzean Mondrak. GOIENKARIA

**GERO ETA ATZERAGO**

Mondraren denboraldi hasiera bigarren itzuliaren hasierarekin alderatuz gero, bistan dago errendimenduak nabarmen egin duela behera. Lehenengo lau norgehiagoketan Ordizia bakarrik izan zen Mondrari irabazteko gauza (3-2). Orain, berriz, Zarautzek eta Mutrikuk kolpeka hartu dute Arrasateko taldea, eta Ordiziaren kontrako norgehiagoka atzeratuta dago. Bigarren itzulian talde guztiek izaten dituzte beherakadak; Mondrarenak bihar amaitu behar du.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Iriztu Taberna - Berdes Bremen | **5-7** |
| AT Celaya - Billy & The Cowboys | **2-0** |
| Dribling - Saukelu Scream | **2-2** |
| Pippol - Tomahawk | **6-2** |
| HLB 108 - Txoponbeixek | **4-1** |
| Arrano Taberna - THC | **8-4** |
| Irish Pub Dublin - Aurrera Bolie TMT | **3-2** |
| Lasagabaster - Abokajarro | **7-2** |
| Iluntz - Betrayer | **5-5** |

**PARTIDUAK (KOPA TXAPELKETA)**

| Otsailak 11, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **10:50** Betrayer - AC Surkos | **Antolatzaile.** |
| **12:00** Berdes Brem.- HLB 108 | **Antolatzaile.** |
| **13:00** Dribling - Abokajarro | **Antolatzaile.** |
| **16:00** Iriztu tab. - Irish Pub | **Antolatzaile.** |
| **17:00** Iluntz - Fuxxion | **Antolatzaile.** |
| **18:00** AT Celaya - Tomahawk | **Iluntz (atze.)** |

| Otsailak 12, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **10:50** Pippol - Arrano Tab. | **Antolatzaile.** |
| **12:00** THC - Saukelu Scream | **Antolatzaile.** |
| **13:00** Txoponb. - Billy & The... | **Antolatzaile.** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Betrayer | 22 | 9 |
| **2.** | Dribling | 22 | 9 |
| **3.** | Arrano Taberna | 18 | 9 |
| **4.** | Lasagabaster | 16 | 8 |
| **5.** | Iriztu Taberna | 16 | 8 |
| **6.** | Saukelu Scream | 16 | 9 |
| **7.** | Pippol | 16 | 9 |
| **8.** | Billy & The cowboys | 15 | 9 |
| **9.** | Irish Pub Dublin | 15 | 9 |
| **10.** | Iluntz | 14 | 9 |
| **11.** | Fuxxion | 13 | 8 |
| **12.** | Abojarro | 13 | 8 |
| **13.** | AC Surcos | 12 | 8 |
| **14.** | AT Celaya | 12 | 8 |
| **15.** | HLB 108 | 12 | 9 |
| **16.** | Aurrera Bolie TMT | 6 | 9 |
| **17.** | Txoponbeixek | 6 | 9 |
| **18.** | Tomahawk | 6 | 8 |
| **19.** | Berdes Bremen | 3 | 9 |
| **20.** | THC | 0 | 9 |

Matrikula epea
2006-2007
Otsailaren 6tik 17ra
Haurtzaindegia - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza - D.B.H
Mesedeetako Andra Maria
IKASTETXEA
Tel.: 943 79 27 73
ARRASATE

arrasatearrak kanpoan

**Olatz Olabe** > Ingeniaria
Swindon, Ingalaterra

# "Gustuko dut ingelesen umorea, alemanena baino hobea da”

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Olatz maiatza ezkero dago Londrestik 140 kilometrora dagoen Swindon hirian bizi izaten. Ederlan enpresarendako dabil lanean, Ingalaterrako bezeroei berehalako asistentzia eskaintzen. Gustura dabil, nahiz eta autoan hara eta hona ibili behar duen, GPSari begira.**

Olatzen bizilekuaren gainean berba egiterakoan, ezin esan Swindon hiri polita denik: “Industrializazioarekin batera hazi zen hiria da, eta industriaren alde egiterakoan hainbat zerbitzu alde batera utzi zituzten. Enpresa mordoa daude han, Honda automobil etxea, besteak beste, baina hiriak ez du aparteko ezer”. Azkeneko urteak kanpoan egin ditu Olatzek, eta alde horretatik, ez du lagunak egiteko arazo handirik: “Alemanian gehiago ateratzen nintzen; hemen asteburuetan elkartzen naiz lagunekin. Gehienak australiarrak dira, gaitza da-eta bertako jendearekin elkartzea. Nik logistika arlokoekin edo komertzialekin dut harreman handien, eta egia da lan egiterakoan jende jatorra dela, gizabide handikoa; alde horretatik, euskaldunok badugu zer ikasi”.

**"Egia da sekulakoa harrapatu arte edaten dutela; neskak zapatak eskuetan dituztela irteten dira diskotekatik"**


Olatz Olabe.

**UMORE IRONIKOA**

Alemaniarren eta ingelesen artean dagoen aldeaz ere egin digu berba Olatzek: “Gurago dut ingelesek duten umorea. Ironiaz berba eginez gero, ez dira galduko. Alemanian nengoenean, baina, ezin nuen horrelakorik egin, harridurazko aurpegiarekin geratzen zitzaizkidan begira, eta broma zela esan arte ez zuten ulertzen. Berba ironiaz egitea gustatzen zait ba niri...".

Ezin Ingalaterrako topikoak alde batera utzi: "Egia da sekulakoa harrapatu arte edaten dutela. Neskak zapatak eskuetan dituztela irteten dira diskotekatik. Gu, berriz, etxeetan elkartzen gara, lasaiago".

txutxumutxua

## Gazte Txokoak jo eta ke dabiltza eski irteerak antolatzen; izena eman gura?

**Ondoko erretratua Luz Ardidenekoa da, Arrasateko Gazte Txokokoek urtarrilean egin zuten eski irteeran ateratakoa. 32 gazte animatu ziren Frantzia aldera eskiatzera joatera, eta teleaulki horretan zeintzuk doazen asmatu gura duenak jai du, horrenbeste betaurreko eta elurretako txanorekin ez dago-eta ezer egiterik. Kontua da Arrasateko eskiatzaileei Eskoriatzako eta Aretxabaletako Gazte Txokoko lagunek hartuko dietela errelebua, horiek oraingo asteburuan joango dira eta Luz Ardidenera. Ordu gutxi barru hartu beharko dute autobusa, 04:30ean. Horrenbestez, afaldu eta ohera!**


TXATXILIPURDI

bere ustez


Ander Etxebarria

## Liderraren ezaugarri bereziak

On Jose Maria Arizmendiarrieta apaiz lagunkide funtzioa betetzera etorri zen Arrasatera, eta kargu hori izan zuen beti, 1976. urtean hil zen arte. Deigarria da horrenbeste ekimen aurrera eraman zituen pertsona parrokoaren laguntzaile “besterik” ez izana. Elizako hierarkian gora ez egina harrigarria gerta dakioke Arizmendiarrietaren obrara gerturatzen denari.

Kontua da bere izaera berezia zela, ohituta gauden liderren ezaugarrietatik urrun. Besteak beste, ez zuen soldatarik jaso berak bultzatuta sortu ziren enpresetatik, aitzitik, laztasunean bizi izan zen apaiz lagunkide bezala jasotzen zuenarekin.

**"Elizako hierarkian gora ez egina harrigarria gerta dakioke bere obrara gerturatu denari”**

Aurretik tiraka baino gehiago, atzetik bultzatzen zuen: batekin eta bestearekin elkartu, bere grinaz kutsatu, eta lortu indarrak eta baliabideak batzea. Komunikazioan motzean asmatzen zuen, ez hainbeste sermoi eta diskurtsoekin, ez ziren-eta jendearentzat ulerterrazak. Eta ahaztu barik lana, lan eta lan besteen alde.

Pasa den igandean, otsailaren 5ean, bete ziren 65 urte gizon hori Mondragoeko tren geltokian jaitsi zela kartoizko maleta batekin.

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

Garagardo ona, giro hobea
TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



**300.000 EURO** bideratuko ditu Udalak jolasparkeak konpondu (Espaloia, argazkian) edo berriak jartzeko. O.E.

**LANAK** > HOMOLOGATUTAKO JOLASAK JARRIKO DITUZTE

# Jolasparkeak berrituko dituzte maiatzerako

Espoloiko, Poligonoko, Gorlako eta Martokoko jolasparkeak egokitu egingo dituzte eta berriak egingo dituzte Labegaraietan eta Zabalotegin

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Herriko jolasparkeak egokitu eta berritu egin gura ditu Udalak, Europak ezartzen dituen jolas homologatuak jartzeko herriko jolasparke guztietan. Segurtasunari lotutako neurriak dira eta maiatzerako jarri gura ditu ziburu, txirrista eta lurzoru berriak.

Juanjo Arrieta zinegotziak esan digunez, "jolasen diseinuak ez dira askorik aldatuko; ziburuen eserlekuak, jolasen malgukiak eta azpiko lurzoruak dira aldatu behar direnak". Haren esanetan, "jolasak bezain garrantzitsua da azpiko lurzorua egokia izatea. Toki batzuetan gomazko lurzorua jarri beharko dugu, eta ikusi egin behar da horrek zenbateko lodiera izan behar duen". Horregatik, lurzoruak ere egokitu edo aldatu egingo dituzte, beharraren arabera.

**JOLASPARKE BERRIAK**

Gorlan, Poligonoan, Espoloian eta Martokon dauden jolasparkeetako jolasak, adibidez, berritu egingo dituzte eta homologatutako neurri eta arauei egokitu. Espoloian ziburuak tokiz aldatuko dituzte, zuhaitzetatik gertuegi daudelako, "eta orain ziburuak dauden tokian jolas berriak jarriko ditugu", dio Arrietak. Lan horiekin batera, jolasparke berriak egingo dituzte Zabalotegin eta Labegaraietan. "Orain ez dago jolasparkerik auzo horietan, eta momentu hau aprobetxatuko dugu egiteko. Labegaraietakoa kiroldegi ondoan egingo dugu", zehaztu du Juanjo Arrietak.

**ITALIAKO JOLASAK**

Duela hiru bat aste Italiako feria batean egon ziren Udaleko ordezkari batzuk. "Santanderren, Burgosen eta Bizkaian ere izan gara. Etxe askotako informazioa eta katalogoak jaso ditugu, eta jolas egokienak zeintzuk izango diren aztertu behar dugu orain", esan digu Arrietak.

Lanenoinarriak ezarriko dituzte datozen asteetan, eta martxoan aterako dituzte lehiaketara. 300.000 euro baino gehiagoko aurrekontua dute eta maiatzerako bukatuta gura ditu Udalak.

> PRESOA

## Bois D'arcy espetxera eraman zuten 'Bizkai' preso bergarарra joan den egubakoitzean

Iñaki Arietaleanizbeaskoa Telleria *Bizkai* espetxez aldatu zuten joan den astean. Paris ondoan dagoen Bois D'arcy espetxean dago orain, lehen baino hamar kilometro urrutiago, Etxeratek esan bezala. Azken hamar hilabeteak Osnyko espetxean egin ditu *Bizkai*-k, beste lau euskal preso politikoekin batera. Etxerat elkarteak dituen azken datuen arabera, Bois D'arcy espetxean sei euskal preso daude orain, *Bizkai* kontuan hartuta.

> SARIA

## Aratusteetako mozorrorik onenari 160 euroko saria emango dio Bedelkar elkarteak

Bedelkarrek 160 euroko saria emango du datozen Aratusteetan. Mozorrorik onenak irabaziko du saria eta Bedelkarko jatetxe edo tabernetan gastatzeko erabiliko du. Bestalde, oraindik ez dira Gabon zozketako ondorengo zenbakiak agertu: 8.557, 50.891, 14.694, 75.183, 81.338, 21.447, 84.708, 76.620, 30.735, 34.832, 66.413, 40.926, 17.503, 69.599, 26.541 eta 39.018. Zenbaki bakoitzak 100 euroko saria du.

> IKASTAROAK

## Informatika eta argazkilaritza ikastaroak emango dituzte erretiratuen egoitzan

Informatika, argazkilaritza eta Internet ikastaroak emango dituzte otsailean eta martxoan erretiratuen egoitzan. 2006ko lehen hiruhilabeteko ikastaroak dira, eta datorren astelehenean, otsailak 13, hasiko dituzte. Ordenagailua eta informatika ezagutzeko ikastaroa izango da lehendabizikoa eta gero egingo dituzte beste biak. Goizez eta arratsaldez dira. Interesa duena erretiratuen egoitzara bertara joan daiteke, han emango diote-eta informazio zehatza.



O.E.

## Heziketa-balioak lantzen dituen erakusketa zabalik kultura etxean

Argazkiko ikasleak Juul-en erakusketa ikustera joan ziren eta lurrean eserita hitz egin zuten elkarrenganako errespetuari, adiskidetasunari eta gatazkak nola gainditurі buruz. Gurasoendako eta irakasleendako hilaren 22an dago hitzaldia, kultura etxean.

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

Mireia Alberdi DIETISTA

HELBIDE BERRIA:
Masterreka 11 behea • BERGARA
943 76 33 99

- Osasun arazoak
- Balorazio nutrizionala
- Dieta pertsonalizatuak
- Kirolarientzako dietak
- Ikastaroak

(...) mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943 76 33 99
(m) 646 433 458
(e) mireialber@euskalnet.net

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

# ARANZADI IKASTOLA

Herri Onurako Irakaskuntza Kooperatiba

**2006/07** ikasturterako matrikulazio epea zabalik otsailaren **6**tik **17**ra.

San Martin Plaza, 4
20570 BERGARA
bergara@ikastola.net
www.aranzadiikastola.org

*Aurten berriztatze obretan ari garenez, ezingo ditugu gure ikastetxeko ateak ireki, beraz, gure hezkuntza proiektua, ikas-materiala, HHko gelak... ezagutu nahi izanez gero,* ***zatoz otsailaren 13tik 17ra eskola ordutan eta lanean ikusiko gaituzu.***

## KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKALDUNA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKALDUNA





- **ELEANITZA**
- **TEKNOLOGIA BERRIETAN MURGILDUTA**
- **IKASMATERIAL PROPIOA**
  - IKASTOLEN ELKARTEAK SORTUA
  - EUSKAL HERRIAN ETA EUSKAL HERRIRAKO EGINA
- **IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA**
- **IKASLE NAHIZ GURASOENTZAKO ARRETA PERTSONALA ETA ZUZENA**

## BALIABIDE ETA ZERBITZUAK

BALIABIDE ETA ZERBITZUAK






### *HAURTXOA HAURTZANDEGIA*

- 0 - 3 URTE BITARTEAN
- GURE HEZKUNTZA PROIEKTU BERA

### *ARANZADI*

- **UMEZAINTZA ZERBITZUA**
  - 2 URTETIK 8 URTERA
  - GOIZEKO 7ETATIK ARRATSALDEKO 7ETARA
  - GABONETAN, ASTE SANTUAN ETA UZTAILEAN IREKITA
- **2 URTEKO GELAK**
- **HARRERA GELA**
- **GARRAIOA ETA JANTOKIA**
- **BALIABIDE PEDAGOGIKOAK**
  - ESKOLA PSIKOLOGOA
  - ORIENTATZAILE PEDAGOGIKOA
  - LOGOPEDA
  - HEZKUNTZA PREMIA BEREZIETARAKO ESPEZIALISTAK

Ikastolen Elkartea
www.ikastola.net

**HAUR HEZKUNTZATIK BATXILERGORA**

KOH diseinu grafikoa eta inpresio digitala



FLY SHIT taldekoak, ezkerretik eskumara: Ander Elortza, Igor Setien, *Dubi* eta *Osto*. IKER BARANDIARAN

**Fly Shit** > Musika taldea

# "Talde gazte askok aretoetan jo gura dute, gaztetxeak gutxietsiz"

IKER BARANDIARAN > BERGARA

**Ibarreko hardcore talde bakarrenetarikoak bigarren diskoa kaleratu berri du. Oso disko txukuna da, eta zuzenean ederto defendatzen dira. Hori egiaztatzeko zapatuan kontzertua egingo dute euren kokagune kutunean, gaztetxean.**

**Zer bilakaera izan du taldeak orain dela 10 urte sortu zenutenetik? Ilusio bera daukazue?**

16 bat urterekin hasi ginen entseatzen, eta jotzeko irrikan geunden. Orduan ez zegoen gaztetxerik eta Pol-Pol tabernan jotzen genuen. 2000. urtean CD bat kaleratu genuen Hotsak diskoetxearekin, eta ordutik hona Bizkaiko eta Gipuzkoako gaztetxe askotan eta Bartzelonan jo dugu.

Oraindik ilusio handia daukagu. Are gehiago, gogo handia daukagu abesti berriak zuzenean jotzeko.

**Diskoa bukatzea erditze luzea izan da?**

Bai. Orain dela urte batzuk Eibarrera jo genuen abesti batzuk grabatzera. Horren ostean, Eloy bateria jotzaileak esan zigun atzerrira zihoala. Horregatik, kanpora joan aurretik hainbat kantutako bateriak grabatu zituen. Poliki-poliki abesti horiek osatzen ibili gara, eta maketazio kontuek luze jo dute.

**Azkenean kalean dago diskoa, eta, gainera, zuen kontu kaleratu eta zabaldu duzue...**

Bai, Hotsak-ekin diskoa kaleratu genuenean hasiberriak ginen: grabazio estudio profesional batera jo genuen, diskoa modu komertzialean zabaldu zuten... Orain gurago izan dugu prozesua guk kontrolatu eta diskoa salneurri merkean saldu. *Creative commons*-en aldeko apustua egin dugu. Edozeinek erabil ditzake gure kantuak, baldin eta erabilera komertzialik ez badu egiten.

**Diskoaren izena da *Bizitza... baina nola bizi?* Zaila da *saltzen* dutenetik aparte bizitzea?**

Horren gaineko hausnarketa egin dugu. Kontsumismoa ez den beste gauza asko daude: gauzak zure kabuz egitea, gaztetxeetako batzarretan gauzak antolatzea, kontzertu merkeak antolatzea... Aukera asko daude bizitzan, eta gure esku dago horiek egitea.

**"Hardcorea egiten dugula esaten dugu, baina gauza asko entzuten ditugu"**

**"Edozeinek erabil ditzake gure kantuak, baldin eta erabilera komertzialik ez bada"**

**Hardcorea egiten duzue, baina zuen kantuek gero eta ñabardura gehiago dituzte.**

Beti hardcorea egiten dugula esan ohi dugu, baina musika estilo horren barruan eta baita kanpoan ere gauza asko entzuten ditugu.

**Zer osasun daukate Bergarako musika taldeek?**

Gure sasoiko talde gehienak desagertu egin dira, baina talde berri asko daude. Punk eta oi! musikak entzuten dira gehien. Edozelan ere, talde askok gurago dute aretoetan jo, eta gaztetxeak gutxiesten dituzte.

**LITERATURA**

## Oier Bolibarrena da herriko gutun onena

I.B. > BERGARA

Oier Bolibarrek jaso du bergarar onenaren saria Amodiozko Gutunen Lehiaketan. Gustuko du idaztea eta irakurtzea. Lehenengo aldia da lehiaketa horretan esku hartu duena, "berezia da, eta jokoa ematen du gauza desberdinak sortzeko".

Bolibarrek heriotzaren eta bizitzaren arteko harremanak irudikatu ditu, eta horretarako heriotzak eta bizitzak elkarri bidalitako gutunak idatzi ditu. "Bata ez da ezer bestea barik", argitu digu. Diseinuarekin ere jokatu du, "irakurritakoaz gain, begitik sartzen denak ere indarra duela uste dudalako". Sariak martitzenean, hilak 14, banatuko dituzte.



Oier Bolibar.

> LITERATURA

### Koldo Eleizalde lehiaketen 21. edizioa abian dago

Udaleko Euskara Sailak abian jarri ditu lehiaketa ezagun horiek. Lau kategoria daude horien baitan: ipuinak, bertsoak, komikiak eta ipuin-kontaketa edo antzerkia. Edozein debagoiendarrek esku hartu ahal izango du, eta lanak bidaltzeko azkeneko eguna apirilaren 28a izango da.

Mujika gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES
BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

GAK
Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak
Era guztietako garbiketak
•
Zuen komunitateko administrazioa
•
Konponketa orokorrak
•
Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.
Tel.: 653 70 45 47 OÑATI


1799
2006
Mariaren Lagundia Ikastola
Tlf: 943 76 25 40-41
e-mail: ikastola@mlagundia.net
Elkarrekin ikasten dugu... ikas ezazu gurekin
URKAN S.L.

**SASKIBALOIA** > DERBIA OÑATIN

# "Oñatikoekin lehia polita dugu, eta irabaztera joango gara"

## Candy taldeko David Urbinak ondo ezagutzen ditu oñatiarrak: "Lagun arteko norgehiagoka asko jokatzen ditugu; azkenekoan galdu egin genuen"

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bergarako Candy saskibaloi taldeak eta Aloña Mendik derbia jokatuko dute bihar Oñatin (19:15). Bergararrak bosgarren postuan daude, eta bi postu gorago daude oñatiarrak. Txapelketako bigarren fasea hasi berri, baina sailkapenak ez du gauza handirik argitzen. Bergarako taldeko David Urbinak eman dizkigu fase berriaren gaineko xehetasunak: "Orain hasi berri dugun fasean ez dugu ezer jokoan. Gabon aurretik ez ginen igoera faserako sailkatu, seigarren izan ginelako. Oñatiarrek beste horrenbeste egin zuten, eta orain ez dugu ezer galtzeko, atzerago ez dagoeta kategoria gehiago", esan digu, umorez, Davidek.

Alde horretatik, ondo pasatzera eta saskibaloian egitera joango dira bihar Oñatira: "Lehia polita daukagu talde horrekin, askotan egiten ditugu-eta lagun arteko norgehiagokak. Azkeneko partiduan eurek irabazi zuten, eta hori aldatzeko asmoarekin joango gara hara".

**GERTU DAGO POL-POLEKO BETERANOEN EGUTEGIA**

Mendizale elkarteko beteranoek dagoeneko gertatu dute aurtengo urteko egutegia. Lehenengo irteeran Larreatik Arantzazura egingo dute, otsailaren 19an. Horrekin batera, hilero egingo dute irteera bat, azarora arte. Eta, besteak beste, Nafarroa, Soria, Iparraldea, Asturias, Caceres, Salamanca (Gredosko mendizerra) eta beste hainbat lurralde ezagutu ahal izango dituzte. Argibide gehiago nahi izanez gero, deitu 943 76 48 51 telefono zenbakira.

**IGERIKETA**

# Dominak junior mailan

**X.U.** > BERGARA

Junior mailako Euskal Herriko Txapelketan Bergarako igerilariek lan txukuna egin zuten. Ana Balentziagak 200 metro libreetan erdietsi zuen postu onena, bosgarren izan zen. Mutiletan, bular modalitatean egindako hiru lasterketetan bigarren sailkatu zen Nielka Ibarguren. Mikel Labakak 100 metro estiloetan eskuratu zuen brontzea, eta beste horrenbeste egin zuen Peru Alustizak (50 metro tximeletan eta 200 metro estiloetan). Podium barik ere, ondo jardun zuen Erik Gorostiagak. Errelebuetako lasterketan ere bi domina Bergarakoendako.

# Fernando Goñik gogor kritikatu du materiala

Xalak eta Goñi III.ak Aimar Olaizolaren eta Zearraren kontra jokatuko dute domekan Bergaran (17:00). Eskuz Binakako Txapelketako finalerdietako norgehiagoka izango da, eta egueneko pilota aukeraketan ondo igarri zen hori. Pilota hautatzaileak atzera bota zituen Aspek eramandako hainbat pilota, biziegiak zirelako; hori ikusita, Fernando Goñi haserretu egin zen: "bote gutxikoak direnean ez da ezer gertatzen, eta apur bat biziak direnean sekulakoak esaten dituzte. Zipriren piloten kontrako kanpaina argia ikusten dut". Zera esan zuen Asegarcekoen materialaren gainean: "pilotan egitea lehenengo bost koadroen artean ibiltzea baino gehiago da".



XABIER URTZELAI

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| A ze flaxa - Errotagain | 8-5 |
| Agirrebeña - Makanaki | 9-1 |
| Belengua - Paco Cia | 3-6 |
| SDTNT - Fit Automocion | 10-4 |
| Teatekh - Kalaveras | 6-4 |
| Mongatxurrak - Pirulotarrak | 4-3 |
| Pub Irih - Santana Rivers | 0-6 |
| Komando piperrak - Egurre | 8-6 |
| All Black's - Txakurrak | 15-2 |
| Komando P. - Galeperrak | 8-6 |

**PARTIDUAK**

| Otsailak 12, domekan (kanpoan) | Epaileak |
|---|---|
| **09:30** Pub Irish - Errotagain | **Agirrebeña** |
| **10:30** Agirrebeña - Txakurra | **Errotagain** |
| **11:30** Belengua - Egurre | **A ze flaxa** |
| **12:30** A ze flaxa - Fit automoc. | **Egurre** |
| **16:00** SDTNT - Pirulotarrak | **Paco Cia** |

| Otsailak 12, domeka (barruan) | Epaileak |
|---|---|
| **16:00** All Black's - Guri Guri | **Niu Tim** |
| **17:00** Niu Tim - Paco Cia | **Teatekh** |
| **18:00** Teatekh - Santana | **Kalaveras** |
| **19:00** Mongatxurra - Kalaveras | **Komando P.** |
| **20:00** Komando P. - Makanaki | **Mongatxurr.** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Alls Black's | 39 | 13 |
| 2. | Guri Guri | 31 | 12 |
| 3. | Teatekh | 31 | 13 |
| 4. | Agirrebeña | 30 | 13 |
| 5. | Kalaveras | 27 | 13 |
| 6. | Errotagain | 27 | 13 |
| 7. | Mongatxurrak | 25 | 13 |
| 8. | A ze flaxa | 25 | 14 |
| 9. | Niu Tim | 23 | 14 |
| 10. | Makanaki | 21 | 13 |
| 11. | Pub Irish | 16 | 13 |
| 12. | Santana | 15 | 13 |
| 13. | Pirulotarrak | 15 | 13 |
| 14. | Paco Cia | 15 | 13 |
| 15. | Egurre | 15 | 13 |
| 16. | Belengua taberna | 13 | 13 |
| 17. | Komando piperrak | 12 | 13 |
| 18. | SDTNT | 11 | 14 |
| 19. | Irubide Jatetxea | 10 | 13 |
| 20. | Fit Automotion | 3 | 13 |
| 21. | Txakurrak | 3 | 13 |

### Asteburu batzuetan bi norgehiagoka jokatu beharko dituzte

Hori iragarri digute antolatzaileek, atzeratutako partiduak daudenez, asteburu batzuetan hainbat taldek bi partidu jokatuko dituztela: indarrak gorde behar.

Horrekin batera, Niu Tim taldearen eta Irubide jatetxearen arteko norgehiagokan Niu Tim ez zen hitzordura agertu. Antolatzaileek horrela erabakita, Irubide jatetxeak 0-3 irabazi du partidu hori. Eta horrekin batera, abisua eman gura diote Niu Tim taldeari: hurrengoan, kanpora.

etxalar
kafetegia
kruasantegia
Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
**Tel.:** 943 76 19 04
**Faxa:** 943 76 43 03
**Sakelakoa:** 656 78 64 84

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

mingainari tiraka

Laida Zubia > Liburuzaina

# "Liburua eskuetan izatea sentsazio polita da"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Bergarako liburutegian dihardu lanean Laida Zubiak orain dela hilabete ingurutik. Aurrez Debako liburutegian eta Bergarako Udal Artxiboan egin du lan. Bere lanbideaz egin dugu berba Laidarekin.**



**Zein liburu daukazu mesanotxean?**
Lagun batek opari egindako *Peter Pan* liburua. Azkenaldian manualak irakurtzen ditut batez ere.

**Irakurtzen hasi eta amaitu gabe utzi duzun libururik?**
Ez dut izenik gogoratzen, baina gustatu ezean albora lagatzen ditut.

**Bergararrek asko irakurtzen dute?**
Bai. Ni arratsaldez egoten naiz liburutegian eta mugimendu nahikoa dago.

**Liburutegian CDak hartzeko aukera dago. Zein musika mota entzuten duzu zuk?**
Bilduma berri bat daukagu eta handik pop moderno CD bat hartu dut. Gainontzean, denetarik entzuten dut; lagunekin eta tabernetan Alaska eta Shakira, besteak beste; etxean, berriz, Radiohead edo beste edozein talde.

**Irakurtzea denbora pasatzeko modu egokia da. Aisialdian irakurtzeaz gainera, zer egitea duzu gustuko?**
Lagunekin egotea, paseatzea, parranda egitea, museoren bat ikustea. Konpainia ona da aisialdirako garrantzitsuena.

**Artxiboan lanean jardundakoa zara. Bizitzako zein une artxibatuko zenuke?**
Bibliotekonomia ikastea erabaki nuen momentua. Gerora konturatu naiz aukera ona egin nuela.

**Teknologia berriekin liburuak desagertu egingo direla uste duzu?**
Ez. Liburuak esku artean izatea beti da sentsazio polita.

**Gomendatu liburu bat aste bukaerarako.**
*Memorias de una geisha*. Filma ikusi aurretik liburua irakurtzea gomendatuko nioke jendeari.

kanpotarrak bergaran

Doris Pardo > Adinekoen zaintzailea
Boliviarra

# "Boliviatik familiaren falta sumatzen dut batez ere"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Hiru urte inguru dira Doris Pardo Boliviatik Bergarara etorri zela. Adineko pertsona bat zaintzen egiten du lan, eta aisialdian ikastaroetara joaten da. Batez ere familiaren falta sumatzen du Dorisek.**

Martxoaren lehenean beteko dira hiru urte Doris Pardo boliviarra Bergarara etorri zela. Madrilen eta Logroñon egon ostean iritsi zen. "Lagun batek Bergaran egin beharreko lan baten berri eman zidan; beraz, lan kontuek ekarri ninduten hona".

Bolivia egoera ekonomiko txarrarengatik laga zuela esan digu Dorisek: "Jatetxe baten jabe nintzen han, baina Bolivian dirua irabaztea zaila da. Seme-alabak unibertsitatean ikasten ari ziren eta ez nuen bizimodua aurrera ateratzeko adina diru ateratzen; horregatik, lan egitera etorri nintzen, eta horretan dihardut, adineko pertsona bat zaintzen".

**"Jatetxe baten jabe nintzen Bolivian, baina ez nuen bizimodua aurrera ateratzeko adina ditu irabazten"**



Doris Pardo Bergaran bizi da.

Bergaran lana ez ezik bere ezagutza garatzeko aukera ere aurkitu duela esan digu Doris Pardok: "Etxekoek aukera ematen didate ikastaroak egiteko: geriatria, sukaldaritza, Internet, euskara...".

Ezagunak egin omen ditu hemen, baina benetako lagunik ez. "Euskara batzuetan oztopo izaten da jendearekin harremanak izateko", esan digu. Hala ere, alaba hemen dauka orain, eta hari ere ikasteko aukera eman dio Bergarara etortzeak. "Boliviatik familiaren falta sumatzen dut batez ere; gainera, iaz aita hil zen. Gainontzean, jatekoa eta zenbait ohitura ere gogoan ditut".

Herri-min hori arintzeko-edo ekainean Boliviara joatekoa da Doris: "Oporrak pasatzera joango naiz nire herrira, baina berriz itzuliko naiz lanera. Ondoren, urte batzuk egingo ditut hemen lanean, eta nire asmoa da berriz Boliviara joatea bizi izatera. Horretarako, seme-alabak lanean ikusi nahi nituzke".

bere ustez



Ainhoa Agirreazaldegi

## 'Ianu onamor': zer da nor?

Unai Romanoren izendeiturak atzekoz aurrera jarri ditut izenburuan. Horixe bera egin du Espainiako Estatuak Unairekin.

Lehenengo, gorputza eta burua atzekoz aurrera jarri, desitxuratu, Guardia Zibilak emandako tortura fisiko eta psikologikoekin.

Bigarrenik, epaileak desitxuratu zuen gertatutakoa, Unairi autolesioak, gezurrak eta informe faltsuak aurpegiratuz.

**"Honekin guztiarekin euskal gizarteak atzekoz aurrera jokatzea espero dute"**

Hirugarrenik, Madrilgo auzitegiak Unairekiko justizia desitxuratu du, kasua artxibatuz.

Laugarren, Guardia Zibilak berriro ere torturatzailea eta torturatuaren izenak eta izanak jarri ditu atzekoz aurrera, Unai Romanori testigantza faltsua egotzi eta salaketa jarriz.

Honekin guztiarekin euskal gizarteak atzekoz aurrera jokatzea espero dute, nori eta zer eskatu behar zaion *argi* utziz. Ezin diegu utzi Unai Romano bosgarren aldiz tortura dezaten: torturak desagerrarazteko eta orain arteko kasuetan justizia eskatzeko mobilizatu behar dugu.

Zuk ere egin behar zenuke, *exterrabI nuaj*. Eta euskaldunok behingoz bakean utz gaitzatela exijitu. Zuk ere bai, jaun Ibarretxe?

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

GAZTELU
BURDINKI DENDA
Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA


Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida
hemen bada
giro!
AKEITA
Taberna
Pintxoak eta ogitartekoak
Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA
IBARRA JATETXEA
• menua
• karta
• plater konbinatuak
• bokatak
Araba ibilbidea 29 • TEL.: 943 79 18 03
EZKUTU
TABERNA
Zatoz gure musikaz gozatzera
Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01
TABERNA
ARLUTZ
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34
HAIZEA
Kafetegia
eta
taberna
Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60
Mirentxu
Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67
TABERNA-BERRI
Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67
NAIRA
Taberna
Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71
BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84
Dorleta
taberna
Bezeroen zerbitzura
Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15
HIRUSTA JATETXEA
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57
Orly
aretxabaleta
Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33
Aretz
Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
ZARAIA
taberna
Araba Ibilbidea 20 ¥ ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95
Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

14 eta 16 zaldi potentzia artekoak dira nagusi, 1.570

Motorren kasuan 228 daude, 2004an baino 18 gehiago

Datorren astean hasiko da Udala ibilgailuen zergak kobratzen

**IBILGAILUAK** > ZERGAK

# Duela urtebete baino ia 100 auto gehiago daude herrian



**AUTOMOBILAK** Potentzia txikiko automobilek behera egin duten neurrian, potentzia handikoak hasi dira gora egiten. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Datorren astean hasi eta datozen bi hilabeteetan trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga kobratuko du Udalak. Automobil, motor, kamioi edo traktoreak dituzten guztiek izango dute zerga ordaindu beharra. Kopurua, baina, ez da guztiendako berdina izango, ibilgailuaren potentziaren araberakoa baizik.

**AUTOMOBIL TXIKIAK BEHERA**

Oraintsu jakin ditu Udalak herriko ibilgailuen iazko erroldako datuak. Zergak kobratzeko garaia delako atera ditu, eta 2004ko datuekin alderatuta hainbat aldaketa gertatu dira herritarren ohituretan.

Guztira 3.322 automobil genituen 2005eko abenduan, 6.484 biztanle dituen herrian. 2004an baino 96 gehiago. Horiez gain, kamioiak, traktoreak eta motorrak daude. Potentzia txikia duten autoek behera egin dute, hau da, 12 zaldi potentzia baino txikiagoko autoetan beherako joera dago; hala, 2005ean 20 auto gutxiago zeuden 2004an baino. 14 eta 16 zaldi potentzia artean diesel diren auto gehienak sartzen dira, eta 16 eta 20 artekoetan monobolumenak eta 4x4 ibilgailu txiki gehienak daude. Batak zein besteak gora egin dute nabarmen; lehenengoen kasuan ia 90 auto gehiago ditugu —guztira 1.570—, eta bigarrenean ia 30 gehiago. 20 zaldi potentzia baino gehiago dituztenak ere baditugu, 17 guztira. BMW eta Volkswagen erako 4x4 ibilgailu handiak daude talde horretan.

**18 MOTOR GEHIAGO**

Autobusik ez dago herrian erroldatuta, baina kamioiak bai, 157 guztira. 1.000 kiloko karga baino gutxiago dutenak dira nagusi, 79, iaz baino bi gutxiago. 9.999 kilotik gorako kamioiak ere asko dira, 38. Baserrietako traktoreek ere gora egin dute; hala, 71 daude guztira. Eta 16 zaldi potentzia baino gutxiago dutenak igo dira gehien, 2004an baino 11 gehiago, eta horiexek dira nagusi, 32.

Motorren kasuan ziklomotorrak daude gehien, 115, eta 500 eta 1.000 zentimetro kubikoko (zk) potentzia artekoak datoz gero, 41. 1.000 zentimetro kubikoko potentziatik gora dutenetan izan ezik, gainerako guztietan igoera egon da, eta 2004an baino 18 motor gehiago daude herrian.

## Ibilgailuen gaineko zerga

| | EURO | ZENBAT HERRIAN |
|---|---|---|
| 9 zaldi fiskaletik beherako automobilak | 32,10 | 62 |
| 9tik 11,99 zaldi fiskalera arteko automobilak | 64,20 | 1.295 |
| 12tik 13,99 zaldi fiskalera arteko automobilak | 114,50 | 1.570 |
| 14tik 15,99 zaldi fiskalera arteko automobilak | 160,30 | 201 |
| 16tik 19,99 zaldi fiskalera arteko automobilak | 206,10 | 177 |
| 20 zaldi fiskaletik gorako automobilak | 251,90 | 17 |
| 1.000 kiloko kargatik beherako kamioiak | 77,80 | 79 |
| 1.000 eta 2.999 kilo karga bitarteko kamioiak | 153,30 | 26 |
| 16 zaldi fiskaletik beherako traktoreak | 32,50 | 32 |
| Ziklomotorrak | 8,20 | 115 |
| 500etik 1.000 z.k. rainoko motozikletak | 55,70 | 41 |

**BI HILABETE ORDAINTZEKO**

Azaroan onartu zuen udalbatzarrak ibilgailuen gaineko zergen igoera. 12 zaldi fiskal baino gutxiago dutenei 1,78 koefizientea aplikatu diete, eta 12tik gorakoei, 1,90. Gainerako tarifetan Foru Arauak ezarritako gutxieneko kuota igotzea erabaki zuten, hau da, 1,84ko koefizientea aplikatuta.

Aipatutako zergak ibilgailua daukaten guztiek ordaindu beharko dituzte, baina ezintasunak dituzten herritarrek, gutxienez %33ko ezintasuna, hobariak eska ditzakete. Horretarako, baina, agiri bi aurkeztu beharko dituzte udaletxean: ibilgailuaren erabilerari buruzko zinpeko aitorpena eta ibilgailuaren aseguruaren fotokopia.

Datorren astean hasiko da Udala zergak kobratzen. Gehienei bankuko kontutik pasatuko die, baina kontuaren zenbakia eman barik dutenek udaletxera jo beharko dute ordaintzeko. Bi hilabeteko epea izango dute horretarako.

Mobiliario Arenaza

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

MAPFRE

FONDMAPFRE
BURTSA G VIII

INBERTITU BURTSAN, DIRUA ARRISKUAN JARRI BARIK

• %100eko GARANTIA
• %125eko ERRENTAGARRITASUNA

Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

**HIRIGINTZA** > LANAK

# Bukatzekotan dira Arkarazo auzoko errepidearen lanak

Berandu hasi zituzten lanak, azaroan, eta uste baino luzeago jo dute, eguraldi txarraren erruz

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Egunotan dabiltza Arkarazo auzoko hainbat baserritara doan errepideko azken lanak egiten Amenabar enpresako langileak; hain zuzen, asfaltoa bota eta bazterrak txukuntzen.

**HAINBAT ARAZO**

Elurra egin zuen egunetan asfaltatu behar zuten, baina atzeratu egin dira lanok. Martitzenean oraindik hasi barik zeuden, asfaltoa eraman behar zien lantegian arazoak izan zituztelako, baina oraingo astean bukatzea zuten helburu.

Lanok uste baino geroago hasi zituen Amenabar enpresak, irailean hasi beharrean azaroan. Horren ondorioz, udazken eta neguko euri jasak eta elurra izan dituzte lagun. Horrek atzerapenak eragin ditu, eta bi hilabeteko lanak beste hilabete luzatu dira.

**300 MILA EUROTIK GORAKO LANA**

Arkarazoko errepidearen arazoa aspalditik zetorren, baina konponketa bat lurra jaustean eta beste bat pitzadurak agertzean eginda moldatu izan dira auzotarrak. Orain dela bi urte egindako ikerketa lanek aurreikusi zuten 50 metro inguruko horma behar zuela errepideak azpian, eta 150.000 euro gorde zituzten. Konpontze lanak hasi zituztenean, baina, hori baino sendoagoa behar zuela ikusi zuten eta egin beharreko inbertsioa ere askoz handiagoa zen. Hori dela eta, behin betiko konpontzeko erabaki zuen Udalak, eta 333.811 euroko aurrekontua zuten lanak egitea agindu zion Amenabarri. Lurrek eskatzen zuten horma eginda erabat indartu dute errepidea, eta hemendik aurrera auzotarrek ez dute arazo gehiago izango, zati batean behintzat.




**ASFALTOA** Asteon bota dute asfaltoa Arkarazoko errepidean eta azken txukuntze lanak egiten dabiltza langileak. M.A.

> HIRIGINTZA

## Hirigintzako erdi mailako teknikari postua betetzeko izenematea hilaren 21 arte zabalik

Hirigintza Sailean lanpostu bat hutsik geratu da oraintsu, eta Udalak lehenbailehen bete gura du erdi mailako teknikari funtzionarioaren plaza. Izenemate epea otsailaren 1ean zabaldu zuten eta hilaren 21a arte egongo da; curriculumak Aretxabaletako udaletxera eraman behar dituzte interesatuek.

Oposaketa-lehiaketa bitartez hautatuko dute langilea, eta arkitekto teknikoaren titulua izan beharko du eskatzaileak. Eta lanpostua lortutakoan lan hauek egin beharko ditu: hirigintza-proiektuen berri eman, ingurumenarekin zerikusia duten proiektu eta egitarauak, zaraten kontrola eta neurketa, beste batzuen artean. ARCEPAFEren 15. mailari dagokion lansari gordina izango du.

> OSASUNA

## Sendabelarren ikastaroa antolatu du Loramendi EEk

Sendabelarren berri jakin gura duenarendako ikastaroa antolatu du Loramendi EEk. Zorion Insausti aditua izango da irakaslea; eskolak martxoan hasi eta maiatzera bitartean emango ditu. Izena emateko Loramendiren lokaletik pasatu behar da, eta ez dituzte onartuko 20 lagun baino gehiago.



Sendabelarrak, aztergai.

> KULTURA

## Herri bazkaria egingo dute Aratuste-domekan, 100 lagunek baino gehiagok ematen badute izena

Gero eta hurrago dauzkagu Aratusteak, eta koadrilak eta Kultura Saila hasita daude gertatzen. Hain zuzen, koadrilek eskatuta herri bazkaria egingo dute Aratuste-domekan, kirol etxean. Izena lehenbailehen ematea komeni da, eta horretarako Arlutz eta Artano tabernetara, kultur etxera edo kirol etxera joan beharko dute herritarrek otsailaren 19a baino lehen. Bazkariaren prezioa 10 euro da, baina 100 lagun eskatzen ditu Udalak egin ahal izateko. Hortaz, 100 lagunek baino gutxiagok emanez gero izena, bertan behera geratuko da bazkaria, eta txartela hartutakoei dirua itzuliko diete Kultura Saileko arduradunek. Horren berri izateko *www.aretxabaleta.com*-en sartu otsailaren 20tik aurrera.

> EKONOMIA

## 2006ko udal aurrekontuak aurkeztuko dituzte asteleheneko ezohiko osoko bilkuran

Astelehenean, otsailak 13, egingo duten ezohiko osoko bilkuran 2006ko udal aurrekontuak aurkeztuko dituzte. Gobernu batzordean eztabaidatu ondoren osoko bilkuran onartu beharko dituzte aurrera egin dezaten.

Ez da izango, baina, osoko bilkuraren gai bakarra. Urtarrilaren 9an atzeratu zuten osoko bilkurako gaiak ere sartuko dituzte oraingoan. Hizkuntz politikaren gaineko mozioa eta udal langileen lan hitzarmena eztabaidatuko dituzte, besteak beste, baita hirigintzako gaiak ere: Urvasco enpresaren zenbait ondasunen lagapena eta Aozaratza auzoan Udalak duen lursail bat errentan ematea onartu. Hala, 18:30ean hasiko da osoko bilkura.






**Ander Hernandez** > Ametzueta taldeko presidenteordea

# "Bazkideoi ez sufriarazteko eskatzen diogu Realari"

**M.A.** > ARETXABALETA

**Joan zen egubakoitzean aurkeztu zuten Realaren lagun taldea: Ametzueta Taldie. Ekitaldian Realeko zuzendaritza batzordeko kide batzuk eta Barkero, Lopez Rekarte eta Skoubo jokalariak izan ziren.**



Ametzueta taldeko batzordeko kideak, Realeko zuzendaritza batzordeko kide eta jokalariekin aurkezpen ekitaldian. M.A.

**Noizko kontua da lagun artea sortzea?**
Iazko denboraldian ikusi genuen talde bat sortzeko beste jende geundela herrian. 60 gara Realeko bazkideak, eta herritik bertatik autobusa antola zitekeela.

**Zenbat bazkide zarete taldean?**
140ren bueltan ibiliko gara, eta Athleticeko hiru ere badaude. Bazkide izateko Arlutzera joan eta izena eman besterik ez dago, 10 euro ordainduta.

**Anoetara doan autobusa zeinendako izaten da?**
Realak jarritako zerbitzua da partidurako sarrera duen edonork erabiltzeko. 40 eta 45 lagun artean joaten gara gehienetan.

**Badu helbururik taldeak?**
Helburua zen Realzaleok elkarrekin joatea partiduak ikustera eta autobusa herritik bertatik ateratzea. Aurrera begira kanpoko partiduren batera irteera antolatu gurako genuke.

**"Kanpoko partiduren batera irteera antolatu gura dugu; Osasunaren aurkakoa ikustera, beharbada"**

**Ez duzue hartu jokalari baten irudia, Barkerorena adibidez.**
Ez, gure erabakia izan zen ez pertsonalizatzea izen baten, jokalari horrek taldea utz dezakeelako.

**Nondik dator Ametzueta?**
Hiruatx eta Orkatzategi artean dagoen menditxoa da Ametzueta, eta Realeko bazkide zen lagun bati han eman genion agurra; haren omenez jarri dugu.

**Zer eskatuko zeniokete aurtengo denboraldian Realari?**
Bazkide eta zaleoi ez sufriaraztea horrenbesteraino.

## Ipuinak, antzerkiak-eta otsailean Pausokan

Amona Josefinaren ipuin txokoan mila eta bat abentura biziko dituzte Pausoka haur eskolako umeek. Ipuin kontaketa, antzerki, txotxongilo eta beste hainbat ekitaldirekin ipuinen munduarekin gozatzen hasiko dira etxeko txikienak. Basabeazpiko irakasle Vanessa Gonzalezek hasiko du hilabetea eguaztenean. Hala, kontalari profesionalak zein aitona-amona eta gurasoak batuko dira Amona Josefinaren txokoan.


M.A.

> ANTZERKIA

## Antzerki Astea Kurtzebarri eskolan datorren astean

Astelehenean, otsailak 13, hasi eta egubakoitzera bitartean Antzerki Astea egingo dute Kurtzebarri eskolan. Hizkuntza tailerretan landutako emanaldiak eskainiko dizkiete ikasleek gainerako ikaskide, guraso eta beste ikastetxe batzuetako ikasleei. Antzerkiak, txotxongiloak, bertsoak, dantzak eta beste hainbat ikuskizun egongo dira datorren asteko arratsaldeetan eskolan.

Urtero antolatzen duten astea da Antzerki Astea, baina aurtengoak badakar berrikuntzarik: ikasleak bakarrik ez dira lan egingo dutenak, irakasleek eurek ere antzerkia eskainiko diete ikasleei.



**AZPIEGITURAK** > TRANBIAREN PROIEKTUARI ALEGAZIOAK

# Udalerria tranbiaren lehenengo fasean sartzea eskatu du Udalak

Torrebasoko biribilgunea ez kentzeko eta geltoki bat jartzeko eskatu diote Jaurlaritzari

Gorosarrin aurreikusitako elektrizitate transformazio-gunea lekuz mugitu gura dute

Herri sarreran biaduktua egin beharrean, hobetsi dute tranbia lur azpitik igarotzea

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Bukatu da tranbiaren proiektuari alegazioak aurkezteko epea. Jaurlaritzak idatzitako proiektua kultura etxean egon da ikusgai, eta herritarrek eta Udalak denbora izan dute proiektua bera aztertu eta dagozkion aldaketak edo hobekuntzak jakinarazteko.

**TORREBASON ALDAKETAK**

Hala, Udaleko Hirigintza Sailak hainbat alegazio egin dizkio Jaurlaritzaren proiektuari. Batetik, eskatu dute tranbiak Torrebason (Ederlanen parean) geltoki bat izan dezala, hor dauden enpresak ere konektatuta egon daitezen.

Bestetik, Udalak Jaurlaritzari eskatu dio Torrebasoko biribilgunea bere horretan utz dezala. Proiektuaren arabera, biribilgune hori kendu eta Aretxabaleta inguruan beste bat jarriko dute. Udalak uste du Torrebasoko biribilguneak zerbitzu handia egiten duela, autoen abiadura txikitzen laguntzen duelako.

Bestalde, Udaleko Hirigintza Sailak gura du Eskoriatzako sarreran biadukturik ez egitea. Hala egitea pentsatuta dauka Jaurlaritzak, baina Udalak uste du hobe dela tranbia tramu horretan lur azpitik igarotzea, begiinpaktu txikiagoa egin dezan.

**TRANSFORMAZIO-GUNEA MUGITU**

Horrekin batera, Udalak badauzka herri barruko bigarren geltokian, Gorosarri plazan, egin beharreko hainbat aldaketa: batetik, plaza horren inguruko ibilbidea berrikustea eskatu dute, eta arduratuta daude espaloia zelan geldituko den.

Horrez gainera, eskatu dute elektrizitatearen transformaziogunea Gorosarri plazan kokatu beharrean Intxaurtxuetako belardi batera eramatea. Hala, gune hori etxebizitzetatik eta jende artetik urrunago jartzea lortuko dute.

Bestalde, pentsatu dute ideia ona dela tranbia Arana eta Aranburuzabala kaleetan barrena joan beharrean Santa Ana, Santa Marina eta Arbiñosteko inguruetatik igarotzea; Santa Marinako etxe berriak egiten dituztenean, hain zuzen ere.

**ESKORIATZA LEHENENGO FASEAN**

Udalaren beste alegazio bat, orokorragoa dena, honako hau da: eskatu dute tranbiak Eskoriatzan egingo duen ibilbidea lehenengo fasean sartzea: "Gure helburua da tranbia ahalik eta lasterren egitea, eta horregatik gurako genuke Eskoriatzari dagozkion lanak lehenengo fasean egitea", argitu zigun alkate Juan Carlos Bengoak.

Bestalde, alkateak jakinarazi digu partikularrek eta enpresek ere hainbat alegazio aurkeztu dituztela, baina haiek zuzenean jo dutela Jaurlaritzara.

Hemendik aurrera, Jaurlaritzak eskaera eta proposamenak aztertu, eta eskatzaileekin negoziatu beharko ditu.

KONTUAN HARTZEKO

### Gorosarri plaza izango da geltoki nagusia

Tranbiaren Eskoriatzako tramua proiektuaren bigarren fasean dago. Lehenengoan, berriz, Aretxabaleta eta Bergara artekoa egin gura dute.

Aretxabaletatik Eskoriatzara doan tranbiak bi lerro edo karril izango ditu Santa Ana eta Gorosarri plaza artera arte. Hori izango da herriko geltoki nagusia. Hortik aurrera, tranbiak lerro bakarra izango du udalerri osoan.

Gorosarri baino lehenago, herri sarreran autobideak biribilgunea izango du, eta Jaurlaritzaren asmoa da tranbia biaduktu baten bitartez biribilgunearen gainetik igotzea. Udalak, berriz, gurago du biaduktua ez egitea eta horren ordez tranbia lur azpitik igarotzea.

> APURKETAK

### Asteburuan apurketak egin dituzte udaletxean

Egubakoitz gau eta zapatu goiza bitartean hainbat apurketa egin zituzten udaletxean. Hain zuzen ere, ezezagun batzuek Udaleko aparejadorearen eta Gizarte Ongizate Saileko langileen bulegoetako kristalak apurtu zituzten asteburuan.

Udaltzaingoak jakinarazi du udaletxeko kristal bikoitzak eta leihoen markoak apurtu dituzten moduarengatik, suziriak edo petardo bortitzak erabili dituzten traza hartu diola.

Udaleko ordezkariek jakinarazi dute egindako apurketekin haserre daudela, eta ez dute errepikatzerik gura.

NAMASTE
bedardenda
Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA



IKER BARANDIARAN

## Aingeru Guarda ingurua txukunago jarri gura du Udalak

Udalak erabaki du Aingeru Guarda ermitaren inguruak txukuntzea. Lehenik eta behin, Gaztañadui auzoan Kuatruena inguruan egiten dabiltzan lanetatik lur ona eraman dute Aingeru Guardara.

Horren ostean, Udalak asmoa dauka ingurune horretan belarra landatzeko, eta, are gehiago, mahaiak eta iturri bat ere jartzeko. Hain zuzen ere, aisialdirako gune bilakatzeko. Horretarako, proiektu bat idatzi eta lan horiek adjudikatu beharko dituzte. "Aspaldi ingurune horretan herritarrak ibiltzen ziren, eta, txukunduz gero, jendeak hartuko du berriro hor ibiltzeko ohitura", azaldu digute zeregin horretan dabiltzan Udaleko ordezkariek.

Bestalde, hainbat herritarrek batzorde bat sortu dute. Talde horren asmoa da Aingeru Guarda ermita konpontzea, eta hori egiteko aukerak aztertzen dabiltza.

**Juan Carlos Bengoa** > Alkatea

# "Industriaren ekimenaz gain, zerbitzuen arloa ere bultzatu gura dugu herrian"

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

**Juan Carlos Bengoa 2003a ezkero da alkate. Aurretik EAko eta Elizateetako ordezkari ere izan zen hurrenez hurren. Udaleko eta herriko gai garrantzitsuenak izan ditu berbagai.**



Juan Carlos Bengoa alkatea pozik dago azken bi urteotan Udalak abian jarri dituen egitasmoekin. IKER BARANDIARAN

**Zer balantze egiten duzu 2005. urteaz?**

Balantze oso ona, azken urteotan sekula ez dena lortu Udalean 2005ean lortu dugulako; hau da, aurrekontuetan aurreikusitako ekimen eta batez ere inbertsio guztiak 2005aren bukaerarako abian zeuden. Udal batzorde eta talde politikoetako zinegotziok zoriontzeko moduan gaude horretarako ahaleginak egin ditugulako, kudeaketa azkarra egitea izan delako gure helburua. Besteak beste, honakoak aipatu gura nituzke, nahiz eta batzuk bukatu barik dauden: Santa Ana auzoko urbanizazioa, hiriberritze planean 100.000 euro gastatzea, elizateetarako telebista eta wi-fi seinalea, haurtzaindegia, ludoteka, musika eskola, helduen hezkuntzarako lokala, gazteleku zerbitzua...

**Zer helburu nagusi dituzue 2006rako?**

Aurtengo aurrekontuak onartu barik ditugun arren, Dorleta auzoko berrurbanizazioa esleituta dago. 1.700.000 euro inguruko inbertsioa da eta hilaren bukaeran hastea gura dugu. Horrez gainera, Santa Marinako etxebizitza tasatuak eta urbanizazio lana Visesari adjudikatu dizkiogu, eta lanak hastear daude. Hirigintzari dagokionez, asmoa da Aingeru Guardako industria-gunea ere abiaraztea. Bestalde, 2005ean hasitako zerbitzu eta inbertsioak bukatzea gura dugu.

**Izartu programarekin hainbat hitzarmen dituzue. Zelan doaz lan horiek?**

Programak 2004 eta 2008 bitarteko epea du. Orain arte lur azpiko edukiontziak jarri ditugu. Aurten Dorleta urbanizatu behar dugu; 2007an trenbide zaharra errekuperatuko dugu eta saihesbidean pantaila akustikoak jarriko ditugu; eta 2008an Aranburuzabala berrituko dugu. 1.200.000 euroko dirulaguntza daukagu, baina behar dugun inbertsioa 3.700.000 euro da, eta hori zama handia da Udalarendako. Beste inbertsio batzuk ere egin gura ditugunez, eta Izartuk horretarako aukera ematen digunez, lan horien guztien bukaera 2010ean finkatu dugu. Horrez gain, kontuan hartu beharra dago Aranburuzabala kalea berritzeko lanetan tranbiaren proiektuak ere eragingo duela.

**"Izarturekin hitzartuta dauzkagun lanen bukaera 2010ean finkatu dugu"**

**"Gure betebeharra da autobidearen gainean herrian dauden kezkak kontuan hartzea"**

**Turismoa bultzatzeko ahalegin berezia egiten diharduzue, Eskoriatza ibarreko bigarren erreferente bilakatu guran...**

Industriaren ekimenaz gain, beste aukera batzuk sortu gura ditugu zerbitzu arloetan. Horretarako legegintzaldi hasieran Kultura Ondarea eta Turismoa batzeko azpibatzordea sortu genuen. Herriak inguruak eta ondare kulturala ditu eskaintzeko. Horregatik, Ibarraundi museoan ondarea jaso eta zabaltzeaz gain, turismo bulegoa zabaldu gura dugu. Bestalde, Mendigoia hotelak eta erdigunean egingo duten beste batek aisialdia erakartzen lagunduko dute.

**"Kontzejupe udal batzordeetan dago, baina Alderdien Legea atzera bota behar da"**

**"Kultura ondarea eta inguruak ditugu eskaintzeko. Turismo bulegoa jarri gura dugu"**

**Udalak eta herriak aspaldian duten burukomin handienetako bat da autobidea...**

Bai. Orain arte Udalak egin dituen alegazioak eta hartutako erabakiak ez dira autobidearen kontrakoak izan, autobideak dakarren kalteak txikitzeko baizik. Bidegirekin eta Diputazioarekin etendako harremanak berreskuratzeko ahaleginetan gabiltza, nahiz eta guri iruditu batzarrak egitea eurei asko kostatzen zaiela. Administrazioaren betebeharra da herritarren kezkak kontuan hartzea, eta horretan jarraituko dugu.

**Zer deritzozu Kontzejupe eta ezker abertzalearen ordezkaritza ukapenari?**

Hurrengo udal hauteskundeetarako ordezkapen zuzena edukitzea gura dugu. Orain batzordeetan esku hartzen dute baina ezin da arazoa luzatu. Alderdiei eskatzen diet, batez ere lege hori onartu zutenei, ahaleginak egin ditzatela egoera normalizatzeko.



**Txalaparta**
taberna
Aranburuzabala 26 • ESKORIATZA
TEL.: 943 71 50 46



**LEHENDAKARIAREKIN** batera Pilar Aranguren, Luis Mari Jauregi, Begoña Lete eta Lourdes Arregi. J.A. ARBULU

**GIZARTEA** > ODOL EMAILEEI SARIAK

# Herriko lau odol emailek saria jaso dute Ibarretxeren eskutik

EAE osoko 160 bat odol emailek jaso zituzten sariak Lehendakaritzako ekitaldian

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Urtarrilaren 24an, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik saria jaso zuten herriko lau odol emailek Gasteizen, Lehendakaritzaren egoitzan. Ohorezko Odol Emaile saria da, hain zuzen ere, antzuolarroi eman dietena. Luis Mari Jauregiri, 75 bider baino gehiagotan eman duelako odola; Pilar Aranguren, Begoña Lete eta Lourdes Arregiri, berriz, sari hori eman diete, 60 bider baino gehiagotan eman dutelako odola.

Lehendakariarekin batera, Gabriel Inclan Osasun sailburuak parte hartu zuen ekitaldian; izan ere, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eman ditu sariok. Sari horiek ematen dituzten lehen aldia da aurtengoa eta badirudi aurrerantzean ekimen horrekin jarraituko dutela.

Euskal Autonomia Erkidego osoko 160 bat lagun saritu zituzten ekitaldian. Horietako batzuk Urrezko Tanta saria jaso zuten, 100 edo 80 bider odola eman dutenek, hain justu.

**HERRIAN 100 ODOL EMAILE**

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak eman dizkigun datuen arabera, 100 odol emaile dago Antzuolan; horietatik 60 gizonezkoak dira eta 40 emakumezkoak.

Urtean hiru aldiz etortzen dira Donostiatik antzuolarrei odola ateratzera, eta aldiko, batez beste, 70 odol ateratze egiten dituzte. Kontuan hartu behar dugu emakumeek urtean hiru aldiz eta gizonezkoek lau aldiz eman dezaketela odola.

Adin guztietako emaileak daude, baina gehientsuenak dira 40 eta 50 urte bitartekoak. Gazte gehiago behar dituzte, odol emateak etorkizuna izan dezan.

Esan bezala, urtean hiru odol ateraldi egiten dituzte Antzuolan; otsailaren 2an izan zen aurtengo lehendabizikoa, eta beste bi egunak ere zehaztuta daude: maiatzaren 25ean izango da hurrengoa, eta irailaren 28an. Azkeneko urteotan Olaran etxean izaten dute hitzordua odol emaileek.

> ANELKAR

### Santa Ageda eskean 550 euro batu zituen abesbatzak

Antzuolako abesbatzak 550 euro batu zituen Santa Ageda eskean, aurreko asteko zapatuan. Aurreratu genizuen moduan, Anelkarren proiektuendako zen batutako dirua, eta halaxe izan da. 550 euro batu zituzten, guztira. 55 lagun ibili ziren kantuan, baita gaztetxoak ere.

> HIRIGINTZA

### Ibarreko jolasparkea esleitu du Udalak

Ibarre auzoko urbanizazio lanen barruan, umeendako jolasparkea egingo dute. Aurreko asteko osoko bilkuran erabaki zuten jolasparkea Lurkoi enpresak hornituko duela, 20.653 euroko aurrekontuarekin. Eskaintza berritzailea egin du Lurkoi enpresak.

> ELKARTASUNA

### Arantxa Gurmendik Sahararen gainean berba egingo du

Anelkar elkartasun taldeak antolatuta, Arantxa Gurmendi aktore ezaguna izango dugu herrian martitzenean, otsailaren 14an, 19:00etan, Olaranen. Saharan grabatutako *Basamortuko Irribarreak* izeneko bideoa erakutsiko digu eta Saharan berak bizi izandako esperientziaren gainean berba egingo digu. Jendea kontzientziatzea da ekitaldiaren helburua.



Arantxa Gurmendi aktorea.

**bere ustez**



Joseba Lezeta

## San Balendin, urteko egunik handiena

Datorren martitzena da urteko egunik handiena. Zoratu egin naizela esango du batek baino gehiagok. Nik diruak uste dut, baina maitasunak mugitzen ei ditu munduaren hariak. Orduan zalantzarik ez luke behar. Maitasunak munduko hari guztiak mugitu eta San Balendin egutegian gorriz agertu ez, astegun buruzuria izan?

Benetan mugitzen baditu munduko hariok, Egubakoitz Santua edota Gabon Eguna gutxiago izango dira San Balendin eguna baino. Zer esanik ez ditxosozko Konstituzio Eguna, baita Aberri Eguna bera ere.

**"Maitasunak hari guztiak mugitzen ditu eta San Balendin astegun buruzuria?"**

Antzinako euskaldunak finegiak ziren, horratio: Aberri Eguna asmatu eta domekan jarri. Oraingook asmatu izan bagenu, eguenean ospatuko litzateke, zubi eta guzti. Edota martitzenean, asteburu bat ahalik eta gehien luzatzeko.

Mutilzahar bat ez da aproposena San Balendin egunaz jarduteko. Ospatzen ez dudalako, batez ere, zentimorik gastatuko ez dudalako, batik bat. Egun horrek jai izan behar lukeela nik eskatzeak neuri ematen dit barregura. Baina ez uste maitasunak ardura ez digunik, kontrakoa eman arren.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1. solairua, ANTZUOLA. Tel. 943 76 60 89

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



**UZTAILERA BITARTEAN**, bi mendi bizikleta irteera antolatu ditu Egokik: Garaiora eta Leitzaranera. Argazkian, Besaidera egindako irteera ikus daiteke. GOIENKARIA

**KIROLA** > KIROL JARDUERAK SUSTATZEKO ETA KOORDINATZEKO TALDEA

# Herrian kirola sustatzeko Egoki izeneko taldea aurkeztuko dute

Kirol eskaintza bateratua osatzea da taldearen helburuetariko bat

Kirol-zaleen proposamenak jasotzeko gertu daude Egoki taldekoak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

Herrian kirola bultzatzeko eta kirol jarduerak koordinatzeko taldea aurkeztuko dute datorren eguaztenean. 2005eko ekainean hasi ziren lanean eta dagoeneko zenbait jarduera antolatu ditutzte; arrakasta handiz antolatu ere. Udaleko Kirol teknikari Oskar Carrascalek esan digunez, "orain arteko ekintzen balorazioa oso ona da. Izan ere, jende askok hartu du parte. Horrek animatu gaitu talde-lanean datozen hilabeteetarako programa osatzera. Gerora ikusiko da gure lanak zein emaitza jasotzen dituen".

Egoki (Elgetan Gozatu Kirolaz) da taldearen izena eta elkarteak zein norbanakoak elkartzen dira taldearen baitan. Orain arteko bilerak kontuan hartuta lantaldean zortzi edo hamar lagunek dihardute. Ozkarbi pilota elkarteko, txirrindulari elkarteko eta guraso elkarteko ordezkariez gain, kirola egitea gustuko duten zenbait elgetar daude taldean. Gainera, Udalaren laguntza ere badute. Udaleko Kirol teknikari Oskar Carrascalek administrazio eta idazkari lanak egiten ditu Egoki taldean; bestalde, Udalak laguntzak emango ditu kirol ekintzak betetzeko.

**HELBURUA**

Taldearen helburu nagusia da herrian egitura egonkorra izatea kirol ekimenak eta jarduerak zein kirola sustatzeko programak koordinatzeko. Bide batez, baita kirol eskaintza bateratua osatzeko ere.

Talde horrek irekia izan nahi du, "Elgetako kirol eta kultura elkarteak eta oro har kirol jarduerekin harremana duten eragileak batu nahi ditu", adierazi digu Oskar Carrascalek. Haren esanetan, "herrian kirola esparru askotan garatzeko eta dinamizatzeko xedea duen taldea da Egoki".

**PROGRAMA**

Taldeko partaideen eta herritarren eskaerak kontuan hartu eta ahalik eta programa egokiena gertatuko dute Egokikoek. Herrian betidanik antolatu izan diren kirol ekintzek lekua izango dute programan. Horietaz gain, norbanakoen gustuen arabera kirola praktikatzeko espazioak sortu nahi dituzte, ekintza zehatzak antolatuz. Kirol arruntak zein bereziak izan daitezke hauek eta "proposamenak jasotzeko gertu eta erabat zabalik gaude", esan digu Carrascalek.

Datozen hilabeteetarako jadanik antolatu dituzte zenbait kirol ekintza. Mendi irteerak oinez zein bizikletaz egingo dituzte eta adin tarte bakoitzerako egokitutako ibilbideak gertatuko dituzte; pilota txapelketak ere egingo dira, besteak beste, pilotaleku berritua inauguratzeko; eta txirrindulari lasterketa edo bolo txapelketa ere izango dira.

Herritarren partaidetza ezinbestekoa da, baina partaideek eurek erabakitzen dute zenbaterainoko konpromisoa eta ardura hartzen duten.

## Kirol egitasmoak

| | NON | NOIZ |
|---|---|---|
| Mendiko eski irteera | Pirinioak (Midi) | Otsailak 11 |
| Mendi irteera | Aizkorri | Martxoak 5 |
| Mendi bizikleta irteera | Garaio (Araba) | Martxoak 19 |
| Pilota txapelketa | Udal Pilotalekua | Martxoak 24-26 |
| Bolo txapelketa | Bolatokia | Martxoa-apirila |
| Areto futbol txapelketa | Kiroldegiko kantxa | Martxoa-ekaina |
| Mendi irteera | Pirinioak | Maiatza-ekaina |
| Mendi bizikleta irteera | Leitzaran | Ekainak 11 |
| Lau t'erdiko pilota txapelketa | Udal Pilotalekua | Apirila-uztaila |
| Hiru txirlo bolo txapelketa | Bolatokia | Maiatza-ekaina |
| Txirrindularitza: Mendi criteriuma | | Ekaina |
| Txirrindularitza: Argazki erakusketa | | Apirila-maiatza |
| Paleta txapelketa | Udal Pilotalekua | Urria-abendua |

> INFORMATIKA

### Otsailaren 15ean mintegia izango da KZgunean

*Postal bat bidal ezazu* izenburupean 18:00etatik 19:00etara bitartean izango da saioa. Irakaslea 16:30etik 20:00etara bitartean egongo da KZgunean erabiltzaileen zalantzak argitzeko. Hurrengo ikastaroa posta elektronikoari buruzkoa izango da, martxoaren 1ean, hain zuzen ere.

> HEZKUNTZA

### Otsailaren 17ra arte eman daiteke izena Herri Eskolan

Herri Eskolan abian da aurrematrikulazio kanpaina. 2 urtekoen gelan hasi nahi dutenek bi argazki, familia liburuaren fotokopia eta izenemate orria aurkeztu behar dituzte eskolan bertan. 05-06 ikasturtean 2 urtekoen gelan ibili direnek, berriz, aurrematrikulazio orria baino ez.

> KOMUNIKABIDEAK

### Goiena Telebista berriz ikus daiteke, arazoak konponduta

Goiena Telebistako seinalearen hedapenean izandako arazoak aste honetan konpondu dituzte. Hemendik aurrera, beraz, lehenago bezala, elgetarrek UHF-50 frekuentzian aurkituko dute Goiena Telebista. Lehen GOITB sintonizatua zutenek ez dute berriz egin beharrik izango.

> ERAKUSKETA

### Karikaturak ipini dituzte ikusgai Espaloian

Espaloian egitekoak ziren Maria Dolores Lonbideren erakusketa atzeratu egin dute. Horren ordez, karikaturak ipini dituzte ikusgai. Bilboko bi karikatura-egileren lanak dira; eta otsailaren 25ean Espaloian izango dira karikaturak egiten.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE
RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es
AENOR
ER
Empresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

**TEKNOLOGIA** > ARAMAIOREN GAINEKO BLOG BERRIA

# Aramaioren gaineko informazioa batzen duen blog berria zabaldu dute

Aurreneko aldiz, aramaioar batek bloga zabaldu du 'Goiena.net'-i esker

Jesus Mari Elejalderena da bloga; helbidea, berriz, honako hau: 'Goiena.net/blogak/elejalde'

**UBANE MADERA** > ARAMAIO
Jesus Mari Elejalde Azkoaga auzoko ertzean dagoen Salturralde baserrian bizi da. Artisaua da izatez; hain zuzen ere, egurra lantzen du. Hala, bere lanbideari irteera hobea emateko helburuarekin zabaldu du atari berria Interneten. Halaxe azaldu digu berak: "Gura nuen jendeari ni ezagutzeko bidea eman. Ona izaten da jendeak artisauaren berri izatea: bere kezkak zeintzuk diren… Ezagutuz gero, badakielako zein lan mota egiten dituen… Izan ere, artisauak gara asko eta bakoitzak egiten du bere arte mota; artisautza sentimenduekin lotuta dago, azken batean. Bakoitzak dituen sentimenduak eta artisau moduan zelakoa den jakinda, jendeak badaki zelako lan motak egiten dituen. Eta nik horixe egin dut blogean: ezagutu dezan jendeak zela izan den nire artisau jaiotzea, bilakaera, zer dakiten egiten…"

**ARAMAIOKO ERAKUSLEIHOA**
Baina egur langintzaren erakusleihoa baino gehiago da Elejaldek zabaldu duen bloga: "Blogak aukera asko ematen dituenez, bide batez, nik nire jaioterriaren gaineko informazioa ere sartu dut. Sentitzen dudalako herriarengatik zerbait egin behar dudala. Badut, baita ere, lehengo zuztarrak gordetzeko kezka. Blogean ikusten den moduan, esaterako, baserrian ahalegindu naiz gauzak lehen zeuden moduan ipintzen: landatu ditut haritzak, gaztainondoak, pagoak…Hala, blogean Aramaion erabiltzen diren antzinako berba batzuk ere ipini ditut, gure zuztarretan daudelako eta ez direlako galdu behar; gainera, jende askok ez ditu ezagutzen".

Bloga lantzen hasi zenean, zalantza asko sortu zitzaizkiola kontatu digu Elejaldek. Baina egiten joan den neurrian beldur horiek uxatu egin zaizkiola.

**TRESNA BALIAGARRIA**
Halaber, gaineratu digu bere ustez oso tresna baliagarriak direla blogak: "Oso aberasgarria da, eta ez niretako bakarrik; jendeari informazioa transmititzeko bide oso egokia da. Gainera, uste dut ona dela gauza berriak jakitea. Askok ez dute gustuko izango, gauza berriekin gertatzen den moduan, baina informazio gehiago emanez gero, uste dut jendea joango dela ohitzen. Gainera, lekutik bertatik atera barik kanpora begira eremu gehiago har ditzaket. Esaterako, orain arte nire lanak saltzeko bide bakarra azoketara joatea zen, orain, bloga ere badut".




**SALTURRALDE** baserrian bizi da Jesus Mari Elejalde eta baserriaren ondoan duen etxetxo batean egokitu du lantegia egurra lantzeko; argazkian, etxean dituen zenbait lan erakusten. GOIENKARIA

**HEZKUNTZA** > AURRE-MATRIKULAZIO KANPAINA

## Datorren barikua, hilak 17, da San Martin Eskolan izena emateko azkeneko eguna

**U.M.** > ARAMAIO
San Martin Eskolan joan den astean zabaldu zuten aurrematrikulazioa egiteko epea eta datorren barikuan bukatuko da. 2 eta 3 urteko umeen gurasoendako deia da; edo bestela esanda, 2004an jaiotako umeen gurasoendako. Izena emateko eraman behar da eskolara familia liburuaren fotokopia. Gero, eskolan dagoen inprimakia bete behar da. Informazio gehiago behar duenak eskolara dei dezake edo hara joan, honako ordutegian: 09:00etatik 13:00ak arte, goizez eta 14:00etatik 16:00ak arte, arratsaldez.

Gaur egun 120 neska-mutiko eta 17 irakasle ditu San Martin Eskolak. Zerbitzuei dagokienez, berriz, doako garraioa eskaintzen du Aramaioko auzoetatik eskolara joateko; jangela ere badu eta txikienek siesta egiteko gela ere bai, besteak beste.

**IBARRAUNDI MUSEORA**
Bestalde, eskolatik jakinarazi digutenez, gaur, barikua, Eskoriatzako Ibarraundi museora irteera egitekotan ziren 3. eta 4. mailetako ikasleak.

> NATURA

## Inausketa eta txertaketa ikastaroa bete-beteta izango da

Joan den barikuan, hilak 3, bukatu zen inausketa eta txertaketa ikastaroan izena emateko epea. Udaletik jakinarazi digutenez, bete-bete egin da ikastaroa; ezarritako 15 leku baino gehiagorako eman dute izena, aramaioarrek zein Aramaiotik kanpo bizi direnek. Hala, bihar zortzi (hilaren 18an) hasi egingo da. Mendikoi erakundeko Aitor Etxeandia irakaslea izango da gidaria.

> GIZARTEA

## Aurtengo udan saharar umeak hartzeko dei egin du Udalak

Euskadiko Fronte Polisarioaren ordezkaritzak Oporrak Bakean 2006 egitasmoa aurkeztu dio Udalari. Proposamena da aurten 470 ume saharar ekartzea uztailaren 6tik irailaren 6ra bitartean. Hala, Aramaioko norbaitek nahi badu umeren bat etxean hartu, udal bulegoetara jo beharko du martxoaren 29a baino lehen.

Udalak bere gain hartuko du umearen bidaiaren gastua.

**GARRAIOBIDEAK** > AUTOBUS ZERBITZUA

# Garraio zerbitzuaren gaineko iritzia jakinaraziko diote Aldundiari herritarrek

Osoko bilkuran esan zioten ezetza garraio zerbitzuari herritarrek, eta orain, idatzi baten bitartez Aldundiari jakinaraziko diote; herritarren sinadurak ere jasoko dituzte


**OSOKO BILKURAN** herritarrak haserre azaldu ziren garraioaren arazoari Aldundiak emandako M.A.

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Idatzia egingo du egunotan Garraio batzordeak herritarrek sina dezaten. Aldundiak jarritako garraio zerbitzuari ezetza emango dion idatzia izango da, eta ondoren alkateari emango diote bitartekari lanak eginez Aldundiko ordezkariari eman diezaion. Hain zuzen, joan zen egubakoitzean zen elkartzekoa Joxerra Perez alkatea Kote Olaizola Garraio zuzendariarekin, baina atzeratu egin zuten bilera. Batzordeko kideek Udalari ere egin gura diote eskaera: argi eta garbi azal dezala bere iritzia.

Garraio zerbitzuaren gaineko iritzia jasotzeko osoko bilkura egin zuen joan zen astean udalbatzarrak. 25 lagunetik gora elkartu ziren, eta oso haserre azaldu ziren guztiak ere. Garraio publikoa eskatu zuten Garraio batzordeko ordezkariek, hau da, Eibar-Gasteiz ibilbidean sartzea eta Eskoriatzara datozen autobusen erdia Gatzagaraino heltzea; baita aste bukaeretako gautxoria ere. Hainbat guraso, gainera, haserre zeuden Almen ikastolara doan autobusean ikasleak ez direnak sartzeko aukera eman dutelako, eta horren aurka egingo dutela jakinarazi zuten. Udalari esan zioten ezetza emateko Aldundiak jarritakoari.

> INTERNET

### Ikastaroak daude KZgunean hilaren 13an eta 27an

Datorren astelehenean, otsailak 13, eta handik bi astera, otsailak 27, ikastaroak egongo dira KZgunean. Aitor Madrid irakaslea hurreratuko da eskolak ematera, eta oraindik lekua dago bietan izena emateko. Astelehenean Adobe Acrobat Reader programa zela erabili erakutsiko die hurreratutakoei; hilaren 27an, ostera, etxetik erosteko zer egin behar duten azalduko die. Ikastaro biak 18:00etatik 20:00etara izango dira, baina KZgunea 16:00etan zabalduko du Aitorrek.

> ZERGAK

### Ura, estolderia eta zaborraren zergak kobratuko dituzte

2005eko laugarren hiruhilabeteari dagozkion zergak kobratzen hasi da Udaleko Kontu Hartzailetza Saila. Zaborra jaso, garraiatu eta tratatzeagatik kobratzen dutena martxoaren 8a baino lehen ordaindu behar dute herritarrek, eta ura eta estolderiari dagokiona martxoaren 17a baino lehen.


06-07 ikasturterako matrikula epea zabalik
otsailaren 6tik 17ra
Jose Arana
Udal Haur Eskolan (0-3 urte)
Aranburuzabala, 1 • 943 71 31 58
Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.
eskoriatzako udala
Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

**ATLETISMOA** > JONATHAN PEREZ PERTIKA-JAUZILARIA

# "Bazen garaia bost metroak gainditzeko, ametsa bete dut"

Marka horren atzetik hiru urte ibili eta gero, zapatuan gainditu zuen Anoetan

Zortzi urte igaro dira Euskal Herriko beste atleta batek jauzi hori egin zuenetik



BOST METRO, Estatuan bosgarren eta eskuan bost atzamar, jauzi egindako metro bakoitzaren erakusle. XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Bete du ametsa, hainbat urte marka hori helburu izan eta gero. Jonathan Perezek joan den zapatuan egin zuen Euskadiko pista estaliko txapelketan bost metroko jauzia. Atzean geratu dira ehunka entrenamendu saio, ehunka bidaia eta lesio bat baino gehiago. Zapatuan Arrasateko atletak txalo zaparrada beroa jaso zuen Anoetako harmailatik, eta baita Realeko kideen berotasuna igarri ere. Guztien artean gehien poztu zena, baina, Arrasateko taldeko entrenatzaile Fernando Zufiria *Txufi* izan zen: "Txapela ere bota zidan, ni baino gehiago poztu zen bera". Ez da gutxiagorako, urteak igaro dira-eta Fernandok mutil koskor hari pertikako modalitatea erakusten hasi zenetik: "Automobila gidatzeko baimena izan arte, Fernandok eramaten ninduen Anoetara, entrenatzera".

**PERTIKA GOGORRAGOAREKIN**

Ez da lehenengo aldia Jonathanek bost metroko jauzia egiten duena: "Entrenamenduetan askotan egin dut jauzi hori, baina txapelketa ofizialean egin behar da hori, bestela ez du balio".

Zapatuko jauziaren gainean egin digu berba Realeko atletak: "Lehenengo saiakeran erraz gainditu nituen 4,80 metro. Bigarren jauzirako, berriz, 4,91 metrotan jarri nuen listoia. Kontua da atleta mordoa daudela 4,90 metroko markarekin, eta zentimetro bat gehitzea erabaki nuen, sailkapenean jauzi nabarmena egiteko. Eta, hainbat kale egin eta gero lortu nuen listoi hori ere gainditzea. Hala, bost metroko jauzirako Jon Karla entrenatzaileak (Euskadiko errekorra du: 5,30 metro) esan zidan pertika aldatzeko. Aukeratutako pertika gogorragoa zen; gaitza da pertika hori menderatzea, beste teknika bat erabili behar delako; kolpe gogorra ematen du, gainera. Ez nuen jauzi ona egin, baina bost metroak gainditu nituen. Saltoa ondo eginez gero, pertika horrekin 5,10 metroko marka ere gaindituko nuke, baina... errespetua ematen du".

Marka hori izango du hurrengo helburu; izan ere, 24 urterekin Arrasatekoak progresio handia egin dezake oraindik: "Pena da ezin naizela nik gura moduan entrenatu. Astean sei egunetan entrenatzen naiz, baina behin bakarrik joaten naiz Anoetara, teknika lantzera. Estatuan nire mailan dauden atletak kirol etxeetan ibiltzen dira, baina horrek ere motibatu egiten nau: Arrasaten baliabiderik izan barik ere aurrealdean gabiltzalako".

**"Pertika gogorrarekin 5,10 metroko jauzia egin dezaket, baina... errespetua ematen du"**

**"Motibatu egiten nau Arrasaten baliabiderik izan barik Estatuan aurrean ibiltzea"**

## Estatuan bosgarren jauzilari onena da orain Jonathan

Realeko atletak zapatuan egindako markarekin jauzi handia egin du sailkapenean, Estatuko bosgarren jauzilari onena da-eta orain. Horrez gainera, meritu bikoitza du herrian pertika-jauzia egiteko aukerarik izan barik iritsi den lekura iristea. Eta ez da bakarra izango, entrenatzaile lanetan ere badabilelako eta esperantza handia duelako Lander Errasti gaztearengan. Harekin batera, Jonathanen esanetan itxura politean dabiltza Maialen Axpe, Lore Mar eta Lide Pagaldai.

> ATLETISMOA

### Lander Errasti, Espainiako Txapelketan

Arrasateko pertika-jauzilari gaztea Zaragozan izango da asteburuan, Espainiako Txapelketan. Jonathan Perezen ardurapean dagoen atletak 4,20 metroko marka du aurten eta marka hori hobetzea izango du helburu. Otsailaren 25ean izango da Donostian txapelketa absolutua.

> PILOTA

### Emakumeen artean pilota sustatzeko hitzarmena

Arrasateko Udalak hitzarmena egin du Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioarekin. Hitzarmenaren helburua da pilota emakumeen artean sustatzea, bai eskolan, bai aisialdian eta baita maila federatuan ere. Egitasmo hori bideratzeko 2.000 euro erabiliko dituzte.

> FUTBOLA

### Aretxabaletak eta Mondrak jokatuko dute etxean

Oraingo asteburuan Aloña Mendi izango da etxetik kanpo jokatuko duen ibarreko taldea. Liderrak Zestoan jokatuko du.

Mondrak eta Aretxabaletak, berriz, atzealdean dabiltzan taldeen bisita izango dute: Mondrak Beti Gazterena eta UDAk Oriokorena.

> IKASTAROAK

### Urpekaritzako eta uretako sorospeneko ikastaroak Arrasaten

Aukea kirol etxeak bi ikastaro jarriko ditu abian martxoan: lehena urpekaritzaren gainekoa izango da eta bigarrena uretako sorospenekoa. Urpekaritzakoan hamasei lagunendako tokia egongo da. Izena emateko edo informazio gehiago izateko, zenbaki honetara deitu: 943 77 16 77.

ION LEIHOAK
P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA
• LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK • ZOLUAK
K21


20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: **943 79 11 35** Faxa: **943 77 31 20**
01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: **945 26 71 73**
**Posta elektronikoa: ion.a.@euskalnet.net • www.ventaion.com**

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Euskadiko gazteen liga**
Aloña Mendi - Elgoibar.
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**Preferente maila**
Aretxabaleta - Orioko
Domeka. 16:30. Ibarra.

Mondra - Beti Gazte
Domeka. 16:00. Atxabalpe.

Zestoa - Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Zestoa.

Aretxabaleta - Idiazabal
Eguaztena, hilak 15. 19:00.
Ibarra (atzeratutakoa).

**Lehen erregionala**
Astig. Mundarro - Bergara
Zapatua. 16:15. Astigarraga.

**Bigarren erregionala**
Munibe - Aretxabaleta
Domeka. 18:30. Berio.

**Ohorezko mailako gazteak**
Zarautz - Mondra
Zapatua. 16:30. Zarautz.

Bergara - Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Ipintza.

**Lehen mailako gazteak**
Union Txiki - Bergara.
Zapatua. 12:00. Errenteria.

Arizmendi Aretx. - San Inazio
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Antzuola - Oiartzun
Zapatua. 16:00. Antzuola.

**Bigarren mailako gazteak**
Arrasate - Beasain
Zapatua. 16:00. Atxabalpe,

**Ohorezko mailako kadeteak**
Sporting H. - Aloña Mendi
Domeka. 14:00. Herrera.

Tolosa - Bergara
Zapatua. 12:30. Tolosa.

**Lehen mailako kadeteak**
Elgoibar - Arrasate.
Zapatua. 12:00. Mintxeta.

Mutriku - Arizmendi Aretx.
Zapatua. 11:00. Mutriku.

**Bigarren mailako kadeteak**
Arizmendi Aretx. - Billabona
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Bergara - Behobia
Domeka. 11:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako infantilak**
Aloña Mendi - Reala
Eguaztena, hilak 15, 18:00.
Ibarra.

Aloña Mendi - Real Union
Zapatua. 11:30. Ibarra.

Arizmendi Are. - Lagun Onak
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Lehen mailako infantilak**
Arrasate - Lazkao
Domeka. 12:00. Atxabalpe.

Bergara - Hondarribia.
Zapatua. 11:30. Ipintza.

**Infantil txikiak**
Añorga - Arizmendi Aretx.
Domeka. 10:00. Rezola.

**Emakumezkoen Liga, igoera fasea, 1. taldea**
Zarautz - Arizmendi Aretx.
Domeka. 11:00. Zarautz.

Bergara-Real Union
Domeka. 16:00. Ipintza.

**Emakumezkoen Liga, igoera fasea, 2. taldea**
Lagun Onak - Mondra
Domeka. 11:30. Azpeitia.

**Emakumezkoak, Kopa**
Aloña Mendi - Urki
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Emakumezkoak, F8 kadete maila**
Arizmendi Are. - Lagun Onak
Zapatua. 09:30. Almen.

Urki - Bergara
Zapatua. 10:30. Unbe.

Elgoibar - Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Mintxeta.

### ARETO FUTBOLA

**Nazional B maila**
Eskoriatza - Zierbena.
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

**Euskadiko lehen maila**
Aloña Mendi - Bar Pari-Ber.
Gaur. 22:30. Zubikoa.

**Gazte maila**
Eskoriatza - C. Comverters
Domeka. 11:00. Intxaurtxu.

### SASKIBALOIA

**Lehen maila**
Mugarri Alk. - Ocaso Berrio
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Gipuzkoako ligako senior maila (gizonezkoak)**
Aloña Mendi - Candy Berg.
Zapatua. 19:15. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)**
Aloña Mendi - Añorga
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako gazte maila (gizonezkoak)**
Araneta - Mugarri Alkesa
Zapatua. 19:15. Labegaraiet.

La Salle - Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Salle ikastet.

**Gipuzkoako ligako gazte maila (emakumezkoak)**
Aldapeta - Eskoriatza
Domeka. 12:00. Donostia.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)**
Mugarri Alkesa - Goierri
Zapatua. 10:00. Musakola.

La Salle - Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Salle ikastet.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko kadete maila (emakumezkoak)**
Leizaran - Verkol Aloña
Zapatua. 17:30. Andoain.

**Lehen maila territoriala**
Arrikrutz Oñati - Urnietako
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
(Atzeratutakoa).

Hondarribia - Bergara
Domeka. 10:00. Hondartza.

Arrikrutz Oñati - Urola
Domeka. 12:15. Zubikoa.

Ford Mugarri Arr. - Elgoibar
Zapatua. 17:30. Musakola.

**Bigarren maila territoriala**
Hegialde Auto - Arrasate
Domeka. 11:30. Legazpi.

**Gazte maila**
Leizaran - Bergara
Zapatua. 16:00. Andoain.

Urola - Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Zumarraga.

**Gazte maila neskak, Udaberri txapelketa**
Urola - Arrasate
Domeka. 10:00. Zumarraga.

Bergara - Zarautz
Zapatua. 17:45. Labegaraie.

### ERRUGBIA

**Euskal ligako senior maila**
Mungia - Arrasate
Zapatua. 16:00. Mungia.

**Gazte maila**
Bera Bera - Arrasate
Zapatua. 15:15. Donostia.

### PILOTA

**Eskuz Binako Txapelketa**
Olaizola II.a eta Zearra - Xala eta Goñi III.a
Domeka. 17:00. Udal Pilotalekuan.

**Bergaran, Udaberri Txapelketa, gazte maila**
Bergara - Urnieta
Gaur. 20:00. Udal Pilotalek.

**Bergaran, Eskola Mailako Udaberri Txapelketa**
Gaur. 19:15. Alebin eta infantil mailetako hiru partidu.

**Eskualdeko infantil mailako finalerdiak**
Zapatua, 17:00, Bergara.

**Aretxabaletan, Udaberri Txapelketa, kadeteak**
Aretxabaleta - Gurpil Kir.
Gaur. 19:30. Iturrigorri pilot.

**Arrasaten, San Juanetako txapelketa**
Gaur 19:00. Uarkape. Alebin eta infantil mailetako norgehiagokak.

**Arrasaten, Udaberri Txapelketa**
Arrasate - Zumaia
Gaur 20:00. Uarkape.
Arrasate - Oñati.
Zapatua. 16:00. Uarkape.

### AUTOAK (4x4)

**Erakustaldia**
Domeka. 10:00. Eskoriatza (Apotzagan).

### XAKEA

**Ohorezko maila**
San Viator - Arlutz
Zapatua. 16:00. Gasteiz.

**Euskadiko lehen maila**
Calasanz - Arrasate San An.
Zapatua. 16:00. Gasteiz.

**Gipuzkoako lehen maila**
Txaturanga - Arrasate
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako hirug. maila**
Arrasate San A. - Anaitasuna
Zapatua. 16:00. Altamira.

Tolosa - Atletiko zaleak
Zapatua. 16:00. Tolosa.



**Aloña Mendiko seniorrek Bergara hartuko dute**
Saskibaloi derbia jokatuko dute Aloña Mendik eta Bergarako Candy taldeak bihar (19:15). Bi postu aurretik daude oñatiarrak.



GOIENKARIA

## 4x4 automobilen erakustaldi ikusgarria

Domekan, 10:00etan hasita, 4x4 automobilen erakustaldia egingo dute Apotzagan (Eskoriatza) dagoen hondakindegian. Antolatzaile lanetan dabilen Ibon Aranburuzabalaren esanetan, domekako ikuskizuna txapelketetakoa baino ikusgarriagoa izango da: "Askatasun osoa izango dugu zirkuitua normalean baino ikusgarriago egiteko, erradikalagoa. Uste dut ikusleek asko eskertuko dutela hori". Euskal Herrian txapelketak antolatzen dituzten elkarteetakoek hartuko dute esku, baita Eskoriatzakoek ere.

**KIROLDEGIA >** MUGARRI ALKESAK ETA ESKORIATZAK ETXEAN JOKATUKO DUTE ZAPATUAN

# Puntako saskibaloia edo areto futbola aukeran, etxean bertan

Mugarri Alkesak Santutxuko taldea hartuko du Iturripen (18:00); Eskoriatzak ordu berean jokatuko du Zierbanaren kontra, Intxaurtxuetan

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Mugarri Alkesa saskibaloi taldeak Santutxuko Ocaso Berrio Otxoa taldearen bisita izango du bihar, zapatua. Igoera fasean murgilduta, Gorka Zurututzaren mutilek ez dute gura azkenaurreko postuan dagoen taldeak Iturripen etekinik ateratzea. Dena dela, igoera fasean kontuz ibili behar da sailkapenak erakusten duenarekin, joan den astean Arrasatekoek kostata irabazi zuten-eta azkeneko lekuan zegoen Viajes Marfilen kantxan. Ezin ahaztu talde horiek zerbaitegatik daudela igoera fasean.

Biharko kontrarioak hiru norgehiagoka baino ez ditu irabazi. Sei garaipen ditu Mugarri Alkesak, eta horri esker daude Arrasatekoak bosgarren tokian. Gainera, atzeratutako norgehiagoka bat dute jokatzeko, Urdanetaren kontrakoa. Martxoaren 5ean jokatuko dute partidu hori.

**ZIERBANA ESKORIATZAN**

Bigarren itzulia hasi berri, Lehen Nazional Mailan dabilen Eskoriatza azken ordura arte lehiatu beharko da mailari eusteko; baina badu aukera, 13 norgehiagokatan puntu asko daude-eta jokoan. Hasteko, sailkapenean atzerago dagoen Zierbana esku hutsik itzuli behar da bihar Intxaurtxuetatik.

Kontuz, baina, joan den astean irabazita talde hori puztuta etorriko da-eta Eskoriatzara. Joaneko norgehiagokan, Eskoriatzak puntu baliotsua erdietsi zuen Zierbanaren kantxan (5-5). Errematea falta da.

ASPEPELOTA
Goi mailako pilota ikuskizuna

Galarza V - Nalda III / Chafee - Elkoro

Olaizola II - Zearra / Xala - Goñi III

Baleztena - Galarza VI / Larralde - Arizmendi

- **Eguna:** igandea, otsailaren 12a.
- **Ordua:** 17:00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuan.

aspepelota.com

**Erreserbak** baita interneten ere: www.aspepelota.com

# Ziorla Autoak

PEUGEOT

## Zabaldu berria
## Salmenta eta tailer zerbitzua

Musakola auzoa 21 ( Roneo ondoan ) ARRASATE
Tel: 943 77 01 44





# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



**> MUSIKA**
Ill Niño taldearen emanaldia zapatuan Jam aretoan **> 45**



**> VANESSA SANCHEZ**
'Teleberri'-ko aurkezle berriari elkarrizketa **> 52**

**> KEPA ERRASTI**
Aktore aretxabaletarra ezagun egin da, 'Goenkale' telesailean Alex pertsonaiaren rola egiten duelako. Besteak beste, gitarra jotzea da bere zaletasunetako bat **> 47**



BARRENESETA

ARITZURKILLA

OKILTEGI

ELORMENDI

MARUTEGI

IGARTUZABAL

IZAGIRRE

BELASTEGI

ANDEATEGI

LINAPOTZUETA

ARANSORO

USAKILLO

KERIZETAUNDI

# Antzuolako toponimia batu dute

Kristina Pavo filologo antzuolarrak egindako lana aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, Olaran etxean; 1.700 leku-izen batu ditu

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Izenak dira euskararen lekukorik zaharrenak, eta lekuak izendatzeko erabiltzen direnak, toponimoek, informazio eta datu ugari eskaintzen dituzte. Antzuolan, galtzeko arriskuan ziren toponimoak biltzen izan da Kristina Pavo filologoa. 1.700 leku-izen batu ditu, eta lan horren emaitza aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, Olaran etxean, 19:30ean.

*Antzuolako Toponimia* liburu mardula da: 755 orrialde dauzka eta lekuizenen bilakaerarekin batera 170 argazki inguru jasotzen dira: baserriak, auzoak, ermitak, iturriak eta kaleko argazkiak. Kristina Pavok azpimarratzen duenez, aspaldi batzuek hasitako lanaren ondorioa da. Herritarren ondare historikoa gordetzea eta aberastea izan da helburu nagusia. Arrasateko toponimiarekin gertatu bezala, Euskaltzaindiaren Onomastika Bilduman argitaratu dute Pavoren lana. > 44



**EUSKARA** > ANTZUOLA HERRIA IKERKETA BEKAREN EMAITZA DA KRISTINA PAVOREN LANA

# 'Antzuolako Toponimia': 1.700 leku-izen batu ditu Kristina Pavo filologoak

Gaur, egubakoitza, Olaran Etxean egingo dute aurkezpen ekitaldia, 19:30ean

Euskaltzaindiaren onomastika bilduman argitaratu dute liburua

**AINTZANE IRIZAR/E.M.** > BERGARA

Antzuola Herria Ikerketa bekaren bosgarren aldiaren emaitza da *Antzuolako Toponimia* . Kristina Pavok eskuratu zuen aipatutako beka eta lan horren emaitza argitara emango dute gaur, egubakoitza. Olaran etxean egingo dute aurkezpen ekitaldia, 19:30ean. Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko kideak; Iratxe Lasa ikerketaren jarraipena egin duen batzordeko aholkulariak; Jose Angel Zabalo Antzuolako alkateak eta egileak berak hartuko dute parte.

**1.700 LEKU-IZEN**

Kristina Pavo (Antzuola, 1975) Euskal Filologian lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun Emun kooperatiban ari da, euskara teknikari. Antzuolako toponimia jaso eta finkatzeko Udalak kaleratutako beka lortu zuen 2003an eta handik urtebetera hasi zen lan horretan. Urte eta erdi eman du Antzuolako leku izenak batzen, aztertzen eta arautzen. Liburu mardula da gaur aurkezten dena: 755 orrialde ditu eta bertan 1.700 leku-izen batu ditu Pavok. Leku izenen bilakaerarekin batera 170 argazki inguru jasotzen dira: baserriak, auzoak, ermitak, iturriak eta kaleko argazkiak. Era berean, liburuarekin batera Antzuolako mapa toponimikoa eskuratzeko aukera izango da. Hain zuzen ere, leku-izenak mapan kokatuta aurkituko ditugu.




**KRISTINA PAVO** antzuolarrak urte eta erdi eman du bere herriko toponimia jasotzen. AINTZANE IRIZAR

## Poliki-poliki toponimia jasotzen ari dira Debagoienean

Debagoieneko herriei dagokienez, Euskaltzaindiaren Onomastika Bilduman Elgeta eta Arrasate ere agertzen dira. Alde batetik, Juan San Martin zenak Eibar eta Elgetako toponomastika jaso zuen 2000. urtean. Eibar eta Elgetako hainbat deituraren jatorria aztertzen da bertan. Bestetik, Jose Luis *Txipi* Ormaetxeak Arrasateko toponimia batu zuen 1996. urtean. Gainerako herrietan mapa toponimikoak kaleratu dituzte: Oñatin, Aretxabaletan, Elgetan eta Aramaion, besteak beste.

Eskoriatzan, Udaleko iturriek esandakoaren arabera, aurten toponimia jaso eta normalizatzeko asmoa daukate. Bergarako toponimia dagoeneko jasota dago. Hain zuzen ere, Udalak hitzarmena sinatu du enpresa batekin urtea amaitu baino lehen Bergarako toponimia Interneten eskuragarri jartzeko.

Liburuaren 1.000 ale kaleratu dituzte eta 25 euroren truke jarriko dute salgai. Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* izeneko bilduman 25. zenbakia da Antzuolari zuzendutakoa.

Kristina Pavok esandakoaren arabera, hainbat helburu ditu Antzuolako toponimia jasotzeak. "Batetik, ondare historikoa gordetzea eta aberastea, galtzeko arriskuan dauden leku-izenak gordeta; bestetik, herritarrei herria hobeto ezagutzeko aukera ematea; eta, azkenik, herrian egiten den edozein jardueratarako material egokia izatea esku artean. Adibide bat jartzearren: auzo berri bat dago Antzuolan, Mañarieta. Eta inguru horri beti deitu izan zaio Mainitta. Adin batetik beherakoek ez dute ezagutzen termino hori eta kalean bertan dago. Administrazio edo kultura mailan izen bat ipini behar denean badago orain lan bat egina, izen bakoitzerako proposamen zehatz batekin. Hori guztia arautzea aberasgarria da".

**IDATZIZKO ETA AHOZKO ITURRIAK**

Toponimia jasotzeko orduan bi iturri nagusi izan ditu, idatzizkoak eta ahozkoak: "Idatzizkoen artean artxiboetako agiriak eta aipamen bibliografikoak erabili ditut, aztertuz liburuetan zelan aipatzen diren toki hau edo beste hori. Kartografia ere lagungarria gertatu zait. Eta ahozko iturrien kasuan, batez ere jende edadetuarekin egindako elkarrizketak erabili ditut. Idatzizko agirien artean zaharrenak XVI. mendekoak izan dira, baserrienak kasu gehienetan", diosku Kristinak.

Iratxe Lasak egin du lanaren jarraipena, "lan ikaragarria", Kristinaren hitzetan. Onomastika batzordeko aholkulari dugu Lasa, eta oso gustura dago emaitzarekin: "Denbora laburrean lan handia egin da, egileak berak asko lagundu duelako. Baliagarritasunaren aldetik aurrerantzean auzo edo kale berriak izendatzeko orduan oinarri sendoa izango dugu".





AMERIKAKO Estatu Batuetan bizi diren hainbat musikari hispanok metal talde indartsu eta irekia osatu dute. ROADRUNNER

**MUSIKA** > ILL NIÑO ETA INFINNER TALDEEK KONTZERTUA EGINGO DUTE ZAPATUAN, JAMEN

# Metala eta jatorri hispanoa biak bat eginda

New Yorkeko Ill Niño taldeak arrakasta handia hartu du azken bost urteotan. Metal indartsua eta erritmo latindarrak batzen dituzte kantuetan

**IKER BARANDIAN** > BERGARA

Get In promotorak talde handia eramango du zapatuan Bergarako Jam aretora. Gaueko izarra Ill Niño izango da, baina harekin batera Infinner taldea ere arituko da taula gainean, 20:00etan. Sarrerak 23 euro balio du.

Ill Niño taldea 1999an sortu zuten jatorri hispanoa duten hainbat lagunek. Bateria jotzaile eta abeslari aproposaren bila ibili ziren, eta azkenean punta-puntako seikotea osatu zuten. Aurretik, besteak beste, Machine Head, Soulfly eta Pro-pain talde indartsuetan ibilitakoak dira.

**HIRUGARREN DISKOA, ONENA**

2001ean *Revolution Revolucion* lana kaleratu zuten; 2003an, *Confession*; eta iaz, *One nation underground*. Hiru diskoek arrakasta handia izan dute nazioartean, baina taldekideak batez ere harro daude hirugarrenarekin. "Azkenean lortu dugu metal indartsua gure sustraietako musikarekin batzea; hau da, flamenkoarekin, merengearekin, saltsarekin eta baita erritmo afrokubatarrekin", azaldu zuen bateria jotzaile Dave Chavarrik.

**ETORKINEN HAUSNARKETAK**

Abesti askotan gaztelera eta ingelesa uztartzen dituzte. Horrez gain, taldeko abeslari Christian Machadok hausnarketa interesgarriak egiten ditu. "Ez da erraza kanpotik AEBetara joan eta han bizitzea. Jatorriak eta sustraiek pisu handia dute guregan, eta horiek albo batera utzi gura ez dugunondako AEBetan onartua izatea zaila da". Kontu horrek jende asko kezkatzen du eta askok bat egiten dute Machadorekin.




IKER BARANDIARAN

## Yera Sanchezena da Aratusteetako kartela

Aretxabaletako Yera Sanchezek irabazi du Kultura Sailak Aratusteetarako antolatutako lehiaketa. *Inauteriak 2006* leloa duen horma-irudia Sanchezek egindakoa da. Hala ere, esku-orrian bi irudi joango dira: Sanchezena eta baita 9 urte dituen Alai Muniozgurena, aipamen berezia egin diote-eta. Aurten inoiz baino lan gehiago jaso dituzte, 58.

> LITERATURA

## Iñigo Errasti da Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketako irabazlea

AEDk eta Elkar argitaletxeak 19. Jokin Zaitegi Itzulpen Sariketaren gaineko erabakia hartu dute. Iñigo Errasti bilbotarrak itzuliko ditu 2005eko Nobel saridun Harold Pinterren antzezlanak.

Oskar Arana, Aizpea Goenaga eta Xabier Paya epaimahaikideek erabaki dute Errastiri ematea 3.000 euroko saria. Horren truke, Errastik hemendik udazken hasiera bitartean Harold Pinterren honako antzezlanak itzuli beharko ditu: *The Lover, Old times, A kind of Alaska, Party time* eta *Mountain language*, hain zuzen ere.

Hala, Elkar argitaletxeak Harold Pinterren antzezlan horiek batuko dituen euskarazko liburua 2006ko Durangoko Azoka baino lehen kaleratu beharko du.

**GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA**
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
*Boni Laskurain 3 BERGARA*
**943 76 35 71**
ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

## Estetika mutilen kontua ere bada

Anderri erantzuna. Hasteko: mutil asko joaten dira estetika etxeetara aurpegiko garbiketa egitera. Horrek ez du esan nahi arazorik dutenik azalean (higieneagatik egiten dute); beharra dutela ikusten dutelako joaten dira.Lehenengo eta behin, etsitzen, lotsa edukitzen eta negar egiten ez duzu ezer lortuko.

Bigarrenik: ez dakit zuretako egokiena aurpegiko garbiketa egitea den edo, zuk diozun moduan, beste tratamendu espezifiko bat egitea. Dena dela, zer komeni zaizun jakiteko zurekin egon nahiko nuke eta zure beharrak zeintzuk diren aztertu.

Hirugarrenik: dituzun konplexuak zure adineko neska-mutikoek dituztenen antzerakoak izango dira (edo nik nire garaian izan nituenak; uste duzu ez naizela gogoratzen, ala? Zure adina nueneko kontuak kontatuko banizkizu...). Esan nahi dizudana ondorengoa da: neska-mutiko guztiek orokorrean adin tarte baten adierazten dute euren gorputzarekiko kexua. Gutxitan ikusten dugu gure burua ondo; konponbidea topatu behar zaio egoera horri. Nola? Ba, gustatzen ez zaiguna zuzentzen. Betiere konpontzeko errazak badira.

Bestetik: aurrekontua egiteko zurekin egon beharra daukat.

Bukatzeko: nire telefono zenbakia badakizu; beraz , deitu eta txanda hartu (hamar minutu bakarrik izango dira).

Ander, bi aukera dituzu: zauden moduan geratzea edo arazoari konponbidea topatzen saiatzea.

• 42 urte ditut eta paparrean orbanak eta zain gorriak ditut. Neguan ez dira ikusten, baina udan oso zatar geratzen da; ezer egin dezakezu?

Bai, laser bidezko tratamendu batekin paparreko zain guztiak kendu egin daitezke. Gainera, azkarra eta segurua da tratamendua eta emaitza ere oso ona da. Betiko da. Orbanak, berriz, marroiak badira, sakontasunaren arabera kentzea posible da. Zuriak badira, baina, ezin dira kendu.

Eskuetako orbain marroiak nahiko ondo kentzen dira (zaharrak badira argitu bakarrik egiten dira), eta lehenbailehen tratatzea komeni da (agertzen direnean).

Eskuetako, besoetako, hanketako eta paparreko orbain zuriak ezin dira kendu. Gure azalean pigmentazioa banatzen eta fabrikatzen dituzten zelulei melanina produkzioa bukatu zaiela ematen du (ziurrenik hau gertatu da: melanozitoek lan nahikoa egin dute eta ezin dute lan gehiago egin).

Jaiotzetik dauzkazun orbainak dermatologoak tratatu behar dizkizu.

• Loli, pozten naiz nire aholkuak zure onerako izatea.

• Saioa: kendu egin daitezke gustatzen ez zaizkizun ebakiondoak, baina bidali didazun argazkia oso urrutitik dago aterata. Gainera, zu ikusi nahi zaitut balorazioa egiteko, bost minutu bakarrik izango dira.



**Maria Isabel Hurtado**
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bergara:**
• Duplexa. Masterreka. 180 m².
• Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
• Bidekurutzeta 66 m². Oso ondo.
• Ibargarai 106 m². Oso ondo.
• Espoloia 156 m². Oso ondo.
• Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
• K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
• S. Pedro 78 m². Ganbara. Berrituta.
• Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
• T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
• Boni Laskurain 90 m². Garajea.
• Bidekurutzeta 65 m². Oso ondo.
• Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
• Fraiskozuri 104 m². Oso ondo.
• Ortuibar 97 m². Oso ondo.
• Bolu 85 m². Ondo.
• Zubieta 65 m². Terraza.
• Zubiaurre 80 m². Ondo.
• Artekale 74 m². Ondo.
**Antzuola:**
• Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.
• Duplexa. Erdialdea. Oso ondo.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

**BERGARA:**
• Bidekurutzeta 55 m². Oso ondo.
• Erdialdean, duplexa 93 m². Berria.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Aranerreka 75 m². Oso ondo.
• Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
• Matxiategi 80m². Ondo.
• Martoko 60 m². Berritzeko.
• Ibargarai 106 m². Berria.
• Zubieta 80 m². Oso ondo.
• Artekale 74 m². Ondo.
• Bolu 84 m². Oso ondo.
• Masterreka 87 m². Oso ondo.
• Martoko 45 m². Ondo.
• Boni Laskurain 92 m². Oso ondo.
**ELGETA:**
• 70 m². Berritzeko.
**SORALUZE:**
• Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.
**ANTZUOLA:**
• Duplex berria erdialdean.
• Erdialdea 76 m². Berria.

**BERGARA**
Martxan dagoen taberna errentan ematen da.
943 76 54 75

**DEBAGOIENA**
Taberna-jatetxea ematen da errentan, ezin atenditzeagatik. Bezero propioak ditu.
675 23 30 65

**ARRASATE**
Arrasateko plazan dagoen Zuk-Nahi taberna alokatzen da.
618 76 34 40
605 76 08 29
943 71 48 36

**ARETXABALETA**
Ile apaindegi baterako esperientziadun ile apaintzailea behar da. Soldata 1.200 euro hilean.
635 70 66 02

**ANGIOZAR**
Ortzi erretegia alokatzen da.
943 78 22 80
665 72 24 46

**ARRASATE**
Tornu konbentzionalean eta CNC tornuan lan egiteko esperientziadun pertsona behar da.
943 79 75 11

**ARRASATE**
Txatxilipurdi elkartea.
Gazte leku eta ludotekarako lan-poltsa osatzera goaz. Astean zein astebukaeratan lan egiteko aukera. Antzuola, Eskoriatza zein Arrasaterako balio du.
943 79 54 46 / 943 77 17 39
gazteak@txatxilipurdi.com

**BERGARA**
Larunbatetan pintxoak egiteko sukaldaria behar da.
677 45 23 32

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Etxea salgai. 50 m2. Guztiz jantzita. Egoera onean. Berogailua. Momentuan sartzeko moduan. 626 60 11 07.

**Aretxabaleta.** Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta berogailua. Trastelekua egiteko aukera ere badauka. Guztiz jantzita. Bizitzera joateko prest. 943 79 77 32 edo 605 74 33 35.

**Arrasate.** Etxea salgai Aldaigain kalean. 92 m². Trastelekua eta garajea. Telefonoa: 943 79 53 44 edo 659 55 27 20.

**Arrasate.** Etxea salgai Zerrajeran. 110 m². Hego-mendebaldera begira. 618 62 79 89.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Santa Teresan. Bi logela, bainugela, egongela, sukaldea, pasilloa eta balkoia ditu. Erabat berritua eta jantzia. 69 metro koadro. Telefonoa: 943 77 06 82 edo 667 89 28 38.

**Bergara.** 93 m²ko etxebizitza salgai Martokon. Egongela, hiru logela, sukaldea, komuna eta ganbara. Gela guztiek kanpora ematen dute. 619 28 60 32 edo 943 76 52 86.

**Bergara.** Eraikitzen ari diren 135m²ko duplexa salgai. 20m²ko terraza eta bi autorendako garajea. 635 74 10 04.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Fraiskozurin, 5A atarian. Bi logela, 87 m², altzariekin. Telefonoa: 699 43 49 52.

**Bergara.** Matxiategi kalean. 80 metro koadro. Hiru logela, bainugela, sukaldea, egongela eta balkoia. Igogailua eta berogailua ere baditu. 666 42 78 57.

**Bergara.** Telesforo Aranzadi. 140 m². Berrituta. 699 75 45 46.

**Elgeta.** 80 metro koadro erabiltzeko. Sukaldea, bainugela, hiru logela, egongela eta ganbara. Konpontzeko dago. 943 76 80 72.

**Elgeta.** 90 m². Berrituta. Jantzita. 656 73 99 90.

**Vera (Almeria).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza alokatzen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Apartamentua** errentan ematen da Peñiscolan. Hondartzatik 100 metrora. Urbanizazio pribatua. 610 87 83 57.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan. 943 76 44 34.

**Cambrils.** Apartamentua ematen da errentan, hondartzatik gertu. Lorategia eta igerilekua ditu. 610 79 47 29.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean etxebizitza errentan. 695 75 85 26.

**Torremolinos.** Etxebizitza errentan, hondartzatik gertu. 616 14 72 67 edo 943 76 33 58.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate** edo inguruko herriren baten etxebizitza errentan hartuko nuke. Pablo. 676 02 95 19.

**Bergara.** Lau lagun etxebizitza bila gabiltza. 943 76 40 57.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxea osatuko nuke edo bi persona gehiagorekin hartuko nuke errentan. Aukeran, nahiago langileak. Jabier. 685 73 67 54.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Deitu 21:00etatik aurrera. 676 18 60 82 edo 677 83 47 29.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garajea ematen da errentan Espaloian. 626 30 89 36 edo 943 76 63 10.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da. Aste baten goizetik eta bestean arratsaldetik. Telefonoa: 943 53 43 43.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Mutil euskalduna taberna batean lan egiteko prest. Telefonoa: 943 79 64 46.

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea lanerako prest. Umeak zaindu edo garbiketak egiteko. Telefonoa: 610 34 97 88.

**Bergara.** Emakumea gertu arratsaldez etxeko lanak egiteko: plantxa, garbiketa... Telefonoa: 943 76 05 66.

**Bergara.** Emakumea goizetan (16:00ak arte) lan egiteko prest.Garbiketa lanak (atariak, bulegoak) edo nagusiak zaintzeko (esperientzia badaukat). Telefonoa: 618 01 30 60.

**Bergara.** Neska euskalduna goizez edo arratsaldez astelehenetik ostegunera umeak zaintzeko prest. Deitu telefono honetara: 647 09 26 16.

**Bergara.** Neska lanerako prest. Umeak zaindu, nagusiak zaindu (bertan bizitzeko prest) edo garbiketak egiteko. Telefonoa: 606 64 16 09.

**Bergara.** Neska orduka edo egun osoz lan egiteko prest. Umeak eta nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Deitu telefono honetara: 626 40 68 21.

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile euskalduna haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. 655 72 02 56.

**Debagoiena.** Mutil batek lan egingo luke goizetan sukaldari laguntzaile, garbitzaile edo bestelako lanak egiten. 666 83 21 95.

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu telefono honetara: 686 16 22 75 edo 943 76 04 18.

**Debagoiena.** Zerbitzari lan egingo nuke, txandakako asteburuetan. Deitu telefono honetara: 676 87 99 48.

**Mutila** lan egiteko gertu, edozein lanetan. Telefonoa: 647 19 36 95 edo 661 96 66 33.

**Mutila** lan egiteko gertu, edozertan. 943 79 45 33.

**Mutila** lan egiteko gertu: garbiketak, pertsona nagusiak zaintzea... Eskarmentuarekin. 697 80 64 03.

**Neska** lan egiteko gertu, garbiketa arloan, pertsona nagusiak zaintzen edo beste edozein motatako lanetan. Badu esperientzia. 659 35 09 30.

### 403. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Lursaila eskaintzen dut baratzea ipintzeko. Laua eta urarekin. Trukean lorezain lanak egingo dituen norbait behar dut. 627 34 76 24.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Bergara.** Lehen Hezkuntzako eskolak emango nituzke. Telefonoa: 649 02 07 26.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi A3** autoa salgai. Egoera onean. 618 62 79 89.

**Audi 80** 1.6 TD salgai. Egoera onean. 679 67 38 04.

**Autokarabana,** Hymermobil 564 markakoa. 136.000 Km.

**Turbo Diesel** (2500 cm³), luzera 5,65 m, zabalera 2,20 m, altuera 3 m. Sei toki egunez eta lau gauez. 945 44 52 67.

**BMW 318 autoa** salgai. 140 ZP, 9.000 euro. Telefonoa: 635 71 04 55.

**Gas-Gas motoa** salgai. 250 cm³. Egoera onean. Telefonoa: 669 50 03 89.

**Kawasaki** KX 250 cm³ kroseko motorra salgai. Kaskoa tea bestelako osagarri guztiak. Prezio ona. 687 50 18 02.

**Mercedes** Vito furgoneta salgai. 2002koa da. 620 17 80 47.

**Toyota Celica** autoa salgai. 2.400 euro. 635 71 04 55.

**Viano** Marco Polo furgoneta salgai. 150 ZP. Westfalia ekipamenduarekin. 2005ekoa. Telefonoa: 652 77 11 24.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkumeak** salgai, Setter ingelesak. Deitu 16:30etik aurrera. Aitor. 689 04 59 68.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**OZ markako** 14 hazbeteko hagunak (llantak) salgai. Telefonoa: 666 08 28 94.

**Bergara.** Lursaila salgai. Gauez deitu. 666 55 41 12.

**Hagunak (llantak) eta gurpilak** salgai Renault Space autoarentzako. 245-40-18 modeloa. 699 93 65 14.

### 802. EROSI

**Zelaiak** erosi edo errentan hartuko nituzke, Oñatin, Antzuolan edo Bergaran, zaldiak edukitzeko. 600 51 27 68.

### 808. BESTELAKOAK

**Lekukoak.** Urtarrilaren 28an izugarrizko kolpea eman zion norbaitek Citroen ZX zuri bati Arantzazuko aparkalekuan. Norbaitek zerbait ikusi badu, dei dezala, mesedez, ez ziguten-eta oharrik utzi. Deitu telefono honetara: 656 00 85 10.

## 9/ HARREMANAK

### 903. DEIAK

**Natura-zaleak.** Natura, basabizitza eta mendixa maite badittuzu, eta honeittaz gozaitteko-lagun bat bihar badozu ez pentsau bi aldiz eta deittu, hortik zihar fateko. Deitu telefono honetara: 615 70 34 62.

**Edozein premiatarako:**
• Antzutasuna
• Erditzeak
• Antisorgailuak
• Menopausia
• Ekografiak (4D)
• Titietako gaixotasunak
• Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
• Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**
• Antonio Estomba
• Fernando Cristobal
• Alfredo Otalora
• Jose M. Gomez
• Maite Albizu
• Domingo Murgiondo
• Miguel Gabarain
• Maria Jose Ruiz
• Fatima Azkue
• J. Rodriguez
• Mikel Gorostidi

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88



Arrasateko Institutuko langile **Kontxi Elortzak** eta **Juan Aizpuruk** azaroan hartu zuten erretiroa. Agur afaria Arrasateko Batzokian egin zuten oso giro onean. Loreak eta beste oparitu zizkieten. Institutuko langileek euren falta sumatzen dute.

## hildakoak

- **Maria Ruiz de Alegria Agirregabiria.** Arrasaten, otsailaren 1ean. 91 urte.
- **Ines Davila Sanchez.** Bergaran, otsailaren 2an. 81 urte.
- **Jose Maria Lopez Jober.** Arrasaten, otsailaren 3an. 86 urte.
- **Lino Alberto Zabaloa Barrena.** Arrasaten, otsailaren 3an. 82 urte.
- **Josefa Nogueira Ures.** Aretxabaletan, otsailaren 4an. 83 urte.
- **Maite Mayo Larrea.** Bergaran, otsailaren 4an. 74 urte.
- **Eugenio Mugartza Arrue.** Oñatin, otsailaren 5ean. 59 urte.
- **Angel Mikeo Azpiroz.** Angiozarren, otsailaren 5ean. 78 urte.
- **Antonio Maiz Jauregialtzo.** Oñatin, otsailaren 7an. 83 urte.
- **Eusebio Lizarralde Leibar.** Oñatin, otsailaren 7an. 91 urte.
- **Gumersinda Uriarte Barrutiabengoa.** Arrasaten, otsailaren 7an. 85 urte.
- **Celestino Horrillo Carmona.** Aretxabaletan, otsailaren 7an. 81 urte.
- **Juan Antonio Mtez. de Agirre Igartua.** Aretxabaletan, otsailaren 7an. 82 urte.
- **Paco Alvarez Serrano.** Arrasaten, otsailaren 8an. 79 urte.

ESKELA

## Agustina Mugica Arana

Buenos Airesen (Argentina) hil zen 2006ko urtarrilaren 26an, 98 urte zituela.

Bere omenezko meza domekan, otsailaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marinako elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Iñaki Irizar Leanizbarrutia

Bigarren urteurreneko meza domekan, otsailaren 12an, 12:00etan, Arrasateko Uribarriko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Juli Izurrategi Larrañaga

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 12an, 12:00etan, Eskoriatzako San Pedroko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jesus Mujika Garitano

"Balento"

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marinako elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Eusebio Garitaonandia Lizarralde

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 12an, 10:30ean, Bergarako San Prudentzioko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jon Galartza Zulueta

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 12an, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jose Alberdi Garaileku

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Jesus Mari Uribe Etxeberria Zubizarreta

Eskoriatzan hil zen 2006ko urtarrilaren 15ean, 59 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Eskoriatzan, 2006ko otsailaren 10ean.

ESKER ONA

## Luisa Leturia Belar

Oñatin hil zen 2006ko urtarrilaren 31n, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2006ko otsailaren 10ean.

ESKER ONA

## Angel Mikeo Azpiroz

2006ko otsailaren 5ean, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Angiozarren, 2006ko otsailaren 10ean.

Mendigoia HOTEL

SAN VALENTIN
EGUNEKO AFARI BEREZIA
Otsailaren 11n

- Amodio anitzeko iberikoak
- Belar fineko pate habitxoak
- Itsasoko grinaren pastela
- Hasperen gazta birrineztatuak
- Porruz eta ganbez betetako laztan hostopilak
- Je t'aime sorbetea
- Txahal okel tentazioak bere saltsan
- Maiteminduen bihotz lizuna
- Kafea
- Cava kopa
- Errioxako ardo beltza
- Sardasol ardo gorria
- Insalus ura

ANIMAZIO MUSIKALA AFARI OSTEAN

Pertsona bakoitzeko prezioa: 30 euro + BEZa

Erreserbak hoteleko harreran Tel.: 943 715 700 (Derrigorrezko Erreserba)

SAIOA ARANZABAL
MASAJEAK
ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

Kiromasajea •
Reflexologia •
Hidromasajea •
Kirol masajea •
Podologia •



• Solariuma
• Drenaje linfatikoa
• Algekin eginiko estalkia
• Depilazioa laser bidez

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

## bila bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (argazkia) | | | Perretxikoa / Errepikatuz, sarritan | | * Argazkian / Talkak jotzen dituena | | Nebak / Umil, xume | |
| (argazkia) | | | | | | | | |
| (argazkia) | | | Piltzarra, pilda / Infin., saldu | | | | | |
| Txiroa, behartsua / Zelan | | Saltzeko dagoena / Azal | | | | | | |
| | | | | Hondartza txikia / Botika kantitate | | | | |
| Trakets, kankailu / R hirutan | | | | | | | Potasioa / Suari dariona | |
| | | | Zakurrak / ... egin, erabat ase | | | | | Zaren hori |
| Diru truke eskuratu / Karratu | | | | | | Ukatzeko / Hidrogenoa | | |
| | | | | | Hemen dagoena | | | |

LUMA



## umore giroan

Kike Amonarriz

### Azokatik bueltan

Teodora eta Dorotea azokan ikusi eta erositakoez ari dira hizketan:

- Nik honelako azenario bat erosi dut —adierazi dio Teodorak Doroteari—.

- Bada, nik horrelako berenjenak aurkitu ditut —erantzun dio Doroteak—.

Orduan Maritxu azaldu da eta: - Aizue, zertaz ari zarete hizketan?

### Koloretako telebistak

- Ba al dakizue nola hondoratzen diren Tolosan egindako itsasontziak?

- !!!

- Uretan jarrita!

## sudoku

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2 | | | | | | 9 | |
| | | 8 | 9 | 2 | 5 | 6 | | |
| | | | 3 | | 1 | | | |
| 8 | | 2 | | 1 | | 5 | | 7 |
| | 4 | 6 | | | | 1 | 3 | |
| 1 | | 7 | | 8 | | 9 | | 6 |
| | | | 8 | | 2 | | | |
| | | 4 | 1 | 9 | 7 | 3 | | |
| | 5 | | | | | | 8 | |

## jeroglifikoa

Nola etorri zarete?

DDZDD

## hizki salda

Debagoieneko sei mendi elkarteren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | D | P | O | L | F | I | A | O |
| X | J | E | K | T | Z | B | E | Z |
| A | L | O | R | R | A | E | O | K |
| A | G | O | A | U | G | S | O | A |
| L | O | P | L | O | P | A | E | R |
| O | X | T | A | U | R | I | A | B |
| Ñ | M | A | U | K | D | D | E | I |
| A | T | S | M | I | U | E | N | D |
| M | E | N | D | I | L | A | D | O |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (argazkia) | | | ■ | Z | ■ | B | ■ | A |
| (argazkia) | | | P | I | T | E | A | N |
| (argazkia) | | | ■ | Z | A | R | P | A |
| ■ | P | ■ | S | A | L | G | A | I |
| N | O | L | A | ■ | K | A | L | A |
| ■ | B | A | L | D | A | R | ■ | K |
| R | R | R | ■ | O | R | A | K | ■ |
| ■ | E | R | O | S | I | ■ | E | Z |
| L | A | U | K | I | ■ | H | A | U |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 2 | 5 | 7 | 6 | 8 | 4 | 9 | 1 |
| 4 | 1 | 8 | 9 | 2 | 5 | 6 | 7 | 3 |
| 6 | 7 | 9 | 3 | 4 | 1 | 8 | 5 | 2 |
| 8 | 9 | 2 | 6 | 1 | 3 | 5 | 4 | 7 |
| 5 | 4 | 6 | 2 | 7 | 9 | 1 | 3 | 8 |
| 1 | 3 | 7 | 5 | 8 | 4 | 9 | 2 | 6 |
| 9 | 6 | 3 | 8 | 5 | 2 | 7 | 1 | 4 |
| 2 | 8 | 4 | 1 | 9 | 7 | 3 | 6 | 5 |
| 7 | 5 | 1 | 4 | 3 | 6 | 2 | 8 | 9 |

**Jeroglifikoa:**
Bidez bide (bi d z bi d)

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | D | P | O | L | F | I | A | O |
| X | J | E | K | T | Z | B | E | Z |
| A | L | O | R | R | A | E | O | K |
| A | G | O | A | U | G | S | O | A |
| L | O | P | L | O | P | A | E | R |
| O | X | T | A | U | R | I | A | B |
| Ñ | M | A | U | K | D | D | E | I |
| A | T | S | M | I | U | E | N | D |
| M | E | N | D | I | L | A | D | O |

## bono fotoa



**Argazkiko ermitatik Orixol eta Anboto ikusten dira. Gure bailarako herri batean dago ermita. Zein auzotan dago? Eta nola du izena ermitak?**

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM | IFA

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ..............................

..............................

IZEN-DEITURAK ..............................

TELEFONOA..............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Bonka kafea**

250g + %10 doan

**1,37 €** 228 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**ANDONI ITURBE**rendako (Bergara) eta **GAIZKA UNTZUETA**rendako (Arrasate) izan dira 30 euroko erosketa-txartelak. Zorionak!

**Galderen erantzun zuzena: Agarre, Bergaran.**



# EGIN TXOTX! sagardotegietan



## Saizar

Kale-Zahar auzoa 39 / USURBIL
943 36 22 28

- Urte guztian irekita
- Txotx garaian sagardotegiko menua sagardotegian
- Jatetxean urte guztian kartara
- Igande gauean eta astelehen eguerdian itxita
- Bertako janaria
- 500 lagunendako lekua eserita
- **“Tolare” sagardotegia**



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia / HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
  Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
  Domeketan, eguerdira arte zabalik
  Astelehenetan, itxita
- **“Tolare” sagardotegia**



## Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28 / 639 05 33 10

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gauez bakarrik
- Zapatu eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- “Zabadiz” banatzaile ofiziala
- **“Tolare” sagardotegia**



## Iturrieta

Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 605 70 64 51

- Urte guztian zabalik ostegunetik igandera.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako janaria.
- 100 lagunendako lekua, eserita edo zutik.



## Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Egubakoitzak, zapatuak eta domekak zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- 55 lagunendako lekua



## Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- **“Tolare” sagardotegia**



## Rezola

Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 66 37

- Urte osoan egunero eguerdian eta gauean zabalik
- Igande gauetan itxita
- Enkarguz: Arkumea eta txarrikumea burduntzira eta arraina parrillan
- Berritua eta handiagoa
- Urte osoan txotxetik eta botilatik sagardoa
- **“Tolare” sagardotegia**



## Otatza

Otatza baserria / ZERAIN
943 80 17 57

- Maiatz bukaerara arte zabalik
- Domeka gaua eta astelehena egun osoa itxita
- Bertako janaria
- Aste bukaera eta jai egunetan egun osoz zabalik
- 170 lagunendako lekua eserita
- Eguerdietan enkarguz zabalik talde handiendako
- **“Tolare” sagardotegia**



## Zabala

Garagartza baserria / ADUNA / (Andoain eta Billabona artean) / 943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz
- Bertako janaria
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako III. Sagardo lehiaketako irabazlea 2004an
- Botilak salgai urte osoan
- **“Tolare” sagardotegia**

**Kepa Errasti** > Aktorea

# "Homosexualitatea telebistan modu naturalagoan erakusteko ordua da"

Kepa Errastiren txikitako ametsa zen aktore izatea. Kazetaritza ikasketak egitera jo zuen Bilbo aldera, baita horiek bukatu ere. Gero, Madrilera jo zuen birritan antzerki eskolan sartzeko asmoz. Ez zuen sartzerik lortu, baina jaso zuen amestutako saria: ETBko telesail ezagunenean protagonista papera. Gustura asko dabil, eta bide horri eutsiko dio oraingoz.

**IKER BARANDIARAN** > ARETXABALETA

**Kepa Errasti aretxabaletarra ezagun egin da aspaldian, *Goenkale* telesailean Alex pertsonaia delako. Bada, hura ezagututa, antzerkirako jaio dela ez dugu ukatuko, eta aspaldian kazetaritza zeharo alboratuta dauka.**

**Txikitan oso saltseroa eta antzerki-zalea zinen?**

Bai. Txikitatik lagunek askotan agoantatu behar izan naute, eta panpinekin txotxongiloak egiten nituen. Gerora, 6. mailatik aurrera buru-belarri ibili nintzen ikastolako antzerki asteetan.

**Eta noiz erabaki zenuen aktore izan gura zenuela?**

Nire betiko ametsa da, baina horretan lan egitea zaila denez, sasoi baten baztertuta izan nuen.

**Hortaz, zer dela eta ikasi zenuen kazetaritza?**

Behin antzerkia baztertuta, gehien gustatzen zaidana kazetaritza da. Telebista neukan buruan, aktore lanetik gertuen ikusten nuelako. Lagun talde bat joan ginen, eta gogoan daukat Aretxabaletatik irten ginen egunean ilusioz beteta geundela, autobusean txaloka eta guzti.

**Zelakoak izan ziren Bilboko urte haiek?**

Oso onak. Independentzia eta etxeko giro ona dira gehien disfrutatu nituenak. Astrabuduan bizi ginen eta ez ginen ia irteten, nagikeriarengatik eta etxean gustura geundelako. Horren ostean, Zabalburura joan ginen eta gauez ere irteten hasi ginen.

**Garai haietan makina bat gaupasa egin zenuen Oscarrak ikusteko...**

Bai (barreak). 16-18 urterekin asko hunkitzen nintzen kontu horrekin. Lagun bat Derioko ikasleen egoitzan bizi zen, eta han Canal+ zeukatenez, oharkabean egoitzara sartu eta gaupasa egiten genuen saioa ikusten. Lagunek lo hartzen zuten, baina nik adi jarraitzen nuen saio guztia goizera arte.

**Zuk gustura esku hartuko zenuke gala horretan, ezta?**

Glamourraren kontu hori tontakeria iruditzen zait, baina oso ondo pasatuko nuke ibiltokian. Batez ere muntaia ikusi gurako nuke. Bestalde, zinemako sari garrantzitsuenak dira, eta han egotea marka handia da.









JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

**Herria:** Aretxabaleta. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** kazetaritza eta antzerki tailerra. **Zaletasunak:** mendira joatea, zinema eta gitarra jotzea. **Debagoieneko jairik onenak:** Aretxabaletako Andramaixak. Jende gutxi ibili arren, nik izugarri disfrutatzen ditut. **Gizateriaren aurrerapen handiena:** kondoia. **Zure bizitzako leloa:** momentua bizi. **Zein filmetako protagonista izango zinateke?** Hillary Swank, *Boys don´t cry* filmean. **Kanturik gustukoena**: Doctor Deseoren *Corazón de tango*, esate baterako.

**Aretxabaleta txiki gelditu zaizu edo gurago duzu kanpoan ibili?**

Aste barruan gurago dut Donostian edo Tolosan ibili, baina ez dut Aretxabaletatik urrun egon gura, eta astebururo joaten naiz familia eta lagunak ikustera. Horrez gainera, kalera irten eta ezagunak ikusteko premia izaten dut batzuetan. Hiriek ez daukate hori, eta, nire iritziz, garrantzitsua da.

**Madrilgo antzerki eskola famatu baten sartzeko ahaleginak egin dituzu...**

Bai, birritan saiatu naiz, baina ez naute hartu. Resad eskolan urtero 500 bat lagun aurkezten dira 30 plaza eskuratzeko asmoz. Probak gogorrak dira eta norberak asko prestatu behar du. Oso argi izan behar duzu aktore izan gura duzula, elkarrizketetan gogor egiten dizute-eta.

**Probara gitarrarekin joan zinen...**

Bai, probetako bat da abestea, eta neuk gitarra eraman nuen. 13 urte nituenean amak gitarra opari egin zidan, Leixargaratera joaten ginenean jotzeko. Udalekuetan izugarrizko pelmada ematen nien lagunei. Nire kontu ikasi dut eta oso gustuko dut jotzea.

**Bat-batean *Goenkale*-rako deitu zizuten. Zelan hartu zenuen?**

Hartu egin nindutela esan zidatenean bihotzekoa eman zidan ia! Madrilen nengoen eta proba bat egiteko deitu zidaten, baina ezin nintzen joan, eta curriculuma eta argazkia bidali nizkien ea profila betetzen nuen ikus zezaten. Egun gutxira berriro deitu zidaten eta *Goenkale*-rako zela esan.

**Zelan daramazu gay jeloskorraren papera?**

Gustura nago, pertsonaiak erregistro asko dituelako. Baina ez dakit pertsonaia oso modu egokian enfokatuta dagoen, kontuan hartuta *Goenkale* jende nagusi askok ikusten duela. Alex oso maltzurra eta gaiztoa da, eta bada ordua homosexualitatea modu naturalagoan erakusteko; gay izatea ez dadila drama hutsa izan. Homosexualitatea onartze prozesuan dago eta gay den pertsonaia bati horrenbeste gauza negatibo jartzeak ez du askorik laguntzen. Adibidez, Alexen arrebak neska batekin halako maitasun istorio polita izateak lagundu egingo luke bide horretan.

## berriak

> SEINALE HEDAPENA

### Elgetako arazoak konpondu egin dituzte oraingo astean

Goiena Telebistak martitzenean konpondu zituen seinalearen hedapenarekin Elgetan zituen arazoak. Hala, azken hilabeteotako arazoa konponduta, aurrerantzean elgetarrek berriro izango dute aukera GOITB ondo ikusteko.

UHF-50 frekuentzian aurkituko dute Elgetako bizilagunek Debagoieneko telebista. Horrenbestez, programazio berriaz gozatzeko aukera izango dute Elgeta aldean.

> RROGRAMAZIOA

### 'Debarri' aste bukaeretan emititzea aztertzen ari dira

Alberto Gorritiberea kazetari mutrikuarrak zuzendu eta aurkezten duen *Debarri* saioa aste bukaeretan emiti dezake GOITBk aurrerantzean.

Debagoieneko herrietako alkateak dira protagonista saio horretan, eta otsaila eta ekaina bitartean emitituko dira bederatzi saio. Gorritiberearen 2007ko aurreneko programa hilaren 23an grabatu eta otsailaren 25ean eta 26an emitituko dute.

>ARRASATE IRRATIA

### Adopzioen gainean Anichi elkarteko Ana Gillegirekin

Aste bukaeran, Elgetako Ana Gillegirekin adopzioen gainean izandako solasaldia berreskuratuko dugu. Anak Txinatik ekarritako bi haur ditu, eta, egoera berean dauden beste hainbat guraso bezala, Anichi elkarteko kide da. Haur bat adoptatzeko jarraitu beharreko urratsen, bete beharreko baldintzen eta horrelakoen gainean kontatutakoak asteko gainbegiratuan izango dituzue.

>ZORION AGURRAK

### Arrasate Irratiko autobusaren eguneroko geltokia

Arrasate Irratiko autobusak azken geldialdia du egunero zorion agurren geltokian. Han, urteak bete edo aipamen berezia merezi dutenak agurtu eta zoriontzen dituzte egunero.

Zuk ere baduzu, entzule, senitarteko, lagun edo lankidea zoriontzeko eta baita entzun gura dituzun abestiak eskatzeko aukera ere. Horregatik, bada, erabili 943 71 17 31 telefonoa eta *Igo autobusera!* saiora.

**'BEHAZULO' >** EGUBAKOITZA, 21:15

# Leintz Eskola Kirola aztergai izango dute 'Behazulo' saioan

Eskola kirolak gure ibarrean izandako bilakaeraz arituko da Goiatz Arana zenbait gonbidaturekin

**GOIENKARIA** > BERGARA

Arrasatek eta Aramaiok batetik eta Aretxabaletak eta Eskoriatzak bestetik, 1990-1991 ikasturtean abian jarri zituzten Eskola Kiroleko proiektuak.

Gerora, 2003-2004 ikasturtean egin zuten proiektu bien arteko hurbilketa eta urtebete geroago Leintz Eskola Kirola eratu zen. Egitasmoaren gainean berba egingo dute *Behazulo* saioan.

Leintz Gatzagako, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Aramaioko udalek esku hartzen dute herri horietako ikastetxeekin batera eta Aldundiaren laguntzarekin.



**LEINTZ ESKOLA KIROLA.** Ibarreko kirol sistemaren oinarria da. GOIENKARIA

**LARROTXENE KULTUR ETXEA, '16 MM' SAIOAN >** EGUAZTENA, 22:15

# Larrotxene kultur etxean trebatzen dituzten zinema zuzendarien lanak ikusgai

**GOIENKARIA** > BERGARA

Ikus-entzunezkoen esparruan dago espezializatuta Donostiako Larrotxene kultur etxea eta lana hiru esparru nagusitan banatzen du: heziketan, ekoizpenean eta erakusketan, hain zuzen ere. Bideogintzan eta gidoilari lanetan aritzeko aukera dute ikastaroak egiten dituzten gazteek. Zinema zuzendari izan nahi dute gehienek, eta horretarako aukera eskaintzen die Larrotxenek. Tailer praktikoak antolatzen dituzte eta ikastaroa amaitzeko ikasleek aukera dute film labur bat egiteko. Ikastaro monografikoak izaten dira, espezialista eta profesionalen eskutik. Zentroak ditu grabaziorako, ediziorako eta erakusketarako ekipoak eta horiek erabiltzen dituzte zinema ikasle gazteek.

Hori guztia izango da mintzagai oraingo astean *16 mm* saioan. Amagoia Lasagabaster kazetariak Larrotxene kultur etxeak ekoiztutako zenbait film labur erakutsiko dizkigu eta zinema zuzendari gazteekin berba egingo du.

## telebegi

**Unai Loidi**

### Kochikame

Nola programatu telebistako albistegi bat, ahalik eta jende gutxienek ikus dezan? Ordu desegokian ipintzea bezalakorik ez. Arratsaldeko 8etan, adibidez. Eta atzetik, marrazki bizidunak gehitzea onena, programazioa biribiltzeko (jo dezagun 21:00ak aldera edo…). Iaz, ordu erdi lehenago azaltzen ziren *Hirukiak* pantailan, *potekada* bana jogurt jan ondoren umeei oherako gonbitea eginez kantari. Aurten baina, ez dakit zer gertatu den: kolpetik hazi zaizkigun umeak (*laktobaziloen* onurak!), edo zeharo umetu zaizkigun programatzaileak.

Kontua da, ETB1eko *Gaur egun* albistegia, iluntzekoa, 8etan ipini zutenetik oso zaila egiten zaidala parean harrapatzea. Eta beste askori ere halaxe gertatuko zaiola pentsatzen dut. Etxera heldu eta telebista piztutakoan *Kochikame* azaltzen zait hirugarren botoian (oraindik ere ez dut ulertzen zer egiten duen horrek hor), eta gaztelaniazko albistegiren bat ikusi beste erremediorik ez da izaten. Eta beste askori ere halaxe gertatuko zaiola pentsatzen dut.

## arrasate irratia

**FM 100.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Ana Gillegirekin, Anichi elkarteko kidearekin, adopzioaren gainean; Migel Angel Elokoroberezibar eta Karlos Aizpurua, Bergarako Amodiozko Gutunen gainean; Jonathan Perez pertika jauzilaria…

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Meteorologiaren geltokia (Pello Zabala)
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 10**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Musika saioa. **14:30** M1: Eguraldia eta zerbitzuak. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Iparrorratza. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albisteak **17:00** Berbaire **17:30** Eltze beroa **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean. **18:15** Teknopolis. **18:45** Albisteak. **19:00** Klipak. **19:15** Jazz mintegia. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak **20:45** Albisteak **21:15** Behazulo: Leintz eskola kirola **21:45** Berriak **22:15** Ilunpean **22:45** Albisteak **23:15** 16 mm. **23:45** Berriak **00:15** Emisio amaiera.

**Zapatua, 11**
**07:55** Emisio hasiera **08:00** Marrazki bizidunak bilduma **11:00** Behazulo. **11:30** Ilunpean **12:00** Eltze beroa: Krepa platano konpotarekin **12:15** 16 mm **12:45** Jaun ta jabe **13:45** Didjeridu. **14:15** Klip@. Musika taldeen bideoklipak **14:45** Jazz mintegia **15:15** MKT. **15:45** Ikuskizuna **17:45** Marrazki bizidunak. Bilduma **19:15** Eltze beroa. **19:30** 16 mm. **20:00** Behazulo: Leintz eskola kirola **20:30** Zera dio eta Motzean:Estitxu Arozena **20:45** Ilunpean **21:15** Teknopolis. **21:45** Berbaire: Mahai ingurua. **22:15** Elkartasun bideak. **22:45** 16 mm. Beamonen jauzia **23:15** Erreportajea: Kaiku egilea. **23:45** Emisio amaiera.

**Domeka, 12**
**07:55** Emisio hasiera. **08:00** Marrazki bizidunak bilduma. **11:00** Klip bilduma. **11:30** Iparrorratza. Kuban espeleologia egiteko aukera eskainiko digute. **12:00** Didjeridu. **12:30** Eltze beroa. **12:45** Erreportajea. **13:15** Elkartasun bideak. **13:45** Klip@. **14:30** Bidetxurretik. **15:00** Ilunpean. **15:30** Behazulo. **16:00** MKT musika. **16:15** Ikuskizuna. **16:45** Marrazki bizidunak. Bilduma **18:45** Klipak. Musika bilduma. **19:15** Iparrorratza: **19:45** Behazulo. **20:15** Zera dio eta Motzean. **20:30** Ilunpean **21:00** Didjeridu. **21:30** 16 mm. **22:00** Berbaire. Marijo Deogracíasek aurkeztutako mahai ingurua. **22:30** Didjeridu. **22:30** Teknopolis: erreportaje saioa. **23:00** Emisio Amaiera.

**Astelehena, 13**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Behazulo. **14:15** Eltze beroa. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Munduari bueltaka:Vietnam. **15:30** M1. Eguraldia eta burtsa tartea. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ilunpean. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Didjeridu. **17:30** Motzean. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Berbaire. **18:15** Jaun ta jabe. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** 16 mm. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Harmailatik. **21:45** Berriak. **22:15** Harmailatik. **22:45** Albisteak. **23:15** Jazz zikloa. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena, 14**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Jazz mintegia: **14:15** Zera dio. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Elkartasun bideak. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Harmailatik. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak. **16:45** Albisteak. **17:00** Jazz. **17:30** Danbaka. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea: Kaiku egilea **18:15** Munduari bueltaka: Vietnam. **18:45** Albisteak **19:00** Klipak. **19:15** Harmailatik. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Ilunpean. **21:45** Berriak. **22:15** Berbaire. **22:45** Albisteak. **23:15** Behazulo. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 15**
**13:15** Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire **14:15** Musika saioa **14:30** M1 **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Teknopolis. **15:30** M1 **15:35** Sendabelarrak **15:45** Gaurkoak **15:47** Behazulo **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Berbaire. **17:30** Zera dio eta Motzean: Roberto Moso. **17:45** Gaurkoak. **17:47** 16 mm **18:15** Teknopolis **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Didjeridu **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Teknopolis. **21:45** Berriak. **22:15** 16 mm: Larrotxene kultur etxeko film laburrak **22:45** Albisteak **23:15** Erreportajea **23:45** Berriak. **00:15** Amaiera.

**Eguena, 16**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Erreportajea. **14:15** Motzean. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Jaun ta Jabe. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Jazz mintegia. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** 16mm. **17:30** MKT musika. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Elkartasun bideak. **18:15** Iparrorratza: Kuban espeleologia. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Erreportajea:Kaiku egilea. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Jaun ta jabe. **21:45** Berriak. **22:15** Didjeridu: Jonatan Perez. **22:45** Albisteak. **23:00** Berbaire. **23:45** Berriak **00:15** Amaiera.

**Vanessa Sanchez** > Kazetaria, 'Teleberri'-ko aurkezlea

# "Saio dinamikoa egin nahi dugu eta ikusleak erakarri, zerbait berezia transmitituta"

EDU MENDIBIL > BERGARA

**Astelehenetik aurrera ETB-2ko *Teleberri* saioa aurkeztuko du Vanessa Sanchez arrasatearrak, Aitzol Zubizarretarekin batera. ETBko Parisko berriemailea izan da Vanessa azken bost urteotan.**

**Erronka berria duzu zure ibilbidean, ala?**

Bai, albisteak *terrenoan* jorratzen ibili naiz eta astelehenetik gaurkotasunaren kontakizuna egitea egokituko zait, baina estudiotik. *Teleberri*-ren beste aldea ezagutuko dut, eta oso erronka interesgarria da. Besteek landutako albisteak ahalik eta ondoen eta modurik erakargarrienean aurkezten saiatuko gara.

**Zu hastearekin batera beste nobedaderik izango al da?**

Momentuz ez. Aurkezle lanetan bi lagun aritzean, aurkezteko modua aldatu egiten da, baina ildo beretik jarraituko dugu.

**Ze estilotako informatiboa egin nahi duzue?**

Saio dinamikoa bat egin nahi dugu eta ikusleak erakarri, eta zerbait berezia transmititu. Egunotan ezagutzen nabil erredakzioko lana eta oso sentsazio onak izan ditut. Hori transmititzea eta ikusleak erakartzea espero dugu.

**Zelako ekipoa dago hor atzean?**

Orain dela gutxi sortutako lantaldea da eta oso motibatuta ikusten dut. Andoni Arratibel da errealizadorea eta talde sendoa dago atzean. Errealizadorea, erregidorea… Alderdi teknikoez arduratzen diren lankideez gainera, 25 bat lagun arituko dira kazetari lanetan.

**Gaueko albistegiei dagokienez, Telecincokoaren ondoren ikusiena da *Teleberri*. Audimetroei beldurrik bai?**

Orain arte baino gehiago begiratuko diet, baina espero dut horrengatik lorik ez galtzea… Dena dela, kontuan hartzeko faktorea izango da. Ikusiko dugu gauzak ondo doazen…

**Estudioko lana berria da zuretzat. Aurretiko lan handia eskatzen du?**

Gauza batzuk landu behar ditugu, eta denborarekin ere joango gara gauzak hobetzen... *Pronterra* irakurtzera ohitzen nabil, estudioko bi kamerei adi egoten... Ezustekoak ere gertatuko dira, eta jakin egin behar duzu nora begiratu, zein izan behar den zure solaskidea horrelakoetan... Eta hori guztia, hitz egiten zabiltzan bitartean. Era berean, errealizadorearekin nabil hainbat gauza jorratzen: makillajea dela, jantziak direla... Jantzita zelan? Egunotan erabakiko dugu, baina ez dut nire burua askorik aldatu nahi.

**Zer behar du, zure ustez, albistegietako aurkezle on batek?**

Irakurtzen dutena sinistea eta serioski hartzea gauzak, eta hori transmititzea. Gauzak erraz kontatzea funtsezkoa da. Egoera edo albistegi ezberdinetara egokitzen jakitea ere inportantea da. Era naturalean egiten bada, *chapeau*! Ikusiko dugu nola moldatzen garen…

**"Oso erronka interesgarria da gaurkotasunaren kontakizuna egitea"**

**"Politika asko jarraitzen da Euskal Herrian, eta hori nabaritu egiten da informatiboetan ere"**

**Politikak gehiegi agintzen du albistegietan?**

Euskal Herrian bai. Esate baterako, Frantziako albistegiek ez daukate zerikusirik hemengoekin. Politika asko jarraitzen da Euskal Herrian, eta hori nabaritu egiten da informatiboetan ere.

**Zelako gaiekin sentitzen zara erosoen?**

Euskal Herriko gaurkotasunera bueltatzeko gogoz nago, baina azkenean guztioi kezkatzen gaituzten gaiekin: etxebizitza, diskriminazioa, emakumeon gaiak... Azken baten, ni ere horko aktore sentitzen naiz.

**Nazioarteko gertakizunak gertutik jarraitu dituzu. Zein izan dira une gogorrena eta atsegina?**

Gogorrena, tsunamiaren eta Italian gertatutako lurrikararen berri eman nuenean… Eta pozgarriena, beharbada, klitori ebakuntza egin zioten emakume bati egindako elkarrizketa. Pentsatzen genuen horrek ez zuela konponbiderik, baina mediku frantses batek ebakuntzak egiten ditu. Emakume haren pozarekin ni ere negarrez hasi nintzen....

**Telebista aurrean ordu asko ematen dituzu?**

Bai; batez ere gaurkotasunarekin lotutako saioak eta dokumentalak ikusten ditut. Barietate programa gutxi...



Vanessa Sanchez, *Teleberri*-ko aurpegi berria astelehenetik aurrera. ETB

Otsailaren 12a: 075 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

## Sariak astero!

Astelehenean, otsailak 13, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

### 074 zozketako saridunak

**Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).**

- Jose Luis Arantzeta Arregi (Elgeta)
- Maider Goya Elkoro (Aretxabaleta)

**Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).**

- Gorka Gisasola Perez (Bergara)
- Ana Mari Lizarralde Heriz (Arrasate)

### 075 zozketako sariak

- **EIBAR-NASTIC TARRAGONA** futbol partidua ikusteko sei gonbidapen. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



**ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIA: PIZTIAK** taldearen kontzerturako lau gonbidapen (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

### Baldintzak

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko: 902 36 38 51 09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota: 36 euro 2006 bukaera arte

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa




hamaika esperientzia, proiektu bat

- elkarlana
- lankidetza
- herrikoia
- aktiboa
- prestatua
- kalitatezkoa
- integratzailea
- berritzailea
- konpromisoduna
- sustatzailea
- euskalduna

GOIESKOLA

MATRIKULAZIOA: OTSAILAREN 6TIK 17RA

**Gatzaga/Eskoriatza**
Luis Ezeiza
· Haur eta Lehen Hezkuntza: Gaztainadui, z/g. Tel.: 943 71 49 38

**Aretxabaleta**
Kurtzebarri Eskola
· Haur eta Lehen Hezkuntza: Santa Kurtz 19. Tel.: 943 79 00 49
· Kurtzebarri BHI: Herriko plaza 1. Tel.: 943 79 57 40

**Arrasate**
Arrasate Herri Eskola
· Haur Hezkuntza: Musakola. Elkano 10. Tel.: 943 79 04 49
Bedoñabe. Alfontso VIII. Tel.: 943 79 20 69
· Lehen Hezkuntza: Erguin. Uribarri 36. Tel.: 943 79 77 74
Arrasate Institutua
· D.B.H. eta Batxilergoak: Santa Teresa. Santa Teresa 25. Tel.: 943 79 44 47

**Aramaio**
San Martin
· Haur eta Lehen Hezkuntza: Nardeaga z/g. Tel.: 945 44 50 04

**Bergara**
San Martin Agirre
· Haur eta Lehen Hezkuntza: Boni laskurain 25. Tel.: 943 76 21 47
Ipintza
· D.B.H. eta Batxilergoak: Boni laskurain 19. Tel.: 943 76 31 42

**Antzuola**
Antzuolako Herri Eskola
· Haur eta Lehen Hezkuntza: Buztinzuri 3. Tel.: 943 76 62 68

**Elgeta**
Elgetako Herri Eskola
· Haur Hezkuntza: Maala 4. Tel.: 943 76 82 26

**Oñati**
Errekalde
· Haur eta Lehen Hezkuntza: Errekalde auzoa 25. Tel.: 943 78 07 64
Zuazola Larraña Oñatiko BHI
· D.B.H: Aita madina z/g. Tel.: 943 78 12 68

goieskola@euskalnet.net 605 773992 www.goieskola.net




MAITEMINDUTA ZAUDE?

Ez esan, idatz ezazu
eta zabaldu lau haizetara.
Zure maitasun mezuak
**HEGAN ERAMAN ZAITZAKE KARIBERA**

Ipini hegoak zeure bihotzari

el Boulevard de Vitoria-Gasteiz

viajes marsans

Zatoz Boulevard dendagunera, eta, erosketa txartelaren truke, eskatu kupoia informaziogunean, zeure maitasun mezua idatzi ahal izateko. Mezua gure pantailan proiektatuko dugu, eta **bi pertsona Karibera joateko bidaiaren** zozketan parte hartuko duzu. Probatu zeure asmamena, eta bidaia on!

# Otsailak 10-17

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguaztenko eguerdiko 12:00ak baino lehenago
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 25 05 01** • Faxa: **943 25 05 13**

## Jose Enrike Ayarra organo-jolea



BERGARA

**> Jose Enrike Ayarrak organo kontzertua egingo du zapatuan San Pedro parrokian**

Jose Enrique Ayarra organo-jole aragoarrak kontzertua egingo du San Pedron, 20:00etan, Organo Erromantikoaren Nazioarteko VII. Zikloaren barne. Sevillako Goi Mailako Kontserbatorioko Organoko Katedraduna da Ayarra.

## Film labur aurkezpena



OÑATI

**> *La balada de la venganza* laburra aurkeztuko du Kepa Aranburuk**

Kepa Aranburu oñatiarrak *La balada de la venganza (western*-a) aurkeztuko du zapatuan Oñatiko gaztelekuan, 22:30ean. Sharon Stoner, Potemkin, Amonal, Show Business, Joze, Kirrin, Julen eta beste musikari batzuek girotuko dute gaua.

## Dani Laskurainen margolanak



BERGARA

**> Dani Laskurain bergararrak 18 margolan ditu erakusketan**

Dani Laskurain margolariak (Bergara, 1966) tamaina txiki eta ertaineko 18 margolan ditu erakusketan Masterreka kaleko Nahikari tabernan. Kolorearen eta geometriaren erabilera berezia nabarmentzen dira bilduma horretan.

## Antzerkia

OÑATI

**> *Bola Luma* antzezlana egingo dute Santa Ana antzokian**

*Bola Luma* delako antzezlana egingo du Kixka taldeak. Umeei zuzendutako antzezlana da. Sarrera 2 euro da.

Otsailaren 11n, Santa Ana antzokian, 18:30ean. Errekalde Herri Eskolak antolatu du, hamabostaldi kulturalaren barnean.

ARRASATE

**> *Nasdrovia Txejov* antzezlana egingo dute, euskaraz**

Anton Chejoven ipuinetan oinarritutako *Nasdrovia Txejov* antzezlana egingo du Vaiven Producciones taldeak. Euskaraz izango da.

Otsailaren 12an, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

ESKORIATZA

**> Umeendako ipuin kontaketa saioa antolatu dute**

Ipuinak kontatuko dizkie Peio Añorga kontalariak 5 urtetik gorako umeei.

Otsailaren 16an, eguena, liburutegian, 18:00etan. Udalak antolatuta.

## Musika

ARRASATE

**> Bosniako umezurtz-etxe baten aldeko kontzertu lirikoa**

Bosniako Bjelave umezurtzetxearen aldeko kontzertu lirikoa emango dute Juan Luis Anasagasti tenoreak eta Jaime L. Butron piano-joleak. Euskal eta italiar abestiak, zarzuela eta operako piezak joko dituzte.

Otsailaren 11n, zapatua, San Joan parrokian, 20:00etan.

BERGARA

**> Flyshit taldeak disko berria aurkeztuko du zapatuan**

Flyshit taldeak 10. urteurrena ospatu eta *Bizitza… baina nola bizi* CDa aurkeztuko du. Gainera, Supercools taldeak sagardotegiko menua aurkeztuko du, eta Azkaiter Peloxek ere joko du. Horrez gain, Txoriren kartelen erakusketa ipiniko dute: 100 karteletik gora eta Flyshit taldearen ibilbideko beste kartel batzuk.

Otsailaren 11n, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA

**> Ill Niño taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan**

Ill Niño taldeak *Revolution… Revolución* diskoa aurkeztuko du. Infinner taldeak ere joko du.

Otsailaren 11n, zapatua. Jam aretoa. 20:00.

ARRASATE

**> The Soul Band taldeak musika emanaldia egingo du**

The Soul Band musika taldeak joko du Gure-Leku tabernan.

Otsailaren 10ean, egubakoitza, 23:15ean.

## Erakusketak

ELGETA

**> Karikaturak ipini dituzte erakusketan Espaloian**

Karikatura erakusketa dago Espaloia antzokian otsailaren 25era bitartean. Egun horretan bi karikaturagile etorriko dira, nahi duenari egitera.

Otsailaren 25era bitartean. Espaloia kafe antzokia.

ESKORIATZA

**> Euskal Herriko musika tresnen gaineko erakusketa**

Euskal Herriko musika tresna tradizionalen gaineko erakusketa dago. Lorentzo Altube arrasatearrak batutako tresnak dira.

Otsailaren 16ra arte, Ibarraundi museoan. Ordutegia: astegunetan, 17:30-19:30; asteburuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

ARRASATE

**> *Mundua zeuk margotu* delako erakusketa ipiniko dute**

*Mundua zeuk margotu* delako erakusketa ipiniko dute. Arrasateko elizetako katekesian dabiltzan umeek (8-11 urte) buztinez egindako lanak dira, eta Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko partehartze gunean egin dituzte.

Otsailak 14-17. Monterron, 17:00-20:00.

BERGARA

**> Iñaki Moreno Ruiz de Eginoren margolanak eta eskulturak**

Iñaki Moreno Ruiz de Egino (Donostia, 1953) artistak lan grafiko eta eskultura erakusketa du Aroztegi aretoan. Mundu osoan erakutsitakoa da, eta euskal artista garrantzitsuenen eragina jaso du, bereziki Jorge Oteitzarena.

Martxoaren 5era arte. Ordutegia: astegunetan, 18:00, 20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan, 12:00-14:00.

ARAMAIO

**> Sarekide erakusketa, teknologia berrien inguruan**

Landa eremuan teknologia berriak zelan txertatzen diren eta zelan lagun dezaketen azalduko du Sarekide erakusketak. Nekazariei, abeltzainei, nekazari eremuko emakumeei… dago bereziki zuzenduta. Eusko Jaurlaritzak antolatzen du, Mendineten bitartez.

Otsailak 13-23, asteburuetan izan ezik. Sastiñan izango da.

ARRASATE

**> Zubiagaren margolanen erakusketa Harresi aretoan**

Zubiaga margolariak hainbat lan erakutsiko ditu Iturriotz kaleko Harresi aretoan.

Otsailak 16-28. Harresi aretoa. Astegunetan: 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

DONOSTIA

**> Arantzazuko basilikaren inguruko erakusketa**

*Arantzazuko basilikako arkitektura eta eskultura: aurreproiektua, proiektua eta eraikuntza 1950-1955* delako erakusketa dago Koldo Mitxelenan. Eraikuntza prozesuaren gaineko alderdi ezezagun batzuk azaltzen dira han. Liburua ere prestatu dute.

Apirilaren 1era arte, Koldo Mitxelena Kulturuneko Ganbaran.

## Jaiak

ARETXABALETA

**> Santa Agedako mutilek dantza egingo dute jendaurrean**

Santa Ageda eguneko ospakizunekin jarraituz, aurtengo mutilek dantza egingo dute herriko plazan etzi, domeka.

Etzi, otsailak 12, domeka, herriko plazan, 19:00etan. Aratuste-domekara bitartean, domekero egingo dute dantza.

OÑATI

**> Santa Eskolastika eguna ospatuko dute Elkar Hezin**

Santa Eskolastika eguna ospatuko dute Elkar Hezi ikastetxean gaur, hilak 10, egubakoitza. 09:00etan, elizkizuna izango dute; 10:00etan, ikasle eta irakasleek antzerki eta musika emanaldiak egingo dituzte ikasleendako, eta 18:30ean, gurasoendako eta herritar guztiendako.

Gaur, otsailak 10, egubakoitza, Elkar Hezi ikastetxeko Santa Eskolastika egoitzan.

PROPOSAMENA

ARRASATE

### > Mozambikeko errealitatea, argazki bidez gerturatua

Euskaltegietako ekintza antolatu du Arrasateko AED taldeak, Zahar Berri proiektuaren barnean: *Mozambike, lehoi gabeko herria* delako argazki proiekzio eta berbaldia. Iñigo Urrutia deriotarrak egingo du.

Ordubete inguruko emanaldian, joan den udaberrian Mozambiken ateratako argazkiak eta mapak erakutsiko ditu, eta herri hartako errealitatea azalduko du horien bidez.

Otsailak 16, eguena, Monterron jauregian, 18:00etan.



## nire aukera



Anton Azpiazu
Klaxk elkarteko presidentea
Oñati

## Aisialdian ere, txokolatea ikertu

Lanbideak txokolatearen mundura eraman zuen Anton Azpiazu 50 urteko oñatiarra –Zahor txokolate lantegian dihardu–, eta txokolatea bihurtu da bere zaletasun eta pasio handi ere: iaz sortu zuen Klaxk, txokolatearen lagunen elkartea, beste oñatiar askorekin, eta txokolatearen museoa egitea da bere ametsa.

Aisialdiaren zati garrantzitsu bat jaki ilun goxoaren gainean ikertzeari eta irakurtzeri eskaintzen diola esan digu Antonek, eta “oso ondo” uztartzen dituela lana eta denbora-pasa, “biak gai berberaren gainekoak dira-eta”.

**Jan duzun txokolaterik gozoena?**
Neuk egindako bat, iluna, kakaozkoa. Ez naiz sukaldari trebea, baina gauza hauetarako esku ona daukat.

**Domekarako postre bat?**
Txokolatezko *mousse*-a, hiru txokolate motarekin: esneduna, iluna eta zuria.

**Irakurtzea ere gustatzen ei zaizu.**
Bai, ilunkeran eta bakarrik nagoenean. Batik bat, txokolatearen historiaren eta XVII. mendeko gizartearen, ohituren... gainean irakurtzen dut.

**Nobelaren bat gomendatzekotan, zein?**
Orain irakurtzen ari naizena: *Vademecum*, Arantzazu Ametzagarena.

**Asteburuan zein beste zaletasun daukazu?**
Egunero paseoan ibiltzea, Oñatin. Denetariko eguraldiarekin ibiltzen naiz, berdin udan zein neguan. Murgiako auzoa da, nire ustez, politena.

# Zinema

### ARAMAIO
#### KULTURA ETXEA

**Cinderella man**
Egubakoitza: 22:30.

**Los cuatro fantásticos**
Domeka: 17:00

### ARRASATE
#### AMAIA ANTZOKIA

**Una historia de violencia**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Wallace & Gromit**
Zapatua: 17:00.

**La vida secreta de las palabras**
Eguena: 20:30.

### ELGETA
#### ESPALOIA ANTZOKIA

**Mulan (espainolez)**
Domeka: 17:30.

**Ray Charles**
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI
#### KULTURA ETXEA

**El jardinero fiel**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Supertramps (euskaraz)**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**George eta herensugea**
Martitzena: 18:00.
Santa Ana antzokian.
Errekalde Herri Eskolak antolatuta.

**El cielo gira**
Eguena: 20:00.

### EIBAR
#### UNZAGA

**Esta abuela es un peligro 2**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

#### RIALTO

**La vida secreta de las palabras**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ
#### GURIDI

**Memorias de una geisha**
17:00, 19:45, 22:30.

**Crash**
17:00, 19:45, 22:30.

**Sin control**
17:30, 20:00, 22:30.

**Orgullo y prejuicio**
17:30, 20:00, 22:30.

**Esta abuela es un peligro 2**
17:30, 20:00, 22:30.

**Underworld evolution**
17:00, 19:45, 22:30.

**En la cuerda floja**
17:00, 19:45, 22:30.

#### FLORIDA-GURIDI

**Brokeback mountain**
17:00, 19:45, 22:30.

**La vida secreta de las palabras**
17:00, 22:30.

**Secretos de familia**
17:00, 22:30.

**El tiempo que queda**
17:30, 20:00, 22:30.

**Manderlay**
17:00, 19:45, 22:30.

**Secretos compartidos**
17:00, 19:45, 22:30.

**Una rosa de Francia**
17:00, 22:30.

**Escondido**
19:45.

**Napola**
19:45.

**El jardinero fiel**
17:30, 20:00, 22:30.

#### ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

**Underworld evolution**
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

**La semilla del mal**
20:00, 22:15, 00:30.

**La joya de la familia**
22:00, 00:30.

**Esta abuela es un peligro 2**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Terror en la niebla**
20:00, 22:15, 00:30.

**Dick y Jane, ladrones de risa**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Animales heridos**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**El tiovivo mágico**
16:00.

**Las Fieras Fútbol Club**
16:00, 18:00.

**Doce fuera de casa**
16:00, 18:00.

**Guardando las apariencias**
18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Al fin el mar**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Las crónicas de Narnia**
16:00, 19:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

#### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**Underworld evolution**
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**En la cuerda floja**
21:50, 00:40.

**Bambi 2**
12:15, 16:15, 18:00, 19:45.

**Secretos compartidos**
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

**Una rosa de Francia**
12:15, 15:55, 17:55.

**Brokeback mountain**
12:15, 16:25, 19:15, 22:00, 00:35.

**Munich**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 21:00, 00:10.
Domeka: 12:15, 15:45, 19:00, 22:15.

**Memorias de una geisha**
12:15, 16:10, 18:55, 21:45, 00:30.

**Crash**
18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

**Esta abuela es un peligro 2**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Terror en la niebla**
20:15, 22:15, 00:15.

**Dick y Jane, ladrones de risa**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Las crónicas de Narnia**
12:15, 17:00.

**El jardinero fiel**
19:50, 22:20, 00:50.

**Harry Potter y el cáliz de fuego**
12:15, 17:15.

**Sin control**
1215, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Doce fuera de casa**
12:15, 16:05.

**Match point**
19:55, 22:25, 00:50.

**Orgullo y prejuicio**
12:15, 16:30, 19:00, 21:30, 00:05.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

#### ÁBACO BOULEVARD

**Underworld evolution**
12:00, 16:05, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

**Bambi 2**
12:15, 16:30, 18:15, 20:00.

**Secretos compartidos**
12:15, 16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:45.

**En la cuerda floja**
19:30, 22:10, 00:45.

**Esta abuela es un peligro 2**
12:00, 16:00, 18:05, 20:15, 22:25, 00:45.

**Munich**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:15, 23:30.
Domeka: 12:00, 16:00, 19:00, 22:00.

**Secretos de familia**
22:25, 00:30.

**Brokeback mountain**
12:00, 16:30, 19:10, 22:10, 00:45.

**Memorias de una geisha**
12:00, 16:10, 19:00, 22:00, 00:45.

**Crash**
20:00, 22:20, 00:45.

**Dick y Jane, ladrones de risa**
12:00, 16:25, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

**Sin control**
12:00, 17:00, 19:45, 22:10, 00:45.

**Doce fuera de casa**
12:15, 16:15, 18:10.

**Los dos lados de la cama**
20:05, 22:10, 00:30.

**King Kong**
12:00, 16:00.

**Las crónicas de Narnia**
12:00, 17:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**La vida secreta de las palabras** ***
Espainia, 2005. Zuzendaria: Isabel Coixet. Aktoreak: Sarah Polley, Tim Robbins, Javier Cámara.
112 min. Drama.
Plastiko lantegi baten dihardu *Hannah*-k (Polley), eta, atsedenaldi baten, lanistripua izan duen teknikari bat, *Joseph* (Robbins), zaintzen erizain lanetan hasiko da.

**Una historia de violencia** ****
AEB-Kanada, 2005. Zuzendaria: David Cronenberg. Aktoreak: Viggo Mortensen, Maria Bello, Ed Harris.
96 min. Thrillerra, drama.
*Tom Stall* (Mortensen) bere hiriko heroi bihurtzen da bere burua eta beste batzuena defenditzeko bi lapur hiltzen dituenean. Betiko bizimodura itzultzen saiatzen da *Tom*, baina gizon misteriotsu bat iritsiko zaio kontuak eskatzen.

**Brokeback mountain** ****
AEB, 2005. Zuzendaria: Ang Lee. Aktoreak: Jake Gyllenhaal, Heath Ledger.
134 min. Drama.
AEBetako mendebaldeko bi abeltzain gazteren arteko amodiozko istorioa kontatzen du, homosexualitatea isilpean bizi behar izaten duten garai eta gizarte baten. Oskarretarako zortzi izendapen ditu film honek.

**El cielo gira**
Espainia, 2005. Zuzendaria: Mercedes Álvarez. Aktoreak: Antonino Martínez, Silvano García.
110 min. Dokumentala.
Soriako Aldealseñor herrixkan 14 bizilagun geratzen dira. Hango bizilagunek eta Pello Azketa margolariak antzekotasun bat dute: gauzak euren begi aurrean desagertzen hasi dira. Mercedes Álvarez Aldealseñorren jaio zen eta kronika hori kontatzen digu.

**Napola**
Alemania, 2005. Zuzendaria: Dennis Gansel. Aktoreak: Max Riemelt, Tom Schilling, Devid Striesow.
110 min. Drama.
Berlin, 1942. *Friedrich* 16 urteko mutilak (Riemelt) boxeolari izan nahi du. Nazien eskola baten sartzen dute hori garatzeko. Han, *Albrecht*-en (Schilling) lagun min bihurtzen da. Baina *Albrecht* oso kritikoa da nazi ideologiarekin...

**Secretos compartidos**
AEB, 2005. Zuzendaria: Ben Younger. Aktoreak: Uma Thurman, Meryl Streep, Bryan Greenberg.
105 min. Komedia.
*Rafi*-k (Thurman), 27 urteko argazkilari batek, *David* (Greenberg) ezagutzen du, 23 urteko margolaria, eta harremana hasten dute. Baina *David*-en ama, *Lisa*, *Rafi*-ren psikiatra da.

**En la cuerda floja**
AEB, 2005. Zuzendaria: James Mangold. Aktoreak: Joaquin Phoenix, Reese Whiterspoon, Robert Patrick.
136 min. Biografia, musikala.
Johnny Cash (Phoenix) musikariaren bizitza kontatzen du, bere hasiera umiletik, Arkansasen, 50eko eta 60ko hamarkadetako rock-and-rollaren izar bihurtu eta horrek ekarri ziona errepasatuz: maitasuna, mendekotasunak...

**Sin control**
AEB, 2005. Zuzendaria: Mikael Håfström. Aktoreak: Clive Owen, Jennifer Aniston, Melissa George.
110 min. Thrillerra.
*Charles* (Owen) enpresaburu eta familia gizonak emakume bat ezagutzen du, eta harremana hasten du berarekin. Halako baten, baina, gaizkile arriskutsu bat jazartzen hasten zaie...

**Esta abuela es un peligro 2**
AEB, 2005. Zuzendaria: John Whitesell. Aktoreak: Martin Lawrence, Elton LeBlanc.
100 min. Komedia.
*Malcolm Turner* (Lawrence) FBIko kidea da, mozorroen maisua, eta emakume nagusi batena egin beharko du misio arriskutsu baten.

**El jardinero fiel** ****
Erresuma Batua, 2005. Zuzendaria: Fernando Meirelles. Aktoreak: Ralph Fiennes, Rachel Weisz.
129 min. Thrillerra.
Kenyan, herriaren garapenaren alde lan egiten zuen emakume bat, *Tessa Quayle* (Weisz) hil egiten dute. Alarguna, *Justin* (Fiennes), emaztea farmazia-enpresen gaineko eskandalua ikertzen ari zela konturatzen da.



## Munich ****

**Zuzendaria:** Steven Spielberg.
**Aktoreak:** Eric Bana, Daniel Craig.
AEB. 2005.
134 min. Thrillerra, drama.

*Munich* thriller politiko konplexu, sutsu eta zoragarria da. Spielbergek, batez ere, gorrotoak eta indarkeriak kale itsura eramaten dutela azaldu nahi du: indarkeria jasaten duena hondatzeaz gain, indarkeriaren erabiltzailea ere hondatzen du. Gorrotoak dena kutsatzen du; eta horrela, neurririk gabe eta etenik gabe handitzen doan bola bihurtzen da.

*Munich*-ek palestinar-judutar gatazka ukitzen du. Eta zuzendariak alde politikoa ausardiaz azaltzen badu, ez du gatazkaren alde gizatiarra ahazten: gizakiaren anbiguotasuna argi geratzen da; hoztasun osoz hilketa ikaragarriak egiteko kapaz diren pertsonaia batzuk, gizatiar bihurtzen dituzten sentipenak (maitasuna, beldurra edo alhadura sentitzeko kapaz dira) badituztela ikusten dugu. Filmak erakusten digu, zentzu baten behintzat, borrero batzuk, ez denak, sortutako gorroto eta erotasun espiralaren biktima direla.

Dena den, Spielbergek inork baino hobeto daki zinema ikuskizun bat dela, eta ikuslearen arreta lortzeko, hari gauzak ondo eta modu erakargarrian kontatu behar zaizkiola. Eta alde horretatik, filma zoragarria da. Atentatu guztiak detaile guztiz kontatuta daude: biktimen eta hiltzaileen mugimenduak ikusten ditugu, baita ekintza bakoitzean sortzen diren ustekabeak ere. Zuzendariak, denborarekin eta espazioarekin jolasten, tentsioz beteriko eszenez osatutako film zirragarria lortzen du. *Munich*-en, ikuskizuna eta drama ondo bateratuak doaz.

**Antonio Zabala**

ZINEMA MERKEAGO
Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu
Promozio baliagarria 2006/02/28, astelehenetik igandera. Ez da bateragarria beste promozioekin.
www.cinesabaco.com
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52 www.cinesabaco.com
C.C EL BOULEVARD
C.C LAKUA
ÁBACO
ZINEMA MAILA GORENEAN

Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
ORDEZKARITZAK **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasate@goiena.com
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxabaleta@goiena.com
HARPIDETZA **943 79 21 00** • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2006-02-10

# Arantzazu Ibarrondo, Aconcaguatik bueltan

Felipe Uriarte bikotekidearekin eta beste zortzi lagunekin Amerikako gailurra egin du; mundu osoko mendietan ibilitakoa da oñatiarra

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Candanchun eskiatzen zebilela harrapatu genuen Arantzazu Ibarrondo oñatiarra astelehenean. Joan den urtarrilaren 11n Aconcaguako gailurra zapaldu zuen Arantzazuk, Felipe Uriarte bikotekidearen laguntzarekin, besteak beste. Espedizioa abenduaren 26an abiatu zen Euskal Herritik. Uriarterekin batera Alex Garate elgoibartarrak egin zituen gidari lanak eta haiekin bederatzi lagun joan ziren Amerikako gailurrera (6.982 m) bidean, tartean bi emakume: Arantzazu bera eta Ainhoa Larrea lezoarra.

**AMERIKAKO HIRU HANDIAK**

Felipe Uriarterentzat 16. aldia zen Aconcaguara iristen zela. Hark dioen moduan, "garrantzi handiagoa du niretzat taldeko hamar lagunetatik bederatzi gailurrera iritsi izanak".

Arantzazuk Amerikako hiru handiak zapaldu ditu, 2000. urtean Ojos del Salado eta Pissis mendiak (Txile eta Argentina arteko mugan biak) egin baitzituen, Uriarterekin orduan ere. Aldi hartan ez zuen Aconcagua zapaltzerik izan, gaixotu egin baitzen. "Aconcagua gogorra da, baina beste biak agian zailagoak dira; azpiegiturarik ez dagoelako, basatiagoak direlako. Beti ere ondo girotzea da inportanteena. Aconcaguako gailurrera heltzean familiarekin eta lagunekin akordatu nintzen". Eurak egondakoan valentziar mendizale bat hil zen eta beste hiru argentinar gazteri laguntza eman behar izan zieten jaitsieran. Beste mendi asko tan ibilitakoa da Arantzazu: Island Peak (Himalaian), Lenin, Huascaran (Peru), Mustag Ata (Txina)... Haren hitzetan, "apaltasuna eta pazientzia beharrezkoak dira mendian". Feliperekin maisu ezin hobea izan du.

Ez daki hurrengo espedizioa nora egingo duen, baina Kilimanjaro errepikatzeko moduko mendia dela diosku. "Hango paisaia zoragarria da. Edozelan ere, Pirinioetan, eta hurbileko mendietan, Aizkorrin edo Aralarren asko disfrutatzen dut".



**ACONCAGUA** mendiko gailurrean Arantzazu Ibarrondo eta Felipe Uriarte. FELIPE URIARTE

## ahobero

### "Lagun onak eta erdipurdiko arerioak izatea beharrezkoa da 'Gran Hermano' irabazteko"

**Pepe Herrero** > 'GH'-ko irabazlea

Landutako estrategia ondo atera zaie Peperi eta bere lagun kubatarrari. Noiz arte iraungo du elkarren arteko adiskidetasunak? Erdipurdiko arerioek ez dute ondo hartu Pepe irabazlea izatea. A ze aurpegitxoak! Peperen harrokeria jasan behar, gainera...

## iturri onetik

### Tranbiaren gainean alkateen eta Jaurlaritzaren arteko bilera Arrasaten

Debagoieneko alkateek eta Jaurlaritzako ordezkariek batzarra egingo dute astelehen arratsaldean Arrasaten. Tranbiaren proiektua izango dute aztergai.

Herritarren artean askotariko iritziak daude tranbia dela-eta, baina alkateen eta indar politikoen artean erabateko adostasuna dago proiektua aurrera ateratzeko. Ikusi beharko da asteleheneko bilerak zer ematen duen.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Gustatu zait

Zalapartaka ibili nintzen GOIENKARIA berriaren aurkezpenean, tertulia baineukan gero irratian. Bi gauza nabarmentzeko: Patxi Baztarrika sailburuordearen hitzaldia, eta agurreko bideoan ordezkari politiko guztiak agertzea.

Gero aztertu dut ale berria eta asko gustatu zait. Goio Aranak berriro asmatu du diseinuan, oraingoan dotore, argi eta moderno. Eta iraultza itzela egon da edukietan. Ibarraren bilakaerak egin zuen posible Goiena sortzea duela sei urte, eta orduan ezinezko zena bihurtu da posible gaur: argitalpen bakarra ibar osorako. Bakoitzaren herria ahaztu gabe, elementu komunak azpimarratuz, komunitatea indartzeko. Uste dut hori dela bidea bizirauperako. Eta esango nuke horretaz ari dela Atxaga, Euskal Hiria aldarrikatzen duenean.

## ai ene!



### Auto ilaran egongo balira bezala

Reuters agentziaren iazko argazkirik onenak. Moskun elkartu zirenean, Volga autoa zelan gidatu irakatsi zion Putinek Bushi.

http://tinyurl.com/9xcv9



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51